

"Berdintasunean
hezi behar
ditugu
enpresaburu
izango diren
ikasleak"

Eunate Elio
ETEoko
irakaslea > 08



G2a

Musika eta
errebindikazioa,
Gazteburuan > 29

ARRASATE

Udalak presoen argazkiak kendu
ditu, Ertzaintzak aginduta > 04

OÑATI

Nazioarteko Soziologia Institutuak
20 urte beteko ditu uztailean > 04

ESKORIATZA

Felix Likiniano iraultzailearen
gaineko erakusketa, ikusgai > 11



Bizardunak taldearen estreinaldia. J.A.

ARRASATE > MUSIKA

3.60 aretoaren agur jaia

Arrasateko musika
aretoa bost urtetan
gidatu duen taldeak
eten du orain arteko
ibilbidea > 30

KONTSUMOA > UDAKO MERKEALDIAK

Beherapenen aurretik heldu dira deskontuak

UZTAILAK 1 Udako merkealdiei
hasiera ofiziala emango diete
eguztenean, baina saltoki asko
hasiak dira promozioak eskaintzen

KRISIA EDO PRESIOA Saltzaile
batzuek krisiari egozten dizkiote
deskontuak; eta beste batzuek
aldamenekoek jarri izanari > 03

Eskoriatzako San Pedroek hartu dute jaien lekukoa ibarrean

Atzo, domeka, eman zioten
hasiera ofiziala Eskoriatzako
aurtengo San Pedroei, nahiz
eta zapatuan tabernarien eta
beste batzuen ekimenez eki-
taldiak ere antolatu zituzten.

Eskoriatza Kirol Elkarte-
ko areto futboleko jokalaria
Aratz Kortazarrek atzo bota
zuen txupinazoa, eta herria
jaietan murgilduta dago. Pilo-
ta txapelketak, salbea, erre-
kortadore eskola eta danbo-
rrada egin zituzten atzo, bes-
teak beste.

Eguenera arte mota asko-
tako ekitaldiak eta parranda
izango dira. > 13



KALE GIROA Txupinazoa bota bezain laster, musika eskolakoak eta txistulariak (argazkian) kalejiran irten ziren.

JOSETXO ARANTZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Ekonomia > 06
Auzoak > 07
Elkarrizketa > 08
Iritzia > 08
Herriak > 11-20
Kirola > 21-28
Kultura > 29-32
Sailkatuak > 34-35
Telebista-Irratia > 37
Berri-zakua > 38-39
Azkena > 40

PILOTA > ETB KANTXA

Mendizabal, Elgetako finalera

Antzuolako Aitor
Mendizabalek
Ricoren kontra
jokatuko du ETB
Kantxako finala > 22

ARKEOLOGIA > KOBAK

Leze Txikiko indusketak berrartuta

Gaur, astelehena,
heldu da Arrasatera
arkeologia taldea
ikerketekin
jarraitzeko > 14


Iritsi dira ekaineko opariak! Badago zuretzat?


Zoaz 7. orrialdera





75 dendatik eta 200 produktutik gora.
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etxetik bertatik eskura.

 **MERKATUA.net** Debagoieneko denda



KONTSUMOA > UDAKO MERKEALDIK

Beherapenak etzi hasten badira ere, deskontuak nonahi gurean

UZTAILAK 1 Udako merkealdiei hasiera ofiziala emango diete eguaztenean; dena den, saltoki askok asteak daramatzate promozioak eskaintzen

KRISIA EDO PRESIOA Saltzaile batzuek krisiari egozten dizkiote deskontu horiek; beste batzuek ondokoek jarri dituztela eta presionatuta daudela diote

AP-1 AUTOBIDEA Joan den hilabetean AP-1 autobidea osorik zabaldu zutenetik, bailarako dendetan aparteko ezer ez dutela igarri ere jakinarazi digute

MIRIAN BITERI > BERGARA

Eguaztenean, uztailak 1, udako beherapenak hasiko dira gurean ofizialki. Dena den, Debagoieneko saltoki askotan asteak daramatzate deskontu bereziak eskaintzen. Eskaintza horiek %20 eta %30 artekoak dira.

Deskontuak dituzten denden artean, Bergarako Subijai denda dago. Umeendako arropako saltoki horretako arduradun Mercedes Urdanozek jakinarazi digu ekainaren erdialdean jarri zituela promozioak; haurtxoen arropa %20ko deskontuarekin eta gainontzeko umeena, berriz, %30ekoarekin. Uztailaren 1etik aurrera kopuru horiek handituko direla ere iragarri digu.

SALMENTAK BEHERA

Azpimarratu du, krisi ekonomiko delata eta, aurtengo udaberrian genero gutxi saldu dela eta horri irtenbidea eman behar zaiola: "Krisiak eragin handia du; egoera ekonomikoa bestelakoa izango balitz, beherapenak ez lirake aurreratuko". Horren harira, gaineratu du horrelako promozioak oso eraginkorrak direla: "Denboraldi hasieratik denda dagoen generoa da eta deskontua baldin badu, jendeak erosten du. Beherapenei begira, ez du arroparik ekartzen; denda sei hilabete daramatzaten produktuak dira".

Oñatiko Miren Barrena taila handiko arropa dendako ardura-duna ere bat dator Urdanozekin,



Bergarako Zubijai umeendako arropa denda bi aste daramatzate %20 eta %30 arteko deskontuak eskaintzen.

MIRIAN BITERI

AHOLKUAK

> Produktuek kalitate eta etiketaren gaineko arau guztiak bete behar dituzte; eta hortaz, ezin dute akatsik izan. Hondatuta egonez gero edo beste edozein akatsik izanez gero, saltzaileak derrigorrez aldatu behar ditu.

> Produktuetan argi eta garbi azaldu behar dira lehenengo prezioak eta merkealdikoak. Dena den, beti ez dira derrigorrez bi prezioak jarri behar. Esaterako, produktuak ehuneko finko bat merketzen badira, nahikoa da ehuneko azaltzea.

> Kreditu-txartelarekin ordaintzeagatik ez dugu inongo errekargurik izan behar.

> Ez ahaztu faktura edo ticketa eskatzea, erreklamazioa egiteko beharrezkoa da-eta.

salmentek behera egin dutela esatean. Miren Barrenaren arabera, "udaberria oso gaizki joan da eta Corpus jaietatik gaur arte ere asko jaitsi dira. Krisian gaude eta jendeak merkealdiak iritsi arte itxaroten du. Beste urte batzuetan eguraldiaren aitzakia izan dugu, baina aurten, ez".

PRESIOA

Dena den, Barrenak aitortu digu deskontuak ez dituela jarri krisia dela-eta. Horrekin bat dator Aretxabaletako Belar Meta gazteen arropako arduradun Idoia Elexpurrekin. Bien kasuan, krisiagatik baino, "presioagatik" jarri dituzte uztailaren 1a baino lehenago promozioak. Elexpurren esanetan, "%20 jarri dugu, aldameneko herrietan jarrita dutelako. Horrelakorik ez baduzu jartzen, txarto geratzen zara. Gure kasuan, ezin dugu esan salmentak txarto joan direnik. Denda berria da eta, oraingoz, pozik daude". Gaineratu du eguaztenean arropa guztia prezio erdian egongo dela.

Barrena ere iritzi berekoa da. Erakuslehoan eskaintzen berri

ematen ez badu ere, eroatera animatzen diren bezeroei deskontua egiten dizkiela aipatu digu: "Jendeak eskatzen digu eta gu deskontua egitera derrigorritu gaude, bestela ez dago ezer saltzerik. Zerbait probatzen dute eta deskonturik ez badiezu eskaintzen, beherapenak iritsi arte itxarongo dutela esaten dizute". Horrez gain, gogoratu du denda handiek ere oso azkar jartzen dituztela promozio-

ak eta horrekin lehiatzea oso zaila dela.

AP-1 AUTOBIDEA

AP-1 autobidearen irekieraz ere berba egin digute bailarako saltzaileek. Hala, baieztatu digute ez dutela ezer igarri eta salmentetan ez duela aparteko eraginik izan. Barrenak dio aspalditik igarri duela herrian oñatiarrak kanpoan erosteko ohitura dutela.

Elexpuruk, aldiz, aipatu du Aretxabaletan gero eta jende gehiago dabilela kalean. Hori kontuan hartuta, herrietako saltokiek eskaintzen duten "gertutasuna eta erosotasuna" nabarmendu gura du: "Eguna kanpoan pasatzea garesti irteten da; erosketei, erregaia eta bazkaria gehitu behar zaie. Arropa etxean probatzeko aukera eskaintzen dieguk".

DATUA

98
EURO

Horixe da euskal herritar bakoitzak udako merkealdian gastatuko duen kopurua. Joan den urtean baino %4 gutxiago, hain zuzen. Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Federazio Independentek, maiatzean zehar, Espainiako 3.000 herritarren artean egindako azterketatik aterata dago kopuru hori.

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA IX. Saiakera saria


antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren Industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 326535
soltxate@pamiela.com
Arauk: www.pamiela.com



2009

Carlos Lista > Zuzendari zientifikoa

"Lege Soziologia Institutua da irakaskuntza eta ikerketa gune"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Carlos Lista Nazioarteko Lege Soziologia Institutuko zuzendari zientifikoa da. Erakundeak 20 urte bete ditu eta urteurrena ospatuko dute uztailan egingo duten kongresuan. Askotariko gaiak landuko dituzte eta mundu osoko adituek parte hartuko dute. Listak uztailan utziko du kargua eta Argentinara itzuliko da. Harekin egin dugu berba.

Zeintzuk dira Nazioarteko Lege Soziologia Institutuak dituen bete behar nagusienak?

Duela 20 urte sortu zutenean bi helburu nagusi zituen; alegia, irakaskuntzarako eta ikerketarako gune izatea. Beti ere, soziologia juridikoaren alorrean.

Irakaskuntza urtean zehar antolatzen ditugun masterren bidez garatzen dugu. Ikerketa lantzeko, tailerrak eta liburutegia erabiltzen ditugu. Urtero bisitari asko etortzen da gure liburategira ikerketa lanak egitera.

Bestalde, egindako ikerketak zabaltzeko argitalpenak egiten ditugu: batzuk ingelesez eta beste batzuk espainolez.


Nazioarteko Lege Soziologia Institutua sortu zuten, soziologia juridikoaren gaineko hausnarketak egiteko gune bat izateko.

20 urte bete dira, baina zein da orain arte egindako lanaren balorazioa?

Nik uste dut balorazioa oso positiboa dela. Duela 20 urte erakundeak sortu zutenean jarritako helburuak oso gaineratik bete dira. Kontuan hartu behar dugu urte horietan guztietan gauzak asko aldatu direla gizartean, bai ekonomian eta baita zuzenbidean ere. Baina horren gaineratik lan egiten jarraitzen dugu.

Uztailaren 7tik 10era egingo duzue 20. urteurrena ospatzeko kongresua. Soziologia juridikoaren 20. urteurrenari *Komplexutasuna, gatazkak, justizia izena jarri diozue. Zergatik aukera duzu lelo hori?*

Gai orokorra aukeratu nahi genuen, ahalik eta arlo gehien



Carlos Lista Unibertsitateko klaustrorik.

GOIENKARIA

"Erakundeak sortu zuten soziologia juridikoaren gaineko hausnarketa egiteko gunea izateko"

"20 urteotan, hasieran planteatu ziren helburu guztiak oso gaineratik bete ditugu"

ukitzeko. Horregatik konplexutasuna, gatazkak eta justizia aukeratu genituen. Gainera, eskutik doazen kontzeptuak dira. Justiziaren barruan egoera konplexuak daude, eta konponketa zaila duten gatazkak ere bai.

Bestalde, ez genuen ahaztu nahi Nazioarteko Lege Soziologia Institutuak 20 urte bete dituela, eta leloaren bukaeran erreferentzia hori egin nahi izan dugu.

"Udako kongresuak duen ezaugarri nagusia da askotariko gaiak batu ditugula egitarauan"

"Hemengo lanak bukatuta, Cordobara (Argentina) itzuliko naiz eskolak ematera"

Kongresuan parte hartuko duten hizlarien zerrenda oso luzea da, eta askotariko gaiak landuko dituzte. Bat edo beste azpimarratu zenuke?

Egia esan, ez nintzateke bakarrez geratuko. Gure ustez, udako kongresuak duen ezaugarri nagusia da askotariko gaiak bildu ditugula egitarauan. Hor-taz, egitarau konplexua egin dugu. Mundu osoko adituek eto-

rriko dira, askotariko gaiei buruzko hausnarketak egiteko. Besteak beste, Nazioarteko Lege Soziologia Institutuek Hego Amerikan duten eragina, migrazioaren garrantzia Europar Batasunean, eta giza eskubideen politikak landuko dituzte.

Irailean beteko dira bi urte zuzendari zientifikoa kargua hartu zenuenetik. Gustura zaudete egindako lanarekin?

Egia esan, bai. Zuzendari zientifikoa lanak egingo ditut uztail bukaera arte. Nire ordezkia etorriko da irailean, eta bere bete beharren nondik norakoak azalduko dizkiot.

Oso gustura egon naiz Oñatin, herritarrekin eta Lege Soziologia Institutuan lan egiten duten pertsonekin.

Hemengo lanak bukatuta, Cordobara (Argentina) itzuliko naiz, hango unibertsitatean eskolak ematera.

ARRASATE

Presoen argazkiak kendu ditu Udalak

O.E. > ARRASATE

Arrasateko Udalak presoen argazkiak kendu ditu herriko alde zaharretik. Ertzaintzak 24 orduko epea eman zion Arrasateko Udalarari egunearan, argazkiak kaletik kentzeko. Horrela, egubakoitz goizean kendu zituen aipatutako argazkiak udalerriko kaleak garbitzen dituen enpresak, Udalaren aginduz. Ino Galparsoro alkateak esan du terrorismo delituengatik prozesatuak edo kondenatuak daudenen alde zaharreko argazkiak kendu behar zirela, eta Udalak ulertzen duela agindua bete dutela. Barne sailak zapatuan bidali zuen oharrak dio egubakoitzean Ertzaintzako kideek egiaztatu zutela argazkiak kaletatik kentzea.

Horrelako aginduak beste Udaletara ere bidaliko dituztela ere gaineratu du Barne Sailaren oharrak, presoen argazkiak daudela ziurtatzen duten herrietako Udaletara, hain zuzen ere.

> ENPRESAK

Kudeaketa hobetzeko programa, ibarreko enpresendako

Debagoieneko Mankomunitateak eta Euskalitek kudeaketa metodologiak ezartzeko programa jarriko dute martxan. Eskualdeko industria eta industriadunaren zerbitzuen sektoreko enpresa txiki eta ertainei zuzenduta dago programa, eta helburu nagusia enpresen kudeaketa hobetzen laguntzea da. Lehenengo aurre-diagnostiko bat egingo dute hobetzeko arloak antzemateko; eta ondoren, horri erantzuna emateko programa jarriko dute martxan. Irailean hasiko dute egitasmo hori, baina izena uztailaren 24a aurretik eman behar da.

Goienako zerbitzu orokorrak, Aretxabaletara

GOIENAKO ADMINISTRAZIO ETA PUBLIZITATE SAILEN BEHIN-BEHINEKO BULEGO ALDAKETA

Aurrerantzean, Arrasateko Saiolango eraikinean beharrez,
Aretxabaletako E05 Basabe Poligonoan egongo dira sail horiek.

Hala ere, Arrasaten, Otalora Lizentziaduna 31n dagoen egoitzan, arreta zerbitzua eskeintzen jarraituko dugu.

Telefono zenbakia orain arteko bera izango da: 943 25 05 05.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak





Egubakoitzean hasi ziren aldagela zaharrak botatzen; argazkian, berrien ezponda eta plataforma agertzen dira. IKER BARANDIARAN

ZERBITZUAK > KIROL AZPIEGITURAK

Agorrosingo aldaleku berriaren oinarria ipintzen hasi dira

Egubakoitzean hasi ziren aldaleku zaharra botatzen, eta berria irailerako bukatuta egon dadin nahi du Bergarako Udalak

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Dagoeneko ikusten da Agorrosin eta Ipintza futbol zelaietako aldagela eta gainerako ekipamendu osagarri berriaren oinarria: aldagelen ezponda edo taluda eta plataforma. Udalak nahi du ekipamendua gertu egon dadin irailerako; lanak hasita daude. Hala,

udako atsedena aldi aprobetxatuko dute, datorren kirol denboraldia hasten denerako dena gertu izan dadin.

Egubakoitzean ekin zioten hondeatzeko makinek aldagela zaharrak botatzeari, eta zapa-tuan ere lanean jardun zuten. Oraingo astean, materialak banandu egingo dituzte: hormigoia, adreiluak... eta dena garbitu egingo dute.

220 METRO KOADROKOA

Udaleko Kirol teknikari Unai Asurmendik eman dizkigu ekipamendu berriaren gaineko argibideak: "Taldeendako sei aldagela, epaileendako bi, bulego bat, bi biltegi eta bi komun izango ditu

ekipamenduak. Bi altueratan eraikiko dute, eta denetara 220 metro koadro inguruko hedadura hartuko du".

Asurmendik gaineratu duenez, ekipamendu berriaren abantailak izango da balioko duela Agorrosingo futbol zelairako zein Ipintzako belar artifizialeko zelairako.

AGORROSIN ETA IPINTZARAKO

Ekipamendu berria ez dago lehengoaren lekuan, baizik eta estadio barruan. Horrez gain, Agorrosingo futbol zelaiako atletismo pistaren ondoan zanga bat egiten dabilta aurrerantzean ur zikinak-eta zuzenean araztegitara eramanez ahal izateko.

etxeko leihotik



Usoa Agirre > 'uagirre@goiena.com'

Sorpresaz betetako alardea herriko jaietan

San Juanekin batera estreinatu ditugu uda festaz festa hasteko maratonia. Izan ere, udarekin hasi dira han eta hemen festa eta ospakizunak. Antzuolan uztaileko hirugarren aste bukaeran ospatuko ditugu herriko jaiak, baina aurretik ere izaten da zer ospatu gure herrian: San Juan, San Pedro eta San Martzial. Eta lasterketa bukatzeko, santurik gabeko jaiak, herriko jaiak moduan ezagutzen ditugunak. Edo kanpora joanda, *Mairuaren jaiak* ere esaten diotenak.

Aurten, agian, deitu ahal izango diegu *Mairuaren jaiak* herriko festei. Herritar talde bat aritu da azken hilabeteotan Mairuaren alardea biziberritzeko lanean. Entzun dudanez, aldaketa asko egongo dira aurtengoan eta sorpresaz beteta egongo da aurtengo alardea. Aste honetan hasiko ditugu entseguak eta sorpresa horiek nolakoak izango diren jakiteko irrikaz nago.

Urtero berdina dela-eta, alardea ikustera hurbiltzen ez direnek aukera paregabea izango dute aurtengo plazara gerturatzen. Eta nahi izanez gero, baita parte hartzeko ere. Polita litzateke herritar guztiek parte hartzea, bai alardean bertan, zein ikustera gerturatuz. Baina ezin denez inor derrigortu ezer egitera, gonbidapena egitea besterik ez zaigu geratzen. Beraz, badakizue, anima zaitzete aurtengo alardean parte hartzera.

"Herritar talde bat aritu da alardea biziberritzeko lanean"

> Tradizionala eta Mixtoa

Irun eta Hondarribiko alarde tradizional eta mixtoen arteko eztabaida etorri zait burura. Bihar, martitzena, izango d(ir)a Irunen alardea(k). Seguru aurten ere irudi lotsagarriak ikusiko ditugula.

> Harrotasun eguna

Atzo, ekainak 28, mundu osoan ospatu zen Harrotasun eguna. Aurten 40 urte bete dira New Yorkeko Stonewall tabernako istiluak gertatu zirenetik. Urteak pasa dira, baina oraindik badago zer aldarrikatu.



GOIENKARIA

Neurozientzia eta gastronomia batu zituen Basque Culinary Center-ek

Mondragon Unibertsitatearen eta hainbat euskal sukaldari ezagunek sortutako Basque Culinary Center Fundazioak parte hartu du Donostian egin dituzten *Brain in Motion* (garuna mugimenduan) izeneko neurozientzia jardunaldietan. Andoni Luis Aduriz, Pedro Subijana eta Eneko Atxa sukaldariek sormena, gastronomia eta emozioen arteko erlazioa jorratu zuten, Antonio Damasio eta Ryuta Kawasuma bezalako neurozientifikoekin. Ekitaldia egubakoitzean izan zen. Argazkian, fundazioko kide batzuk.

> EKONOMIA

Natrak %6 arte igo ditzake bere salmentak fusioaren ondoren

Natra elikadura enpresak aurreikusten du bere salmentak urtero %4 eta %6 artean igo direla Suitzako Barry Callebaut enpresarekin bat egiten duenean. Datozen hiru urteotarako aurreikuspen hori egin du Valentzian oinarritutako enpresak, Oñatin txokolate lanategia duenak. Barry Callebaut-eko Stollwerk txokolate dabisioa Natran integratuko da.

Fusioaren ondorioz, sortzen diren negozioen salmenta bateratuak 850 milioikoak izan daitezkeela iragarri du Natrak.

Fusioa oso aurreratuta dago eta irailan bukatuko dela aurreikusten dute enpresok.

> EKONOMIA

Txinan negozioak egiten laguntzeko jardunaldia

Debagoieneko Mankomunitateak, Gipuzkoako Txinatarren Institutuaren laguntzarekin, *Nola egin negozioak Txinan* izeneko jardunaldia antolatu du uztailearen 9rako.

Ekimena Txinako merkatuaren antolaketa ezagutu gura duten profesional eta enpresa txiki edo ertainei; eta baita nazioartean lan egin gura duten enpresa txiki eta ertainei zuzenduta dago.

Hainbat gai landuko dituzte: Txinak dituen aukera eta mehatxuak, Txinako enpresen perfila, hornitzaile eta bezeroen bilaketa, logistika eta garraioak eta beste.

INTERNET > ATARIA

Autonomoei ekonomia-kudeaketa samurtzeko, 'Autonomoak.net' jaio da

Autonomoak.net atari berria Euskalkidetza egin du, Bilan.net atariaren sortzaileak.

GOIENKARIA

Elkarteendako eta enpresa txikiendako ere lagungarri izan daiteke 'Autonomoak.net'

Euskarazko eta doako tresna da, eta ez da beharrezkoa kontabilitateaz ezertxo jakitea

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Autonomo edo antzeko funtzionamendua duten enpresa txikiek –ondasun erkidegoak, sozietate zibilak...– zein elkarteek euskarazko tresna berri bat dute Interneten: *Autonomoak.net* webgunea. Euskalkidetza kooperatibak egin du, arlo sozio-ekonomikoan euskara normalizatzeko proiektuak sustatzen dituena.

Autonomoak.net-en bidez, kudeaketa ekonomikoa samur egin daiteke: diru sarrerak, gastuak eta diruzaintza egoera. Menuak lau atal ditu: datuak –norberarenak, bezeroarenak, hornitzailearenak eta produktuenak; datuak behin sartzen dira, gero fakturak eta gastuak apuntatzeko–; diru-sarrerak –aurrekontuak, albaranak, fakturak eta zerrendak kudeatzeko–; gastuak –BEZdunak zein BEZ bakoak– eta diruzaintza.

Euskalkidetza arduradunek abantaila hauek azpimarratzen dituzte: "Lehenengo abantaila erraztasuna da; menuak lau atal ditu, eta bakoitzean aritzea erraz egingen da. Bigarren aban-

taila erabiltzailearen eta gestoriaren arteko zubi lana da: biek pasahitza edukita, gestoriakoa edozein momentutan sar daiteke; ez da paperak batetik bestera eramaten ibili behar. Eta hirugarren abantaila doakotasuna da". Aplikazioa bi laguntza-iturri bidez garatu dute.

Horrez gain, "kontabilitateaz gutxi edo ezertxo ez dakitenendako egin da, sarrerak eta gastuak erraz kudeatzen direlako".

'BILAN.NET'

Euskalkidetza sortzen duen bigarren *on-line* tresna da: aurretik, *Bilan.net* sortu zuten, eta arrakastaz, gainera. Lana eskaintzeko eta topatzeko euskarazko ataria da, eta Debagoieneko lan eskaintzak ere agertzen dira. Gainera, Arrasateko Udalak lagundu zion proiektu honi hasierako pausoetan. Euskalkidetza araberako baina gehiago dago *Bilan.net*-en izena emanda. Hortaz, bi tresna horiekin, Euskalkidetza betetzen ari da hasieran markatutako helburuetako bat.

KOOPERATIBAK > EROSKI TALDEA

Eroskiko bazkideek onartu dute dibidenduak kobratu ordez, haiek kapitalizatzea

Krisiari aurre egiteko neurri horrek Eroskiko 8.000 bazkideei eragingo die; ez bazkide ez diren 47.000 langileei

GOIENKARIA > ARRASATE

Eroskiko bazkideek onartu egin dute dibidendurik ez kobratzea, eta diru hori kapitalizatzea, hau da, Eroskiren baliaideak indartzeko erabiltzea; kaudimena hobetzea, hain zuzen. Halaxe adostu zuten joan den aste bukeran kooperatibak egin zuen urteko batzar orokorrean, Erorion. Neurri horrek 8.000 bazkideri baino gehiagori eragingo die, baina ez bazkide ez diren beste 47.000 langileri.

Batzar orokorrean 500 ordezkari izan ziren, langile-jabeak eta kontsumitzaile-bazkideak ordezkaturik.

SOLDATAK IZOZTEA

Krisi ekonomiko orokorrak kontsumoa jaistea eragin du arlo guztietan, eta Eroski Taldearen doitasun edo austeritate neurrien barruan ikus daiteke onartu berri den hori. Duela hilabete batzuk, bazkideen soldatak izoztea onartu zuten.

GASTUA KONTROLATU

Batzar orokor horretan ere, 2008ko ekitaldiko balantzea aurkeztu zuen taldeak –97 milioiko galerak izan zituen kontu kontsolidatueta–, eta 2009rako lan-ildoak aurkeztu ziren: komunikabide batzuen arabera, gastua kontrolatu, prezioak hobetu eta zorrak kendu.



GOIENKARIA

Euskadiko Kutzako presidentea eta Lopez, krisiaren aurka batzartuta

Euskadiko Kutzako presidentea, Txomin Gartzia, Patxi Lopez lehendakariarekin batzartu zen joan den astelehenean, lehendakariak Euskal Autonomia Erkidegoko finantza-entitateetako arduradunekin egiten dabilen batzar sortaren barruan. Batzar horietan, lehendakaria eta ekonomiako ordezkariak krisi orokorrari aurre egiteko neurriak ikertzen dituzte. Gartziaz gain, Vital Kutzako, BBK-ko eta Kutzako arduradunekin batzartu zen lehendakaria joan den astean.

auzorik auzo

OSINTXU > Bergaratik lau kilometrora dago Osintxu auzoa. Osintxuarrek, auzoa baino, herria dela diote. Hainbat zerbitzu dituzte auzoan; tartean, liburutegia, ludoteka, zinea, autobusak... Dituzten zerbitzuak onak direla diote.



Luis Mari Alberdi Osintxuko plazan.

A.EZKIBEL

Luis Mari Alberdi > Osintxuko auzo-alkatea

"Azttertzen gabilta herria nolakoa izatea gustatuko litzaigukeen urte batzuetara"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Luis Mari Alberdi Osintxuko auzo-alkatea da azkeneko urteotan. Eguaztenor batzen da auzotar talde bat euren gora-beherez berba egiteko. Bestalde, arazoren bat dutenean herri batzarra egiten dutela dio Alberdik.

Gasa jartzea izan da zuen nahi bat, eta badirudi lortuko duzuela.

Dirudienez, gasa izango dugu. Uste dut konfirmatuta dagoela gasa ekarriko dutela. Gaur egun, Mekolalderaino dago eta ziurta-tu dute Osintxura ekarriko dutela. Bestalde, ur saneamendua eginda dago. Orain, helburua izango litzateke herriaren antolaketa egitea.

Gaur egun auzoak duen behar nagusia da herri antolaketa?

Etxe zahar batzuk daude, plaza ondoan eta baita plazatik zubi- bitartean ere. Horiek bota eta berriak egitea gura dugu, baina muga handiak ditugu; batez ere errekek jartzen ditu mugak. Saihesbide aldera egitea izango litzateke gure aukera.

Lan taldean hori azttertzen gabilta, herria nolakoa izatea gustatuko litzaigukeen hemendik urte batzuetara. Beste eskaera batzuk ere baditugu: elizatik behera pasio bat egitea eta aparkalekuak ere jasoko dituen, adibidez.

Osintxuko biztanleriak gora egin du, batez ere inmigrazio-agatik.

465 lagun bizi gara Osintxun. Inmigrazioa asko etorri da azken urteotan. Azkeneko zortzi urteotan etorri dira kanpotar gehienak; orain, %12 gutxi gora behera izango dira atzerritarrak. Gehienak marokoarrak dira, eta oso harreman ona dugu. Neska-mutikoek euskaraz primeran egiten dute, adibidez.

JAIK

"Lehen txala hiltzen zen jaietarako, orain haragia erosten da"

Lehen, *Kofraixetan*, larunbat gauzez salda eskaintzen zuten kofradeek. Hori oinarri hartuta *Kofraixak* jaiak ospatzen dituzte Osintxun abuztuan. "Lehen txala hiltzen zen, orain ez da hiltzen; behar den haragia erosi da eta egosi egiten da", dio Alberdik. Hiru kaletar eta baserritar batek egiten dute lan hori. Goizeko seiretan salda banatzen hasten dira eta, gero, haragi egosi pintxoak ematen dituzte.

Hori oinarri hartuta, jaiak egiten dituzte. "Egubakoitzean Plazentziara joaten gara moztortuta bizikletan, gero jolasak, erromeria, dantza...", egiten dugu.

Auzoko gaztetxoentzat baduzue eskolarik?

2-6 urte bitarteko zikloa ematen da Osintxuko eskolan. Eskola publikoa da. Gura duguna da 2-6 urte bitarteko zerbitzu integrala ematea; hau da, eskola eta haurtzaindegia izatea.

Garai batean egon zen lanbide konkreturik auzoan?

Garai batean ehungintza izan zen auzoko lanbidea. 1910ean sortu zuten Artech Hermanos lantegia. Auzo guztia hartzen zuen lantegiak; orain 40 urte, ostera, Soraluze lantegia hasi zen indartzen.

Auzoak eskaintzen duen aukeretakoa bat erroten ibilbidea da. Gune hori konpondu gura duzue?

Osintxuko kaletik irten, ezkerreko zubia zeharkatu, eta Deba ibaiarekin bat egiten duen Muskiritxu errekan gora dago erroten ibilbidea. Lehen hiru errota zeuden gune horretan. Gura duguna da gune horri bultzada ematea. Errekan putzu ederrak daude -lehen amuarrainetan aberatsa zen tokia da-. Bergara eta Soraluze artean dagoen bideari gehitzen badiogu erroten ibilbidea, pasio polita izan daitekeela uste dugu.

Bestalde, Irukurutzeta mendira joateko aukera dago, pasio polita dena.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Ekaineko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 40 euro

MUNDUMIRA PACK-A 

Jose Antonio Crespo Fernandez
(Bergara)

UMEENTZAKO PUZZLEA 

Juan Arriolabengoa Lasaga
(Aramaio)

KAMISETA 

Floren Arana Barandiaran
(Arrasate)

PENDRIVE 

Maite Beitia Abarrategi
(Aramaio)

SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA



BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L. Abuinen eskutik

J.L. ABUIN / PUY BIDEBURU
25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen

Mendia jauregia
639 02 47 14

S. Josepe, 10
943 77 01 33

Kiroldegia
943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, hailer zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Eunate Elio (Idiazabal) Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko irakaslea da. Giza Baliabideak eta Kooperatibismoa gaiak ematen ditu ETEOn. Berdintasun Plana garatzen dihardute, eta Berdintasun Taldeko jarduneko koordinatzailea da. Ekintza Plana hiru urtetan zehar garatuko dute: 2009tik 2011ra. Planaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

Eunate Elio > ETEOko irakaslea

"Berdintasunean hezi behar ditugu enpresaburu izango diren ikasleak"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Diagnosia egin ondoren, ekintza plana diseinatu eta arlo bakoitzarentako neurriak ezartzen hasiko dira Enpresa Zientzien Fakultatean. Eunate Elio irakaslea Berdintasun Taldeko jarduneko koordinatzailea da.

Enpresa Zientzien Fakultatean Berdintasun Plana garatzen diharduzue. Zergatik?

Konturatu ginen berdintasunaren alde egiteko gogoia zuten pertsonak zeudela gure fakultatean. Lanean hasi ginen. Alde batetik, barruko hausnarketa egiteko, ETEOk hartu-eman estua duelako enpresa munduarekin. Beste alde batetik, ETEOko ikasleak berdintasunean hezte oso inportantea dela ikusi genuen, ematen ditugun ikasketak kontutan hartuta eurek kudeatuko dituzte-eta enpresak eta kooperatibak etorkizunean.

Zertan datza halako plan batek?

Hiru fase ditu: lehena, diagnosia egitea da. Horretarako aldagai kuantitatiboak eta kualitatiboak aztertu ditugu. Kuantitatiboak dira, besteak beste, zenbat emakume eta gizon gauden zehaztu; soldatetan ze ezberdintasun dauden aztertu; eta familiaren eta lanaren arteko kontziliazioa nola egiten dugun ikusi.

Kualitatiboen kasuan, gestio prozesuak; prestakuntza; eta promozioak aztertu ditugu, besteak beste. Hau da, langileok eta ikasleek berdintasuna nola ulertzen dugun aztertu dugu.

Bigarren fasea, emaitzak aztertu eta hobetu beharreko arloak zehazteko ekintza plana egitea da. Azkenik, prozesuaren hirugarren fasean, berdintasunerako neurriak ezarriko ditugu.

Zein puntutan duzue Berdintasun Plana?

2008ko amaieran, diagnosia egin eta ekintza plana zehaztu genuen. Diagnostikoan zehaztu genuen hobetu beharreko lau arlo ditugula; hain zuzen ere, berdintasunari buruzko sentsibilizazioa eta prestakuntza; bizitza pertsonala, familiara eta laneko bateratzea; emakumea kudeaketa organoetan egotea indartzea; eta hizkuntza ez-sexista erabiltzea.

Diagnosia egin ondoren, lana eten genuen, baina orain berriro hasi gara ekintza plana ezartzeko gogoz. Ekintza plana hiru



Eunate Elio, Enpresa Zientzien Fakultatearen kanpoaldean.

MIREIA BIKUÑA

urtetan garatuko dugu; hain zuzen ere, 2009an, 2010ean eta 2011n.

Zeintzuk dira ezarri beharreko ekintza horiek?

2009-2011 Ekintza Plana diseinatu dugu eta urtero ekintza batzuk ezarriko ditugu. Hasiko gara errazagoak direnekin.

Dena den, ezarri beharreko ekintzen artean nabarmentzekoak dira: langileok eta ikasleak genero berdintasunean prestatzea; emakumeek kooperatibetan duten parte hartzea ikertzea; eta hizkuntza ez-sexistaren erabilera sustatzea, gelan eta ikas-materiallean.

Proiektua abian jartzeko Berdintasun Taldea osatu zenuten.

Diagnosia egiteko bederatzi laguneko taldea osatu genuen, eta Berdintasun Taldea eratu genuen. Ni izan nintzen taldeko koordinatzaile, eta bederatzi kideon artean gainbegiratu genuen proiektua. Orain, baina,

LAGUNTZA

"Emakundek dirulaguntza eman zigun, eta bukatzen dugunean agiria emango digute"

PARTAIDEAK

"ETEoko langileen %50ak hartu dugu parte Berdintasun Planaren hasierako faseetan"

IKASLEAK

"Ikasleak eztabaida taldeko kide izan dira. Ekintza Planarekin hasten garenean azalduko diegu guztia"

talde berria osatu behar dugu ekintza plana ezartzeko lanekin hasteko. Hortaz, oraingoan, taldeko jarduneko koordinatzailea naiz.

Zenbat lagunek parte hartu duzue prozesuan?

ETEoko langileen %50ek hartu dugu parte. Guztira, 80 bat ikasle gara eta 40 bat ibili gara prozesuan. Parte-hartze handia izan da, eta taldeka banatu gara: batzuk berdintasun taldean egon dira eta beste batzuek eztabaida taldean parte hartu dute. Eta beste talde bat, aurkezpenetan egon da. Hortaz, langileon gehien-goak parte hartu dugu proiektuan, eta oso gustura gaude.

Halako plana egiten duzuen lehen unibertsitatea zarete EAEn.

Unibertsitate mailan lehenak gara. Dena den, ikastetxe batzuetan egin dute plana. Nafarroako Unibertsitateak ere egin du Berdintasun Plana.

Gure kasuan, faktore ezberdinek egin zuten bat plana abian jartzeko: alde batetik, Enpresa Zientzien Fakultateko langileok gai honekiko genuen sentsibilizazioa, eta beste alde batetik, Emakundek emandako dirulaguntza. Proiektua aurkeztu genien eta laguntza eman ziguten. Berdintasun Planarekin bukatzen dugunean, agiri bat emango digute, berdintasunaren laguntzaile garelako esaten duena. Egun 35 bat enpresa dira errekonozimendu hori dutenak.

Hemendik aurrera, kopurua handitu egingo da. 2007an legea aldatu zuten, eta haren arabera 250 langiletik gorako enpresa guztiak derrigorputa daude Berdintasun Plana egitera.

ETEoko ikasleek badute Berdintasun Planaren berririk?

Diagnosia egiteko sortu genuen eztabaida talde bateko partaide izan ziren. Ekintza planarekin hasten garenean azalduko diegu zertan datzan planak.

Kutxa Produktu Berdeen Lerroa

Onak ingurumenarentzat, onak zuretzat

Kutxan gogoko dugu ingurumena hobetearren lan egitea. Eta gogoko dugu zu ere iritzi eta asmo berekoa zarela jakitea. Horregatik, eskura jartzen dizugu **Produktu Berdeen Lerroa**. **Gordailu Iraunkorren** bidez garapen iraunkorarekin konprometiturik dauden hainbat enpresetan inbertitzeko eta **Kreditu Berdeekin** edozein proiekturi aurre egiteko aukera eskainiko dizun produktu-gama oparoa:

- Kreditutxa Berde Etxeko Eraberritze-lanak
- Hipoteka Berdea
- Kreditutxa Berde Automobila

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa

kale inkesta

Bazoaz udalekuetara udan? Apuntatu zara udako kirola eskaintzaren batera?



Julen Aldekoa
8 urte
Oñati

Gauegiz Arteagako Baratze baserri eskolara noa uztailean, 10 egunetarako. Orain arte Oñatiko udaleku irekietan ibili naiz. Handik natorrean, waterpolo, eskalada eta mini-tenisa egingo ditut.



Aritz Berasaluze
9 urte
Oñati

Aurten Lekeitiora noa, udalekuetara. Udako kirol kanpainan ere apuntatu naiz. Handik natorrean, pilotan ibiliko naiz. Urtean zehar futbol eskolan ibili naiz eta udarako, pilotan apuntatu naiz.



Leire Barrena
7 urte
Oñati

Enjoy English-era apuntatu naiz ni. Gelako lau apuntatu gara. Aurten goa lehendabiziko aldia da. Uztaileko goiz guztietan ingelesez berba egingo dugu. Arratsaldetan, mini-tenisean ibiliko naiz.



Miren Muñoz
13 urte
Oñati

Bermeora goaz gelako bi lagun gaur, udalekuetara. Zarautzera joan gura genuen, iaz ere Bermeon egon ginelako, baina ez zegoen tokirik. 15 egun egingo ditugu han eta handik bueltan, Usakora joango gara.

irakurlearen txokoa

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

BERGARA

> Labegarrietako kanpoko kirol eremua, zikina

Labegarrieta auzoko bizilagun batek dio azkenaldian oso zikina egoten dela kiroldegiko kanpoko aldean. "Litxarkerien poltsa pilo bat egoten dira lurrera botata, adibidez, jaso barik. Bai ziburuaren aldean baita ere saskibalo pistaren ondoan, bankuak dauzen zelaitxoan. Zakarrontziak badaude, askoz ez dute erabiltzeko ohiturarik, antza", dio bizilagunak. Plastikoak, poltsak, latak edo dena delakoa lurrera bota ordez zakarrontzira botatzeko eskaera ere egin du.

ARRASATE-ARETXABAETA

> Pozik, bi herrion arteko bide zaharra asfaltatu dutelako

Aretxabaletan bizi eta Arrasaten lana egiten duen lagun batek esan digu pozik dagoela bi herri horiek lotzen dituen errepide zaharra asfaltatu dutelako. "Zuloz beteta zegoen errepide hori, kamioi asko pasatzen dira eta zeharo hondatuta zegoen, arrisku-tsua izateraino. Kosta zaie konpontzea, baina oso ondo dago orain errepide hori. Alde ederra!", dio pozik.

BERGARA

> Tokia hartzeko seinaleak kendu dituzte San Martzialen

Bergarako emakume batek deitu du esateko kendu egin dituzte koadrilek San Martzial egunean bazkaltzeko hartuta zituzten tokiak markatzen zituzten seinaleak. "Zintak kendu dituzte, eta San Martzial egunean arazoak sortuko ditu horrek", dio.

usteak uste

Oihana Elortza

San Martzial begira

Domekan da San Martzial festa, bergarar askorendako urteko egunik onena, festarik gogokoena. Beste jaietan ez bezala, koadrilek ez dute aitzakiarik jartzen prestaketak aurretik egiteko: bazkaltzeko toki zintekin markatu, jateko orduan zenbat izango diren zenbatu, menua aukeratu, enkargatu, edana freskatzeko bidioiak lortu, ur botilak edo brick-ak urez bete eta izozkailuan sartu festa egunean edariak fresko mantentzeko, lagun bat izendatu ogia erosteko arduradun, mahaia alokatu, mahaia bueltatu... Zapatu goizean kenduta zeuden, koadrilek aurrez tokiak hartzeko jarritako zintak. Datoren domekan ikusi behar horrek zer zalaparta sortzen duen, baina argi dago Irungo San Martzialak besteko oihartzuna ez izan arren, haiek beste debozio badiotela bergarrek San Martzial, mozkoarren patrioari.

zorroztailea



Joxemari Muxika

Adinekoen ekarpen aukera

"65 urtetan erretiratzeko adina jarri zen 1920an. Hiltzear zeudela hartzen zuten. Gauzak aldatu dira. Aldaketak daude: giza baliabide-etako profesionalak hasi dira aztertzen zahartze aktiboa: jende nagusia nola mantendu ilusioarekin, gazteei erakusteko..."

Mikel Peruarena
Berria > 2009-06-23



Hiru ziklotan banatu daiteke pertsona baten gizarte jardura. Lehen zikloari ezagutzak jasotzeko aroa dei diezaioke, bigarren zikloari lanerako garaia; produktiorakoa eta erreproduziorakoa, eta hirugarren zikloari erretiro garaia, patxadan bizitzeko.

Aldagai horiei erreparatuta, azken 50 urteotako historian zehar aldaketa izugarria izan da. 1959. urtean lehen zikloaren iraupena jaiotzetik 12-16 urtera artekoa jo daiteke, lehen sektoreko lana zen gehiengoarena eta eraikuntza eta industriaren ere gazte hasten zen jendea lantokietan. Oso gutxi ziren ikasketekin jarraitzen zutenak. Gaur egun, ordea, 20-25 urte inguru izaten dituzte gazteek lantokietan hasterako.

Orain dela 50 urte lana egiteko zikloa 50 urte ingurukoa zen eta orain 40 urte ingurukoa da: lanean beranduago hasi eta lehenago uzten da. Lana erretiro urteak baino lehen uzten zutenek ezgaitasun handiren bat jasaten zuten, baina gaur egun asko eta asko 60 urte ingururekin osasun ederrarekin erretiratzeko dira.

Garai hartan hirugarren zikloan bizi izateko aukera inor gutxik izaten zuen. Izan ere, 1920an legea ezarri zenean hiltzear zeudela hartzen zuten erretiroa; eta geroxeago ere erretiratu orduko jendea gasatua egon ohi zen eta berehala hil ohi zen. Gaur egun, 80 urtetik gora asko pasatzen dira. Beraz, aldeak nabarmenak dira ziklo guztietan.

Ondorio nabarmenena hirugarren zikloaren multzoari dagokion pertsona kopurua asko ugaltu dela eta hazteko bilakaera daramala da, kalitateko bizi esperantza handitzen ari da-eta. Gizarteari egiten dioten ekarpena bizirautea bakarrik izan behar ote luke? Bilobak zaintzea beren familientzat eta bide batez gizartearentzat ekarpena bada ere, ez dut uste jende guzti horrek duen bizitzako eskarmentua, hainbeste urtetako ezagutza pilatua, galdu behar litzakeenik. Ez dut uste egokia denik kapitalismoaren ahotsek diotena, soldatapeko lanaren luzapena. Erantzuna bilatzeko bidean honakoa galdetu beharko genioke geure buruari: nola bideratu aberastasun hori jendartera?

"Hainbeste urtetan pilatutako eskarmentua ez da galdu behar"

"Beranduago hasten gara lanean eta azkarrago utzi"

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Iker Barandiaran Erredakzioa Mireia Bikuña, Oihana Elortza, Miren Arregi Oinarritzko diseinua Goio Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrahaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Oñatiaren Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaeta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaeta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale • Difusioa: 4.383 ale



ASTELEHENKO GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 14 Bergara > 16 Oñati > 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19
Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



> **ARRASATE**
Gaur, astelehena, berrartuko dituzte, udaro moduan, Leze Txikiko indusketak > 14



> **BERGARA**
Umeekin federazioak haur minbizidun gurasoen urteroko topaketa Altzazun egin du > 16



> **OÑATI**
296 neska-mutiko ibiliko dira udalekuetan eguaztenetik hasita hilabete bukaera arte > 18

ESKORIATZA > OMENALDIA

Felix Likiniano: ibarreko iraultzaile baten omenezko erakusketa ikusgai

ANARKISTA

Likiniano CNTko kide egin zen eta Frankismoaren kontra gogor aritu zen

EUSKAL SENA

ETaren sorrerarekin, euskal sena berriro piztu zitzaion Leintz ibarreko milizianoari

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak Felix Likiniano zenaren gaineko erakusketa prestatu du Ibarraundi museoan, gaur inauguratuko dena, 12:30ean. Ekitaldian Udaleko ordezkariak gain, Likinianoaren familiak eta Luis Mari Aberasturi idazleak esku hartuko dute.

Luis Mari Aberasturik anarkismoaren, Likinianoaren eta Casilda bikotekidearen gaineko hainbat liburu idatzi ditu; eta Likiniano bera ere ezagutu zuen.

ANARKISTA ETA IRAULTZAILEA

Aurten 100 urte bete dira Felix Likiniano Arrasaten jaio zela. Hala ere, familia hori Arrasaten, Eskoriatzan eta Donostialdean bizi izan zen. Gerora, lanarengatik, Madrilerara jo zuen eta han anarkismoa ezagutu zuen. CNT eta antzeko anarkista taldetan zeharo murgildu eta atxilotua izan zen behin baino gehiagotan. Halako baten, bikotekide Casilda ezagutu zuen.

Espainiako Gerran hainbat frontetan izan ziren Casilda eta biak borrokan, eta azkenean Frantziara alde egin behar izan zuten. Han, kontzentrazio esparruetan izan ziren; eta gerora Miarritz izan zuten bizileku.

ERREFUXIATUEN LAGUN HANDIA

Casilda eta biek ez zuten inoiz Francoren kontrako borroka alboratu eta ETako lehenengo errefuxiatuei babesa eta aholkuak eman zizkieten. Hala, Iparraldera jo behar izan zuten horietako askok eta askok hunkituta gogoratzen



Felix Likiniano Arrasaten jaio eta Eskoriatzan bizi izan zen txikitan. LIKINIANO FAMILIA



Felix, bigarrena ezkerretik hasita, gurasoekin eta anai-arrebeekin. LIKINIANO FAMILIA



Arrasaten omenaldia egin zieten Likiniano eta Casildari 1980ean. KEPA ORMAETXEA

dute Likiniano. Are gehiago, nahiz eta anarkista izan, Likiniano oso ondo hartu zituen errefuxiatu haiek eta haren euskal edo aberzaletasun sena neurri baten berpiztu egin zen.

Gainera, bitxikeri moduan, ETaren anagrama, sugea eta aizkora, Likiniano berak egindako taila bat da. Hark oparitu zien.

HAREN BIZITZA, PANELETAN

Hemen idatzitakoa eta askoz gehiago batu dute Ibarraundi museoan. Horretarako, hainbaten laguntza izan dute: Likiniano familia, Casilda Hernaezen familia, CNTko kide

batzuk eta Luis Mari Aberasturi idazlearena, besteak beste. Hala, Likiniano egindako artelanak (margolanak eta tailak), argazkiak eta beste aurki daitezke erakusketan. Horrez gain, gaurtik, astelehena, uda bukatu arte ikusgai egongo den erakusketan Likiniano eta Casildaren gaineko bizitza azaltzen dituzten zazpi panel erraldoi jarri dituzte: haren sorterrri Eskoriatza eta Arrasate, Donostian bizi izandakoa, Espainiako Gerra, erbestea, haren artelanak, eta bikote iraultzaile horren gainean idatzitako liburuak eta bestelako lanak, besteak beste.

Amaia Lainon > Likinianoaren biloba

"Felix borrokalaria hutsa zen eta etorkizuna ikusteko gai ere bazen"

I.B. > ESKORIATZA

Amaia Lainonek oso txikitan ezagutu zuen Felix aitona-osaba. Arrasto handia utzi zuen Lainonengan Leintz ibarreko iraultzaileak.

Zelan gogoratzen duzu Likiniano?

Nik 9 urte nituen bera hil zenean, baina oso gogoan daukat; niretzat aitona modukoa zen. Gure amona Kattalin, Felixen ahizpa zaharrena, gurekin bizi zen eta hamabostean behin etortzen zen bisitan. Felixek matriarkatuaren gainean asko hitz egiten zuten, eta benetan babesleku bat zeukan arrea.

Likiniano argi berezi bat zeukan; alai, umoretsua eta hiztuna zen oso. Likiniano gehienak halakoak dira. Nahiz eta borroka askotan ibili eta gorriak ikusi, gauza onak transmititzen zituen, gurean, behintzat.

Zerekin geldituko zinateke?

Bere naturaltasunarekin, izateko moduarekin; eta baita berak eta Casilda bikotekideak euren ideien alde borrokatzeko zuten jarrera eta sinismenarekin. Eta esango nuke etorkizuna ikusteko gai ere bazela. Berak iragarritakoak bete dira: komunikazioaren alorra, ordenagailuak...

Jendeak berataz zer gogoratzea gurako zenuke?



GOIENKARIA

Askok ezagutu dute ETako anagrama egin zuelako; eta egia da bera borrokalaria zela, baina berak borroka etsai bidegabekoari erantzun moduan ulertzen zuten, erreakzio moduan.

Horrez gain, euskalduna zen pentsamolde oso zabalarekin, eta euskaraz pentsatzen zuten; eta naturarekin eta jendearekin harreman oso berezia zeukan, gertukoa.

Zelan hartu duzue familiakoek erakusketa hau?

Guretzat oso pozgarria da; are eta gehiago, Likinianoaren sorterrria den Leintz ibarrean egin delako. Halako pertsona konprometitua izandakoa gogoratzea oso positiboa da.



Eñautek hartu zuen itsulapikoa zuhaitzaren puntatik. A. MURUAMENDIARAZ



Oinarin taldeko kideak dantzan.

JOSUNE ITURBE

ANTZUOLA > KALEBARRENEKO JAIK

Itsaso Garmendia eta Xabier Arantzeta, onenak sagar-dantzan

Aurten 70 lagun inguru elkartu dira gau-giro ederrean, urtero Kalebarrenen egiten duten herri afarian

OIHANA ELORTZA > ANTZUOLA
Egubakoitzean hasi eta domeka iluntzera arte iraun dute Antzuolako Kalebarreneko jaiak. Etxafuegoekin hasi zituzten, eta malabareen ikuskizun batekin esan diete agur jaiei antzuolarrek.

Aurten ere egin dute afaria kalean, eta itsulapikoa ere jarri dute zuhaitzaren puntan, abilenaren eskura. Eskegi aurretik, jendeari eske ibili ziren jai batzordekoak, eta diru kopuru horixe lortu zuen Eñautek, bera izan zen

eta trebeena txanponenez betetako eltzetxo hartzen.

Oinarin taldeko dantzariak ere esku hartu zuten, jakina, Kalebarreneko jaietan eta urteroko sagar-dantza ere egin zuten, ohitura errespetatuz.

GARMENDIA ETA ARANTZETA

Hain zuzen ere, Itsaso Garmendia eta Xabi Arantzeta izan ziren onenak sagar-dantzan. "Zapatu gauerdian hasi zen sagar-dantza, eta jende askok hartu zuen parte. Hura bukatu zenean, Biduri Sound-ek musika jartzen jarraitu zuen goizaldeko hirurak alde-arte. Temperatura aldetik ere sekulako gau-giroa egin zuen. Orokorrean esku-hartze handia izan dute jaiak eta eskerrak eman nahi dizkiegu herritar guztiei", azaldu du Maddi Elortzak, antolatzaile taldeko kideak. Jaietan saldutako boleto irabazlea 1.080 zenbakiduna da.

OÑATI > TORREAUZOKO JAIK

Erromeria eta guzti izan dute aurten

OIHANA ELORTZA > OÑATI
Oñatiko Torreauzoko San Pedro jaiak ospatu dituzte asteburuan. Krosa da, agian, ekitaldirik ezagunena, baina ez bakarra. Auzotarren meza, mus txapelketa eta herri-kirolak ere egin dituzte, adibidez. Zapatu arratsaldean, esaterako, mus

txapelketa egin zuten auzoko nagusiek. Umeek, bitartean, Madalena eta Torreauzoren arteko herri kirol lehiaketa antolatu zuten; eta Madalena-koek irabazi zuten. Erromerirako, Etxe Aundiko ezkontzan jo zuen taldea kontratatu zuten eta arrakasta izan zuen.



JOSETXO ARANTZABAL



Mus txapelketan dotore ibili ziren auzotarrak.

MIREN ARREGI

ARRASATE > GASTRONOMIA

Bakailaoa, mila osagarrirekin prestatuta

Bakailaoa osagarri nagusi moduan hartuta, mota askotako pintxoak prestatu zituzten Debagoieneko sukaldari profesionalak egubakoitzean Arrasaten, Mankomunitateak antolatutako gastronomia jardunaldian. Herriko plazan muntatu zuten sukaldea, eta herritarren aurrean prestatu zuten bakailaoa onddoekin edo saltsa berdean, besteak beste. Ez ziren batere txarrak egongo!



JOSETXO ARANTZABAL

ESKORIATZA > SAN PEDRO JAIAK

Areto futbolekoen txupinazoarekin jaiak hasi ziren atzo

Jaietako aurrekontua %35 txikitu behar izan dute, baina irudimenez adin guztietarako ekitaldiak antolatzen saiatu dira

Atzoko, domeka, ekitaldi ofizialek eman zioten hasiera aurtengo San Pedro jaiiei; eta eguaztenera arte iraungo dute

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Atzo, domeka, hasi ziren Eskoriatzako San Pedro jaiak, atzo izan zen-eta San Pedro bezpera eguna. Hala ere, eguenean eta zapatuan ere izan ziren mota askotako ekintzak.

Herenegun, zapatua, esaterako, Umeen VI. Kontzejupe Pilota Txapelketa jokatu zuten zazpi bikotek. Azkenean Aitzol Zubizarreta eta Iñaki Astiazaran izan ziren irabazleak.

Horren ostean, Lumagorri oilaskoaren dastatzea izan zen herriko plazan, sagardoarekin lagunduta. Aitzorrotz kultura elkarteko, Amuskako eta erretiratu elkarteko kideak ibili ziren lanean eta 400 bat errazio banatu zituzten.

Bukatzeko, gauean, tabernari antolatutako kontzertua izan zen herriko plazan: Laket trikiti taldea, Narrats rock taldea eta Carrocerias Betoño taldea aritu ziren. Azken horretan RIP taldeko Txerra dago eta mota askotako bertsoak egiten dituzte.

HARRERA OFIZIALA, KIROLARIEI

Atzo, domeka, berriz, jaiiei hasiera ofiziala egin zieten. Hala, 12:00etan, Poxpolo eta Mokolo pailazoen ikuskizuna izan zen Gorosarri plazan. Oso harrera ona izan zuten.

Horren ostean, 13:00etan, Eskoriatzako Kirol Elkarteko areto futbol taldeei harrera ofiziala egin zieten udaletxean, Oho-rezko Ligara eta Euskal Ligara igo direlako. Are gehiago, areto futbol taldeko Aratz Kortazarrek izan zuen txupinazoa botatzeko ardura.

Eta, bide batez, ekitaldi berean udalerriko balkoi eta leiho politenaren saria eman zioten Kontxi Zubizarretari. Zubizarre-



Eskoriatzako areto futbol taldekoak eta hainbat udal ordezkarri osoko bilkura aretoan.

JOSETXO ARANTZABAL



Kirol elkarteko Aratz Kortazarrek bota zuen txupinazoa.

JOSETXO ARANTZABAL



Poxpolo eta Mokolo pailazoak.

J.A



Alkatea harrera ofizialean.

J.A



Eskoriatzarrek ederto pasa zuten errekortadoreen eskolan.

JOSETXO ARANTZABAL

tak Aranburuzabala kalean daukan balkoia saritu zuen epaimahaiak.

Herriko plazan jende dezentegoen txupinazoa noiz botako zuten zain, eta behin jaiiei hasiera emanda bi kalejira irten ziren plazatik: bata, musika eskolarena; eta bestea, txistulariarena, buruhandiek lagunduta.

Bazkal ostean, berriz, baretasuna heldu zen kaleetara; baina ez kale guztietara, udaletxe azpiko arkupean Nagusien VI. Kontzejupe Pilota Txapelketa jokatu

zuten-eta hamabi bikotek. Eta, horren ostean, 18:00etan, errekortadoreen eskola ibiltaria eta entzierroa egin zituzten Santa Mariñe plaza inguruan. Gerora, ohiturari jarraituta, salbea abestuko zuten parrokian; eta gauean nagusien danborrada egingo zuten.

Udaleko Kultura Saitetik jakinarazi digute aurtengo jaietako egitaraua %35 txikitu dutela, baina saiatu direla adin eta gustu guztietarako ekitaldiak antolatzeko, irudimenarekin.

Eskoriatzako San Pedro jaiak

ASTELEHENA, 29

09:00 Txistulariekin kalejira.
11:00 Umeendako margo lehiaketa herriko plazan.
11:40 Elizbira.
11:55 Udal ordezkariek San Pedro elizara.
12:00 MEZA nagusia San Pedro elizan.
12:30 Felix Likinianoren gaineko erakusketa Ibarraundin.
13:15 Musika Eskolako Bandaren kontzertua plazan.
17:00-19:00 Balanzbike zirkuitua eta hankapaluak.
18:30 PILOTA partiduak: Quina eta Agiriano, Oiartzabal eta Loyola; eta Mendizabal eta Irureta, Gorka eta Merino II.a.
18:30 Zanguango antzerki taldeak *Tocata y fuga en fu renol*. Herriko plazan.
20:00 Lisker taldearekin dantzaldia herriko plazan.
23:00 *Mascleta* argitsua Santa Mariñe plazan.
23:15 Riki Lopez abeslari eta komikoaren emanaldia Gorosarri plazan.
00:00 LISKER taldearekin dantzaldia plazan.

MARTITZENA, 30

09:00 Herriko txistulariekin kalejira.
12:00 Yarleku taldearen *Apo madarikatua* umeendako ekitaldia Gorosarri plazan.
12:00 Herriko hildakoen aldeko meza.
13:00 Habanarak eta boleroak Eibarko Los Camperos hirukotearekin herriko plazan.
16:30 XVIII. Mus Txapelketa Gernika plazan.
18:30 HAURREN DANBORRADA.
00:00 JOSELU ANAIK taldearen dantzaldia plazan.

EGUAZTENA, 1

12:30 Talogileak eta SAGARDO kupelak plazan.
13:00 Herri kirol erakustaldia plazan.
14:30 HERRI BAZKARIA Santa Mariñen.
18:00 San Pedrotako III. KANTU TXAPELKETA.
19:30 PRESO eta ERREFUXIATUEN aldeko kalejira.
19:30 Zaparrada batukada taldea herriko plazan.
22:00 Dantzaldia ZE ESATEK taldearekin.
00:00 Bandera jaitziera.

ARKEOLOGIA > LEZE TXIKIKO INDUSKETAK

Gaur datoz Leze Txikira aurtengo indusketa egileak

Talde "potoloa" etorriko da, 20 bat lagunekoa, uztailearen 17ra bitartean

Arrasatearrak ez dira jabetzen Leze-Txikik duen garrantziarekin, indusketetako arduradunaren ustez


UBANE MADERA > ARRASATE

Urteroko hitzordua da, baina horrek ez dio garrantzirik kentzen Garagartzako Leze Txiki kobazuloan urtero egiten duten indusketa lanari. Alvaro Arrizabalaga arkeologoa (Aranzadi fundazioko kidea eta EHUKo irakaslea) eta berak gidatutako taldeak gaurtik aurrera hartuko ditu kobazulo hartako inguruak, giza-kiaren historiaurrea arakatzeko. Uztailearen 17ra arte egongo dira Arrasaten.

Aurten, gainera, bestetan baino aditu gehiago batuko dira Leze-Txikiko indusketen baitan: "Taldea potoloa egongo gara: 20tik gora lagun. Taldean badaude batzuk lan zehatzak egin behar dituztenak, hondeatzen egongo ez direnak; era berean, aprobetxatuko dugu Leze Txikiren inguruko lan arkeologikoak osatzeko", kontatu du Alvaro Arrizabalagak. Osatu berba erabiltzean, ohiko indusketez gainera, egingo dituzten azken lanen gainean dabil arkeologoa.

LANAK BOROBILTZEN

Izan ere, 14 urtean indusketak egin ibili ostean, Leze Txikiko lanak amaitzen doaz: "Pentsatzen dugu etorkizun nahiko hurbilean itxiko dugula indusketa, eta joan behar gara pentsatzen laginketak, analitika bereziak eta lan orokorrak egin behar direla, pentsatuz noiz eta nola argitaratuko den urte hauetako emaitza", dio.



Argazkiak erakusten du iaz Leze Txikiko aztarnategian izan zen taldea, buru-belarri lanean.

GOIENKARIA

"Leze Txikiren inguruan aurreratu egin dira zenbait argitalpen, datu... agertu da 40 artikulurutan, batzuk monografikoak (maskorren gainekoak, adibidez); baina hala eta guztiz ere, bukatzean egokiena da monografiko orokor bat argitaratzea, emaitza eta analitika guztiak eta datazioak ere laburbilduz. Posible bada, hori da onena. Izan ere, badaude material eta lan batzuk (topografiarena, datazioarena...), denondako (zientzialari, historialari, oro har, gizaki guztiendako) erabilgarri direnak"; labur esanda, batutako datu guztiak eta egindako lana borobildu egingo dute.

ESTATUKO UNIBERTSITATEKOAK

Leze Txikiren lan egingo duten adituen artean, Estatutik etorriko dira asko: "Batez ere, Estatutiko beste unibertsitate batzuetatik etorriko dira; Salamancatik talde potoloa etorriko zaigu, dokto-retza egin behar dutenak, eta

hemengo aztarnategietan interesatuta daudenak; Extremaduratik ere etorriko dira, eta adibidez, Andaluziatik ere badatoz", kontatu du Arrizabalagak.

LEZE TXIKI BI, BUKATZEAR

Lanari dagokionez, berriz, iaz hasitako gunetan segituko dute arakatzeko: "Baditugu bi gune, horiekin segitu behar dugu agortu arte. Seguruenik aurten bukatutako emango dugu beheko kobazulo txikia, Leze Txiki Bi, joko dugulako bertako haitzaren kontra eta horrek esan nahi du hor sedimentazio gehiago ez dagoela".

AURKIKUNTZA GEHIAGO

Baina hor ez da bukatuko Leze Txikiko aztarnategiko lana: "Goiko aldeak oraindik lan gehiago emango du hurrengo urteotan. Agian ez da aberatsena, baina bai, seguruenik, interesgarriena", jakinarazi du Arrizabalagak. Hain zuzen ere, aurkikuntza gehiago egiteko

esperantza erakutsi du arkeologo arduradunak: "Beti agertzen dira gauzak. Gainera, lanean dihardugu, gutxi gorabehera, orain dela 150.000 urteko aldi. Oso leku gutxitan ezagutzen da aldi hori ongi, eta Leze Txikiren ondo irudikatuta dago leku bietan, izan ere, leku bietan gaude muga kronologiko berean. Maila hori nahiko interesgarria da guretako, baina kanpokoendako ere bai".

ZABALKUNDE ESKASA

Bada, justu Arrasateko aztarnategiak duen garrantzia kontuan hartuta, hemen egindako aurkikuntzei eta lanari, oro har, ematen zaion zabalkunde eskasa azpimarratu gura izan du Alvaro Arrizabalagak. Herritarrek xehe-tasun gutxi dakitenaren susmoa dauka, eta aipatu du, baita ere, erakundeek ez diotela ematen behar besteko zabalkunde. Arrasaten museoa sortzea ez legoke adibidez, lekuz kanpo.

KONTUAN HARTZEKO

'El Clan del Oso Cavernario'-ren egilea dator

Leze Txikiko aztarnategira arkeologian adituak etortzeaz gainera, aurten bisitari benetan berezia ere izan behar du. Halaxe jakinarazi du Alvaro Arrizabalagak, indusketen arduradunak: "Izango dugu bisitari nahiko ospetsua: Jean M. Auel, *El Clan del Oso Cavernario* liburua idazlea. Kontua da itxi egin behar duela bere liburua sorta hori (*Tierra de Hombres* izenekoa). Eta liburu horien gaia da azken Neanderthalen mundua. Hori horrela, eskenatoki moduan hartu nahi du Iberiar penintsula eta besteak beste, bisitatuko du Leze Txiki, aztarnategia balizko eskenatoki moduan erabiltzeko aukera aztertzeko. Oraingo astean etorriko da, baina oraindik ez dakigu noiz". Arrizabalagak gaineratutakoaren arabera, egun berean etorri eta joango da, Arrasatetik Frantziara joateko asmoa dauka-eta, kobazulo gehiago ikustera. Hori bai, halako idazle baten bisitak garbi uzten du Leze Txikik aztarnategi moduan gizakiarendako duen garrantzia.

KONTUAN HARTZEKO

Arrasaten lan egitea, gazi-goza

Arrasateko indusketen harira, kritikatzeko bat ere egin gura izan du Aranzadi arkeologoa: "Pixka bat gazi-goza da Arrasaten lan egitea. Sumatzen dudana da Arrasateko kaleko jendeak ez dakiela zehatz-mehatz zer-nolako ondarea, zer-nolako garrantziko materiala dagoen Leze Txikiren. Guk hor ere sabai baten kontra jotzen dugu, muga dugu. Iristen gara ahal den punturaino. Izan ere, guk ere urtean beste gauza batzuk egin behar ditugu, eta berez, ez dago programarik zabalkunde mailan jendearengana iristeko. Hori bai, guk batutako informazioa ikerketa mailan oso garrantzitsua da; are gehiago, Europa mailan leku garrantzitsua ere bada Leze Txiki. Nik bisitatzen ditut hainbat museo urtero eta harrigarria irudituko zitzaion jende askori jakitea zein lekutan aurki daitekeen mapa batean puntutxo bat Leze Txikirendako". Arrasateko aztarnen garrantzia frogatuta, etxean bertan garrantzia hori aitortzeko beharra ikusten du Arrizabalaga arkeologoa.

KIROLA

Astelehenean hasiko dira helduendako ikastaroak

Total fitness, dantza, spinning-a eta pilates hastapena egiteko aukera dago

U.M. > ARRASATE

Uztailean ere gorputzari eragitea komeni dela-eta, helduendako aukerak prestatu ditu Musakolako kiroldegia. Lau dira, uztailearen 1ean hasi eta uztailearen 30ean bukatuko direnak.

Total fitness egin ahal izango da batetik. "Hainbat ariketa ezberdinen konbinazioari esker gaitasun guztiak landu eta lirain mantentzen" laguntzeko: Body Pump, Body Balance, fit-bike eta beste, tartekatuko dituzte.

Dantza nahiago duenak, berriz, funky, hip-hop, street dance eta bestelako estiloko ikasi eta koreografiak lantzeko eskaintza ere badauka.

Kirola egiteko hirugarren aukera pilates egitea da; hastapen ikastaroa landuko dute, "lehen urratsak emateko ikastaro paregabea", antolatzaileen esanetan.

Bukatzeko, helduendako jarduerekin batera, gazteendako bat ere bada: spinning-a. "13-15 urte bitarteko gazteendako fit-bikeko eskola bereziak".

AZKEN ORDUKOENDAKO LEKUA

Ikastaroetan izena emateko epea egubakoitzean, ekainaren 26an, bukatu zen. Baina San Juanak izan direla kontuan hartuta, kiroldegitik adituzera eman dute ikastaroak hasi baino lehenago azken ordukorik agertuko balitz, onartu egingo dutela.

oharrak

ABAROA

> Hitzaldia eta txangoa

Datorren ekainaren 30ean osasunarekin lotutako hitzaldia egingo dute Abaroako bosgarren aretoan: *Zela bizi Parkinsonarekin*. Jose M. Avila izango da hizlaria eta sarreara doan da.

Bestalde, iragarri dute irailaren 20an Marina D'Orrera (Castello) joango direla, urriaren 4ra arte. Prezioa da 530 euro pertsonako. Izena eman daiteke ekainaren 29tik uztailearen 30era bitartean. Baina, hori bai, abisatu dute izena eman dutenek ez dutela leku finkorik izango uztailearen 13ra arte. Jarlekuak izenematearen arabera egokituko dituzte.

JENDARTEA > TOPAKETA

Umeekin federazioak Alzasun egin du topaketa

Haur Minbizidunen Gurasoen Euskal Federakundeko ordezkarien helburuetako bat da taldea ezagutzera ematea halako ekimenekin

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Umeekin federakundeko 100 bat kide Alzasun batu ziren astelehenean, urtero egiten duten topaketarako. Aurten Gipuzkoari tokatu zaio topaketa antolatzea eta Debagoienean elkarte eza-gutzera emateko asmoz, Bergaran egitea erabaki zuten.

Primerako eguna pasa zutela aurreratu dute federazioko kideek: "Goizean hamarretakoa egin genuen eta umeak Elosuko zalditegira joan ziren zaldian ibiltzera. Eguerdian bazkari ede-

rra egin genuen eta arratsaldean umeendako jolas eta taillerak prestatu zituzten Jardun elkarte aisialdi taldekoek".

Horrekin guztiarekin, "eskerrik beroenak" luzatu nahi dizkiete Alzasuko zuzendaritza batzordeko kideei eta "nola ez, Elias Lete eta Itziarri, Javier Mendizabal Surra eta Maite Barrenari eta Pablo Iparragirre eta Yolanda Herrerosi ere bai, musu-truk egindako lan guztiagatik, guk geuk egun zoragarria igaro ahal izateko".



Irudian Alzasuko topaketan parte hartu zuten ume eta guraso taldea.

GOIENKARIA

Esker on horren adierazgarri, Umeekin elkarte lehendakari Kepa Olasagastik oroigarria eman zion Alzasuko lehendakari Ruben Gaunari.

BESTE BI HITZORDU

Haur Minbizidunen Gurasoen Gipuzkoako elkarteak, Aspano-

vasek, baditu beste bi hitzordu uztailerako.

Alde batetik, uztailaren 12an, Zarautzen surf ikastaroa egingo dute Aspanovas elkarte neska-mutikoe.

Beste aldetik, uztailaren 26an, Zumaian, mendi lasterketa proba egongo da, eta han batutako

dirua Aspanovas elkarteari emango diote.

Hain justu, Fytsch Trail proba egongo da -Euskal Herriko txapelketarako puntuagarria- eta han batutako dirua izango da Aspanovas elkartearen *Bizitzera, gure historiari politena* proiekturako.

26 instrumentu ikaslek diploma jaso dute Musika Eskolan

Astelehenean banatu zituzten Musika Eskolako 2008-09 ikasturteko instrumentu diplomak. Bigarren mailako 25 ikaslek jaso zuten, besteak beste, tronboi, akordeoi, piano, gitarra eta klarinete espezialitateetan; eta hirugarren mailako lehengo zikloko biola ikasle batek. Diplomadunek kontzertua egin zuten titulua jaso aurretik.



BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

San Martzial, San Kristobal, Basalgo eta Goimendi auzoetan ospatuko dituzte jaiak uztailean barrena

KULTURA > UZTAILEKO AGENDA

Auzoetako jaiak nagusi uztaileko kultura egitarauan

M.B. > BERGARA

Udaleko Kultura zerbitzuak uztaileko kultura egitaraua kaleratu berri du. Hala, uztailearen 2an hasi eta 26ra arte askotariko ekitaldiak egingo dira.

Joxemari Carrere ipuin kontalariak irekiko du egitaraua uztailearen 2an egingo duen emanaldiarekin; eta horrekin batera Udal Musika Bandaren, Aritzeta abesbatzaren eta Espaloiko egu-

bakoitzetako kontzertu zikloa egingo dira, besteak beste.

Horrekin guztiarekin, ugartasunagatik egitarauan nabarmentzen direnak dira auzoetako jaiak. Hain justu, ospatuko dira:

San Martzialgo erromeria, uztailearen 5ean; San Kristobal jaiak Aldaiegia auzoan, hilaren 9tik 12ra; eta Santago jaiak Basalgo eta Goimendi auzoetan hilaren 24tik 26ra bitartean.

oharrak

GAZTE BULEGOA

> **Gazte Informazio Bulegoak ordutegia aldatuko du uztailean eta abuztuan**

Eguenetan eta egubakoitzetan egongo da zabalik bulegoa, 09:00-14:30 ordutegian. Abuztuaren 3tik 23ra bitartean, berriz, itxita egongo da. Edozein zalantzarako deitu 943 77 91 57 zenbakira edo idatzi gzerbitzua@euskalnet.net helbidera. Informazio gehiago eskuratzeko, www.bergara.net helbidean.

ZOZKETA

> **Mariaren Lagundia ikastolako ikasketa bidaiarako zenbaki saritua aterata da**

Ikasketa bidaiarako zenbaki saritua da 2.732. Irabazleak jasoko du bi lagunendako afaria Zumelaga jatetxean. Horretarako jo Mariaren Lagundiako harrerara edo deitu 943 76 25 40/41 zenbakira.

ERAKUSKETA

> **'Borrokaren koloreak' delako erakusketa, kultura etxean**

Gay, Lesbiana eta Transsexualen Harrotasun Eguna harira -ekainak 28- ekarri du herrira EHGAMen erakusketa hori Udalak. Kultura etxean dago ikusgai uztailearen 3ra arte 18:00etatik 21:00etara.

Mila Agirrezabal > Udal liburutegiko arduraduna

"Herritarrak gugana etortzeko zain egoteke, gu hurbiltzea da bibliopiszinaren helburua"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Gaur, astelehena, zabalduko dute kanpoko igerilekuan liburutegi zerbitzua, bibliopiszina zerbitzua, hain justu ere. Iaz ekin zioten zerbitzuari, Mila Agirrezabal liburutegiko arduraduraren ekimenez eta ekimena ondo joan zela azaldu du. Aurtan hainbat hobekuntza gehitu dizkiote zerbitzuari.

Nondik sortu zen bibliopiszina zerbitzua jartzeko ideia?

Jakin nuen Bizkaiko hainbat herritan egiten dutela eta pentsatu nuen egokia izan zitekeela Bergararako. Iruditu zitzaidan gu ere zerbitzu hori emateko moduan geundela. Pentsatu nuen: non batzen da jende gehien udan? Bada, hara joango gara gu ere. Hala, Udalean aztertu eta egoki ikusi zen ekimena.

Nola joan zen?

Oso inpresio ona jaso genuen. Hori horrela, aurtan erabaki dugu bi orduko zerbitzua eman beharrean hirukoa ematea. Bestalde, kokalekua ere aldatu egin dugu, pasabidean egongo gara, hala herritarren esku-eskura izango gaituzte. Bestalde, gerizpea izateko haima bat ere jarriko dugu. Finean, hainbat hobekuntza egin ditugu.

Zer eskainiko duzue?

Adin guztietako jendeari irakurtzeko aukera. Adin bakoitzetarako mustrario bat eramango dugu, ez da liburutegi nagusian dagoen dena eramango. Hori da hasiera baten eramango duguna

eta herritarren eskariaren arabera egokitzen joango gara eskaintza. Esaterako, ikusten badugu komiki asko irakurtzen dela eta eramandakoa ez dela nahikoa, bada gehiago eramango dugu. Izan ere, egunero, igerilekuko mahaian egongo den pertsona etorriko da lehenengo liburutegi nagusira behar duen material guztia hartzera.

Ze erabiltzaile mota izan zenuen iaz?

Batez ere, 9 eta 12 urte bitarteko gazteak. Goizean kirol jardueretan edo udaleku irekietan jarduten dutenez, ez dira liburutegi nagusira etortzen, baina arratsaldean igerilekura joaten dira eta han hurbiltzen dira gugana.

Zerbitzua ordubete luzatuko duzue aurtan, hortaz.

Bai emango dugu zerbitzua 15:00-18:00 orduetartean, astelehenean egubakoitzera; gaur, astelehena, hasi eta irailaren 13ra arte.

"Iazko harrera ikusita, bi ordukoa beharrean hiru orduko zerbitzua emango dugu aurtan"

"Eguraldiak laguntzen ez duenean, berdegunetik ludotekara eramango dugu zerbitzua"



Mila Agirrezabal.

MONIKA BELASTEGI

Eta eguraldi txarra egiten duenean zer egingo duzue?

Eguraldiak laguntzen ez duenean zerbitzua emango da ludotekan. Hau da, liburutegiko langilea egongo da 15:00-18:00 orduetartean Agorrosingo lehenengo solairuan dagoen ludotekan.

Igerilekuan zerbitzua emateak ez du esan nahi Liburutegi handia itxita egongo denik.

Ez. Liburutegi handia ere zabalik egongo da. Ekainaren 29tik uztailaren 30era 08:30-13:30 eta 18:30-20:30 orduetartean egongo da zabalik. Eta abuztuko lehenengo eta azkeneko asteetan ere zabalik egongo da 08:30-13:30 ordu-

tegian. Arratsalde ezer nahi duenak igerilekuan jaso dezake zerbitzua. Eta irailean, ohiko zerbitzuekin hasiko gara.

Biblioporrak gida ere atera berri duzue.

Biblioporrak da udara begira Debagoieneko eta Legazpiko liburutegiek, elkarlanean, osatzen dugun gomendio multzoa, eta baliagarria da ez dakienarendako zer irakurri.

Ondo aztertutako tituluak batzen ditu, adin guztietarako eta estilo askotarikoak.

Gainera, liburuez gain, cd-ak eta dvd-ak ere jasotzen ditu gomendio gida horrek.

JAIK

Bihar, San Martzialera igoera izango da

07:30ean abiatuko da letania erreztatuz Santa Marina parrokiatik

M.B. > BERGARA

Bihar, martitzena, ekainak 30, San Martzial eguna da. Hori horrela, eta tradizioari jarraituz, San Martzial auzora igoera egingo dute letania erreztatuz. 07:00etan kanpai deia egingo dute Santa Marina parrokiatik eta 07:30ean abiatuko da erromesaldia.

San Martzialera iritsita-koan, meza ospatuko da ermitan eta meza ostan txokolatea banatuko du San Joxepe erretiratuen elkarteak, ohiturari jarraituz.

DOMEKAN, ERROMERIA

San Martzial jaiak ospatzeko hainbat ekitaldi egongo dira zapatuan, baina ekitaldi bereziena domekan izango da, erromeria, hain justu ere.

10:00etan igoko dute gurdia, 11:00etan meza nagusia ospatuko da eta 12:00etan ohiko aurrekua egingo dute Udal Gobernuako kideek. Bazkaldu eta gero, 16:00etan, ume eta gaztetxoendako jolas eta herri kirolak egongo dira eta 18:00etan, nagusiendako herri kirolak. Ordu berean erromeria hasiko da Txinparta taldearekin eta jaiari amaiera emango zaio 21:00etan.

Ipintzak elkartrukea egin du Frantziarekin

Ipintza institutuko Batxilergoko lehen mailako frantses ikasleek eta DBHko 4. mailako frantses eta latin ikasleek elkartrukea egin dute Ponselako (Frantzia) Emile Combes institutuko ikasleekin. Bergarako ikasleak martxoan izan ziren Ponselan. Ikasle frantsesak, berriz, hilaren 16tik 19ra egon dira hemen. Ipintzatik aurreratu dutenez, halako elkartrukea egin duten lehenengo aldia izan da eta oso balorazio positiboa egin dute. Irudian bertoko eta Ponselako ikasleak Donostian.



AISIALDIA > UDALEKUAK

296 neska-mutiko ibiliko dira udalekuetan eguaztenetik aurrera

Hilaren 30era arte 10:00etatik 13:00etara askotariko ekintzak egingo dituzte

Zuazola Institutuko gimnasioan eta arkupetan utzi eta jaso beharko dituzte umeak

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Udaleku irekiak eguaztenean hasiko dituzte. Hilabetez, uztailearen 30era arte, egunero bilduko dira neska-mutiko askotariko ekintzak egiteko. Guztira, herriko ikastetxe ezberdinetako 296 neska-mutiko ibiliko dira. "Iaz baino 46 ume gehiagok eman dute izena udalekuetarako, eta, egia esan, oso pozik gaude erantzunarekin. Iaz, 250 neska-mutiko ibili ziren", esan digu udalekuetako koordinatzaile Lukene Astigarragak.

ADINAREN ARABERAKO TALDEAK

Adinari begiratuta, beste behin, 4 eta 6 urte arteko umeak dira gehiengoa. Hain justu ere, adin tarte horretako 170 ume ibiliko dira. Aldiz, 9 eta 10 urteko 28 bakoarrik eman dute izena.



Uztailearen 7an San Fermin eguna ospatuko dute herriko kaleetan.

GOIENKARIA

Udalekuetako neska-mutiko guztiak eguaztenean, 10:00etan bilduko dira Zuazola Institutuan. Hain zuzen ere, 3-4, 4-5 eta 5-6 urteko umeak harmailak dituen gelan

elkartuko dira; 6-7 eta 7-8 urtekoak gimnasioan; eta nagusienak, 9 eta 10 urtekoak institututuko arkupetan. Koordinatzaileek aholkatzen dute lehen egunean

goiz joatea ume bakoitzak ze taldetan parte hartuko duen jakin eta begiralea ezagutzeko. Talde bakoitzean dauden umeen izenak sarreran jarriko dituzte.

Eguneko jarduna bukatu ondoren, 13:00etan jaso beharko dituzte umeak institutuaren kanpoaldean.

ASKOTARIKO EKINTZAK

Udalekuetako koordinatzaileek gertu dute hilabete osorako ekintzen zerrenda. Adinaren arabera ekintza ezberdinak egingo dituzte; besteak beste, eskulana, jokoak, mitologiaren eguna, zikinen eguna eta ur jokoak. Baina lau egunetan, guztiok elkarrekin egingo dute festa. Uztailearen 7an San Fermin eguna ospatuko dute; uztailearen 17an antzerkia egingo dute; uztailearen 24an, olimpiadak; eta uztailearen 30ean, azken festa. Dena den, eguraldiaren arabera, egun bakoitzerako zehaztuta dituzte ekintzak aldatu egin ditzakete.

BEGIRALEAK

Udalekuetan ibiliko diren neska-mutikoak zaintzen 31 begirale egingo dira. Udalak egindako deialdira 86 lagun aurkeztu ziren, eta aukeraketa zorrotza egin behar izan dute. "Deialdia egin genuenean jarritako baldintzak errespetatu ditugu aukeraketa egiteko orduan. Baldintzak kontuan hartuta, hautagai guztiak puntuatu dituzte eta proposenak aukeratu ditugu", esan digu Lukene Astigarragak.

KIROLA > UDA '09

Gaur hasiko dituzte udako kirol kanpainako lehen txanda eta txanda bakarra

Batuka, patinajea, tenisa, mini-tenisa eta eskalada dira ume gehien izango dituzten kirol eskaintzak

M.B. > OÑATI

Zubikoa kiroldegiko udako kirol kanpaina gaur hasi dute. Hain justu ere, lehen txandako (uztailearen 10era arte) eta txanda bakarreko (hil osorako) taldeak hasi dira. Kirol eskaintza bakoitzak dagokion orduan hasi dute. Guztira, 872 neska-mutiko ibiliko dira; 234 txanda bakarreko kirolean (psikomotrizitatea, waterpolo, arku tiroketa, gollfa, aquagima, igeriketa eta batuka), eta 638 lehen txandakoetan.

Beste behin, tenisa (149 ume), batuka (116), umeen patinajea (134) eta mini-tenisa (108) izan dira izenemate gehien jaso duten eskaintzak.

TOKIA DAGO BESTE TXANDETAN

Lehen txanda eta txanda bakarria abian dauden arren, uztaileko bigarren txandarako eta abuztuko bietarako tokia dagoela esan digute kiroldegitik. Hortaz, interesatuek kiroldegiko bulegotik pasa beharko dute izena emateko: asteleheneetik egubakoitzera 11:00etatik 13:30era, eta martitzenetan eta eguenean 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara. "Hemendik aurrera izena zuzenean eman ahalko dute, zozketarik egin gabe", diote.

Uztaileko bigarren txanda 13tik 24ra egingo dute, eta abuztukoak 4tik 14ra eta 18tik 28ra.

LANPOSTUA

Turismo bulegorako teknikaria behar dute

M.B. > OÑATI

Oñatiko Udalak turismo bulegorako teknikaria kontratatuko du. Kontratua sei hilabeterako izango da, lan jardun erdiarekin. Eskerak uztailearen 4a baino lehen aurkez daitezke udal bulegoan.

BALDINTZAK

Bete beharreko baldintzak dira: maiatzaren 18a baino lehen enplegu bulegoan izena emana izatea; turismo, arte eta historia arloko ikasketak; hizkuntzak eta B1 gida baimena izatea.

Dena den, lehenetsuna izango dute azken 18 hilabeteetan langabeen geratu direnek, familia erantzukizun handiagoko dutenek eta Oñatin errolatua daudenek.

LITERATURA

Nerea Gilendako narratiba lehiaketa

M.B. > OÑATI

Txatxiku Ikastolako ikasle Nerea Gilek Ramon Rubial FUndazioak antolatutako narratiba lehiaketako lehen saria irabazi du 13-15 urte artekoen mailan. Ikusezin izeneko lanean askatasunaz eta berdintasunaz egiten du berba. Sari moduan ingelesa hobetzeko hilabeteko egonaldia eta 500 euroko txeketa jasoko ditu urrian.



Nerea Gil.

GOIENKARIA

IKASKETAK

Bekak udako ikastaroak laguntzeko

M.B. > OÑATI

Udako Euskal Unibertsitateak uztailean egingo dituen ikastaroetan parte hartuko duten ikasleak diruz laguntzea erabaki du Udalak. Horren harira, bekak emango dituzte herriko ikasleen eta langabeen artean.

BALDINTZAK

Dirulaguntza eskuratzeko bete beharreko baldintzak dira: ikasle edo langabe izatea, Oñatin errolatua egotea eta ikastaroa ordaindu izanaren agiria izatea. Baldintza guztiak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Eskaera egiten duen ikasle bakoitzak jasoko duen bekaren zenbatekoa matrakularen %50 izango da.

ESKORIATZA > UDALA

Garroña "berehala eta behin betiko" itxi dezatela eskatu dute

Informazioa ematea eta zentral nuklearreko langileei lana bilatzea ere exijitu du Udalak

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra "berehala eta behin betiko" itxi dezatela eskatu dio Espainiako Gobernuari eta zehatzago, Industria, Merkataritza eta Turismo

ministerioari. Esandako erabakia EB-Berdeak taldeak joan den eguaztenean aurkeztutako mozioaren ondotik dator. Talde guztietako ordezkariak babestu zuten mozio hori. Horren harira, esan beharra dago, PSE-EEko ordezkari Iñaki Pierruges eta Elizateetako zinegotzi Leire Okarantza ez zirela osoko bilkuran egon.

Jakina denez, Espainiako Gobernuak asteon erabaki behar du Garoñako ustiaketa baimena beste hamar urtez luzatzea edo ez. Segurtasun Nuklearrerako

Batzordea horren bizitza luza-tzearen alde agertu da.

Guztira, Udalak hiru eskakizun egin ditu. Itxieraz gain, orain hasi eta zentrala behin betiko itxi eta eraitsi arte, prozesu horren informazio puntuala eta garbia eman dezatela ere exijitu dio: "Horrela, gardentasun irizpidei eta hiritarrek beraien ongizateari zuzenean eragiten dion gaiari buruzko informazio objektiboa, inpartziala eta independentea duten eskubideari erantzun-garria".

GAROÑAKO LANGILEAK

Eskoriatzako Udala, gainera, zentral nuklearreko langileetaz arduratuta agertu da. Hortaz, Garoñak zuzenean edo zeharka dituen mila langile ingururi beraien bizilekutik ahalik eta gertuen lana aurkitzeko eskaera egin dio Jose Luis Rodriguez Zapateroren Gobernuari, horretarako lan politika alternatiboak eta eraginkorrak erabiliz.

ESKORIATZATIK 60 KILOMETRORA

Mozioak aipatzen du Santa Maria de Garoña "mila pitzadurako zentrala" bezala ere ezaguna dela, hasieratik arazo tekniko asko izan dituelako. Horren harira, gogorazi du, Eskoriatzatik 60 kilometro eskasera dagoen zentral hori lehen belaunaldikoaren artean zabalik geratzen den bakarra eta Espainiako Estatuan zentral nuklear zaharrena dela. Hortaz, osasunarendako eta ingurumenarendako "mehatxu zuzena" dela gaineratzen du, gutxieneko segurtasun maila ez duelako bermatzen.

ARETXABALETAKO

KZgunea goizez egongo da zabalik

Wikipedia, Youtube, Google Earth eta Genoom ikastaroak eskainiko dituzte

M.B. > ARETXABALETAKO

Aretxabaletako KZgunea orduetegi berria izango du eguaztenean. Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara egongo da zabalik.

Ikastaroak dagokionez, *ikaserraz* ataleko mintegiaz gain (*Blogger, Facebook, Skype* eta *Google*-ren gainekoak), beste lau eskainiko dituzte han. *Wikipedia*-ren gainekoa da bat; etengabe eguneratutako informazioa duen kontsultarako entziklopedia erabiltzen ikasteko.

Bigarrenak, *Youtube*-n bideoak bilatu, ikusi eta norberarenak internetera igotzen erakutsiko du. *Google Maps* eta *Earth*-en gainekoarekin, helbideak, errepideak, lekuak eta negozioak bilatzen erakutsiko die erabiltzaileei; eta laugarrenarekin, *Genoom* delakoarekin, zuhaitz genealogikoa egin ahalik dute. Esandako ikastaro horiek bi ordukoak dira.

Horietan interesa dutenek 943 79 94 44 telefono zenbakira dei dezakete.

> ARETXABALETAKO

Pello Añorga ipuin kontalaria eguenean dago liburutegian

Asteon umeendako ipuin kontalaria egongo da Aretxabaletako Arkupen. Pello Añorgak hainbat ipuin kontatuko dizkie etxeko txikienei eguenean, uztailak 2. Emanaldia kultura etxeko liburutegian izango da, 17:30ean.

Erretiratuek afari-merienda egin zuten eguenean

Eskoriatzako erretiratuek izan dira aurtengo San Pedrotako jaiak ospatzen hasi diren lehenak. Joan den eguenean, afari-merienda egin zuten. Eguraldia lagun zutela, kultura etxeko kanpo aldean egin zuten afaria.

Gustura geratu ziren egun horretarako prestatutako menuarekin. Hasteko, besteak beste, urdaiazpiko, txorizoa eta frijituak jan zituzten; eta jarraian, okela saltsan, barazki eta guzti. Postre-rik ere ez zen falta. Betiko moduan, afaldu ostean, musika izan zuten.

Erretiratuen artean arrakasta handia duen ekimena da jaietako afariarena. Guztira, 150 lagun inguru bildu ziren.



MIRIAN BITERI

ARETXABALETAKO-ESKORIATZA > ERLIJOIA

Jabier Egaña oñatiarra, abade laguntzaile berria

M.B. > ARETXABALETAKO

Aretxabaleta eta Eskoriatzako abade laguntzaile berria dute: Jabier Egaña oñatiarra. Joan den ekainaren 14an aurkeztu zuten herri bietan eta dagoeneko meza eman du egunero; baita elizateetan eta auzoetan ere.

Egaña 72 urte ditu eta bizitza erdia Debagoienetik kanpo

eman du. Argentinan 38 urte egin ditu abade lanak egiten. Egañaren esanetan, "bost urterako joan nintzen hara eta guztira 38 urte eman ditut han". Bailarara orain dela urte eta erdi itzuli zen.

Jakinarazi digu pozik dagoela lan berriarekin eta hemendik gutxira, Eskoriatzara joango dela bizi izatera.



Irudian, Jabier Egaña abadea.

IKER BARANDIARAN

IRIARTE

Umeen
denda

Helduen
lentzeria

Durana 8

Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETAKO



Lehenengo, herriko plazan eta gero Dorletan joko duen Arrasateko Ain_1 taldea.

GOIENKARIA

LEINTZ GATZAGA > DORLETA BIBREIXON JAIALDIA

Musika ugari Dorleta inguruan, zapatu gauean

Herritar talde batek kontzertuak antolatu ditu eta hainbat eratako doinuak ekarriko dituzte; tartean, reggaea, soula, jazz eta flamenkoa

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Dorleta Bibreixon izeneko jaialdia antolatu dute zapaturako, Gatzagan, eta musikaz beteko dituzte herriko bazterrak. Herritar talde batek antolatu du, iazko Andramari jaietan plazan jarritako txosnan lan egin zuten herritarrek, hain zuzen. Orduan lortutako dirua herria girotzeko erabiltzea erabaki zuten eta zapatuko musika jaialdia bigarren ekintza da. Lehena Gabon inguruan egin zuten; orduan, Gasteizko Olabide ikastolako abesbatza ekarri zuten. "Herrian ez dela ezer egoten kexu izaten gara askotan; hori horrela, kultur ekitaldiak antolatzea erabaki genuen. Hor-

tik etorri da kontzertuak egiteko burutazioa", jakinarazi digu antolatzaileetako batek.

DURANGOKO SOULA ETA JAZZA

Jaialdia herrian hasiko dute, lehen kontzertua San Migel plazan izango delako (19:00-20:00): Ain_1 eta Pulguilla Fusion. Handik, Dorletako parajeetara joango dira musikariak eta entzuleak: "Eguraldia lagun izanez gero, aparteko parajea da Dorleta, jaialdia egiteko", diote antolatzaileek.

Hona, izango diren taldeak: Ain_1, La Pulguilla eta lagunak, Soon Come eta Mongo. Eta gauari jarraipena emango dio Esther disko jartzaileak.

Euskal Herrian sortu eta egingandako musika izango da Dorletan, eta hainbat eratako doinuak elkartuko dituzte. Hala, Ain_1 taldeko neska arrasatearrek musika, poesia eta dantza eskainiko dute. La Pulguillak, ostera, flamenko doinuak ekarriko ditu Gasteiz aldetik; eta Hendaiaiko Soon Come taldeak regeaarekin jarriko ditu dantzan ikusleak. Soul, jazz eta blues doinuak lantzen dituen Mongo talde durangarraren tartea izango da gero, eta gaua dantzan bukatzeko Esther dj-aren ekitaldia. Gainera, taberna txiki bat jarriko dute antolatzaileek Dorletan, inor ez dadin egarrituta egon.

ELGETA > FERIXA NAGUSIKO JAIK

Borondatezko alkoholemia probak egiteko aukera egongo da jaietako barikuan

Zapatuan 00:00etatik 03:00etara stand bat ipiniko dute farmazia parean, nahi duenak alkohol mailaren froga egin dezan

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Zenbatetan galdetu diogu gure buruari: Positibo emango nuke orain? Jaietako barikuan zalantza hori uxatzeko aukera izango dute elgetarrek. Sasoi izeneko elkarteko hiru adituk stand bat ipiniko dute farmazia

parean eta nahi duen orok izango du alkohol mailaren froga egiteko aukera. Ertzainek erabili ohi dituzten alkoholometroen oso antzerakoak erabiltzen dituzte Sasoi elkarteko kideek. "Alkohol-probek ematen duten emaitza %100 da fidagarria", adierazi dute.

Gainera, proba egiten dutenei hainbat aholku emango dizkiete. Positibo ematen dutenei autoa hartzeko zenbat denbora itxaron behar duten esango diete, besteak beste.

SENTSIBILIZAZIOA HELBURU

Herriko jaietan, alkoholaren gehiegizko kontsumoari buruz

sentsibilizatzeko, informatzeko eta arreta hartzeko egingo den kanpaina da honakoa. Hurbiltzen direnak, galdera sorta bat bete behar dute. Adina, sexua, zenbat alkohol kontsumitu duten eta ia autoa hartu behar duten galdetzen zaie. Ondoren, alkoholemia froga egingo zaie eta horrekin batera emaitzaren azalpena, autoa hartuz gero zer gerta litekeen eta alkohol tasak zenbat denbora irauten duen gorputzean azalduko zaie. Liburuxkak ere jasoko dituzte oparitan.

Frogak barikutik zapaturako gauean egingo dituzte 00:00etatik 00:03etara farmazia parean ipinitako stand batean.

ARAMAIO > TXIRRITOLA EUSKARA ELKARTEA

Txirritolaren olinpiadetarako dena prest dago

Aurten ere San Martin jaietako hitzordu garrantzitsua izango dira euskara elkarteak antolatzen dituen Txirritolinpiadak

A.B. > ARAMAIO

Txirritolinpiadak Aramaioko jaietan klasiko bat dira eta aurten ere euskara elkarteak bere olinpiada bereziak egingo ditu. Uztailearen 4an, zapatua, izango dira Txirritolinpiadak eta antolatzaileek egitarau eta bete beharko probak antolatu dituzte dagoeneko.

Egunean bertan eman behar da izena; probak 18:00etan hasiko diren arren, izena 17:45ak baino lehen eman beharko da. Aramaioko parkean hasiko dira Txirritolinpiadak. Hirunako taldeak osa-

tu behar dira eta txirritolariak kaskoa jantzi beharko dute nahitaez. Horretaz gain, txaleko distiratsua ere eraman beharko dituzte.

Hasiera, esan bezala, parkean izango da eta ibilbidea honakoa: parte-hartzaileak Arrikotiraino bizikletaz joan beharko dira; bertan, testigua aldatu eta parkera joan beharko dira oinez. Bukatzeko, trebezia proba bat egin beharko dute parkean. Bi kategoria bereiztuko dituzte: gazteena eta nagusiena. Nagusiena, jakina, luzeagoa izango da.



Joan den urtean ere arrakasta izan zuten Txirritolinpiadak.

GOIENKARIA

ANTZUOLA > AISIALDIA

Eguaztenean hasiko dira umeak udaleku irekietan

Uztaileko lehen hamabostaldian herriko 115 ume ibiliko dira 12 begiralerekin

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Uztailearen 1ean, eguaztena, hasiko dira udaleku irekiak herriko umeendako eta uztailearen 16ra bitartean aisialdirako aukerarik ez zaie faltako antzuolarrei.

Goizez, 09:30etik 13:00etara bitartean, egingo dituzte hainbat ekintza 5 urteko gelako umeetatik hasi eta seigarren mailara artekoek. Guztira, 115 ume izango dira eta eurekin ibiliko diren begiraleak, 12.

Eskulanak, jokoak, herriko txokoetara irteerak... egingo dituztela aurreratu digute antolatzaileek, eta jakinarazi

dute, baita ere, aurten ekintzetan berrikuntzak sartzeko ahalgin berezia egin dutela. Ohikoa den moduan, San Fermin Eguna egingo dute, baina izango dira kulturen eguna, uraren eguna, joko paralinpiarrek...

JAIETAKO LEHEN EGUNA

Uztailearen 16an, eguena, herriko jaiak hasiko diren egun berean, amaituko dira udaleku irekiak, baina egun horretarako ere gertatuko dituzte ekintzak udaleku irekietakoek. Izan ere, 12:00etan jaiak iragartzeko kanpai hotsarekin batera, serpentinak, globoak... botako dituzte eta alkate eta alkatesa txikien saioa ere izango da. Gero, neska-mutikoek udalekuan gertatutako ikuskizuna eskainiko dute Herriko plazan eta kaleetan batukadarekin ibili ostean, eguerdian umeek herri bazkaria egingo dute.

Kirola



> **PILOTA**
Aitor Mendizabalek Elgetako lau t'erdiko txapelketako finala jokatu du barikuan > 22



> **ERREMONTEA**
Iñigok eta Badiolak 40-38 irabazi zuten Gipuzkoako erremonte kopako finala > 23



> **HERRI LASTERKETA**
138 umek eta helduk parte hartu zuten Torreauzoko krolean, bero sargoriari aurre eginez > 24-25

IGERIKETA > GIPUZKOAKO TXAPELKETA BERGARAN

Domina ugari, Bergarako eta Oñatiko igerilariendako

GIPUZKOAKO

Aste bukaeran jokatu dute Agorrosin kirol gunean Gipuzkoako Txapelketa

GIRO EZIN HOBEA

Hondartzarako eguraldia egin arren, harmailak lepo bete ziren proba ikusteko

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Zapatuan eta domekan, goizean eta arratsaldean, jokatu zuten Gipuzkoako igeriketa txapelketa. Ehunetik gora igerilari elkar-tu ziren Bergarako Agorrosin kirol gunean, tartean Bergarako igeri taldeko sei ordezkari, eta Aloña Mendiko 21. Modu berean, Bardulia taldeko kide den Ana Balentziaga bergararrak parte hartu zuen.

Lau saioen bukaeran, gustura bukatu zuten Bergarako zein Oñatiko igerilariak. Domina asko lortu zituzten banaka zein taldeka, eta ilusioz beterik parte hartuko dute zapatuan eta domekan, uztailak 4 eta 5, jokatu diren Euskadiko txapelketetan.



Agorrosingo igerilekuko harmailak lepo bete ziren zapatu arratsaldeko probak ikusteko; argazkian, 50 tximetako irteera.

JOSETXO ARANTZABAL

DENBORAK JAITSI

Bergarako entrenatzaile Neritzel Albisua gustura zegoen: "Denboraldia Gipuzkoako txapelketari begira antolatzen dugu, eta

urtean zehar egindako lana erakusteko baliatzen dugu. Gure igerilariak euren denborak jaitsi dituzte, lana ondo egiten dugunaren seinale! Gainera giro bikaina egon da harmailetan".

Bergararren artean emaitza onena Nielka Ibarguren egin zuen: 200 bularrean bigarren sailkatu zen eta 100 bularrean hirugarren. Bestalde, errelebo-probetan lan ona egin zuten bergarrek. Nielka Ibarguren, Mikel Labaka, Ander Franco eta Urki Ibarguren bigarren sailkatu ziren 4x50 estiloko erreleboan. Donostian ikasten diharduen Ana Balentziaga bergararrak Bardulia taldeko kide modura hartu zuen parte.

OÑATIARREN EMAITZAK

Aloñako ordezkariak ere gustura bukatu zuten txapelketa. "Lan polita egin dugu. Igerilari batzuek euren denborak jaitsi dituzte, eta beste batzuek Euskadiko txapelketarako minimak lortu dituzte",

esan zigun bukaeran Aloñako entrenatzaile Xabier Infante.

Ander Zarketak denbora onak egin zituen 50 eta 100 bizkarrean; baina, batez ere, Kepa Alber-

dik egindako lana azpimarratu zigun Infante: "Zazpi urte egon da probetan parte hartu barik, eta lan txukuna egin du. 100 estilotan hirugarren sailkatu da". Bestalde, Ane Sanz de Galdeanok 200 krolean eta 100 bizkarrean, eta Nerea Elortzaren emaitzak aipatu behar ditugu. Biak ala biak egongo dira Euskadiko txapelketan.

Izan ere, horixe da Bergarako eta Aloñako igerilariak duten hurrengo erronka, aste bukaeran Ordizian eta Santurtzin jokatu diren Euskadiko txapelketak. Bergarako taldetik Nielka Ibarguren, Mikel Labakak, Urki Ibarguren, Ander Francok, Jon Mujikak eta Xabier Labakak parte hartu dute. Ane Balentziaga ere txapelketan egongo da.

Ander Zarketa, Aitor Uriarte, Mikel Biain, Mikel Ugarte, Amaia Tatiegi, Ane Sanz de Galdeano, Sara Zubia, Ainhoa Tatiegi, Hele- ne Ugarte, Nerea Elortza, Nerea Uriarte eta Maria Abeijon izango dira Aloñako ordezkariak.

ESANAK

"Gipuzkoakoan denborak jaitsi ditugu, baina Euskadikoan hobetu egin ditzakegu"

Neritzel Albisua > Bergarako entre.

"Gustura gaude; batzuek denborak jaitsi dituzte, eta beste batzuek Euskadirako minimak"

Xabier Infante > Aloñako entrena.



Bergarako taldea (lehen ezkerretik) 100 estilotako errelebotako podiumean. M.B.

ELGETAKO LAU T'ERDIKO TXAPELKETA > FINALERDIA

Mendizabalek Elgetako lau t'erdiko finala jokatu du egubakoitzean

Barikuko finalerdian Larrañaga azpeitiarrari gailendu zitzaion 22-20; finala Ricoren aurka jokatu du barikuan 22:00etatik aurrera

MIREIA BIKUÑA > ELGETA

Aitor Mendizabalek Elgetako lau t'erdiko ETB Kantxa pilota sari-ko finala jokatu du barikuan. Antzuolako pilotariak partidu gogorra jokatu zuen Larrañaga azpeitiarraren kontra, baina 22-20 irabazi zuen, eta 23 urte azpikoen finalerako txartela eskuratu zuen.

Bi pilotariak oso urduri irten ziren Elgetako kantxara. Hasierako tantoetan markagailuak gora-behera asko izan zituen. Bi pilotariak izan zuten abantaila, baina berehala berdintzen zuen markagailua aurkariak. Mendizabalek bederatzinako berdinketa lortu ondoren egindako sake-



Aitor Mendizabal antzuolarra pilota astintzen, atzean, Larrañaga begira duela.

JOSETXO ARANTZABAL

an pilotakada bortitza eman zion Larrañagari aurpegian, eta sudurra apurtu zion.

Azpeitiarra aldageletara joan zen odoletan, baina partiduan jarraitzeko erabakia hartu zuen.

"Momentu gogorra izan da. Larrañaga laguna dut, eta pilotakada gogorra eman diot. Berrir jokatzeko hasi garenean, buelta asko eman dizkiot jokaldiari, baina zorionez ez dut kontzentrazioa

galdu", esan zigun Aitor Mendizabalek partidu bukaeran. Sudurra apurtuta eduki arren, Larrañagak partidu gogortu egin zuen. Biek ala biek izan zuten aukera markagailuan abantaila

ESANAK

"Eskuetako mina sendatu zait, eta finalean eskopeta eta txapela lortzeko asmoz irtengo naiz"

Aitor Mendizabal > Pilotaria

hartzeko. 19na berdindu ondoren, Mendizabal 21-19 aurreratu zen, eta bazirudien partidua bukatuko zuela azken sakearekin, baina Larrañagarendako izan zen tantoa. 21-19rekin Larrañagak egin zuen sakea, eta piloteo gogorraren ondoren, Mendizabalek egin zuen 22. tantoa.

KADETEEN FINALERDIAK

23 urtez azpikoen finalerdiak jokatu aurretik, kadete mailako bi finalerdiak jokatu zituzten. Elezkano II-ak 22-12 irabazi zuen Gallurraderen kontra; eta, Jakak 22-13, Arratibelen kontra.

Bi finalak egubakoitzean jokatu dituzte 22:00etatik aurrera.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA BERRIA

Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
(Egungo Mekanizazio Bidezko Produzioaren ordez)

Makina-erreminta konbentzional
eta zenbakizko kontrolekoetan fabrikazioa

Ordenagailuz lagundutako fabrikazioa. CAD/CAM

Produktuen egiaztatzea

Produzioaren programazioa eta kalitate kontrola

Produktu mekanikoen fabrikaziorako proiektua (PBL)

Lan-irteerak:
Zenbakizko kontrol makinaren programatzailea
Sistema automatizatuaren programatzailea
Produzioaren programatzailea
Metalak prozesatzeko instalazioen arduraduna

Informazio gehiago: www.mondragon.edu/gep
















Iñigo Lekunberri pilota astintzen, alboan Matxin III.a begira duela. Atzean, Julen San Miguel (urdinez) eta Imanol Badiola (gorriz).

JOSETXO ARANTZABAL

GIPUZKOAKO KOPA > FINALA

Iñigok eta Badiolak irabazi zuten Gipuzkoako erremonte kopako finala

Matxin III-San Miguel bikotearen kontra partidu gogorra irabazi zuten: 40-38

finalera, eta ikuskizun paregabek eskaini ziguten Oñatiko pilotalekura hurbildutako zaleei. Mererimendu osoz jantzi zituzten txapelak

pelak Iñigo Lekunberri eta Imanol Badiolak (40-38). Gipuzkoako erremonte kopako ezustea izan dira, bidean txapela irabazteko

bi hautagai nagusi Ezkurra eta Patxi Zeberio kanporatu ondoren. Dena den, zapatuko finaleko lehen tantoetan bikote urdina hobeto ibili zen. Matxinek bikain jokatu zuen aurreko koardroetan, eta zabalera egindako dejadekin eta txokoan moztutako pilotekin 9-14 aurreratu zen bikote urdina.

abantailak, baina bi tantokoak gehienez ere. 26-22 aurreratu ziren Iñigo eta Badiola, baina urdinek 26na berdindu zuten. Matxin III.a eta San Miguel 29-31, 32-33 eta 33-34 aurreratu ziren, baina guztietan berdindu zuten gorriek.

Oñatiko alkatea eta Gipuzkoako Kirol diputatu Iñaki Galdosen banatu zituzten sariak



Pliotariak eta agintariak sari banaketa ekitaldiaren ondoren.

MIREIA BIKUÑA

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Finaleran txapelketako jokalarionen lehiazten ei dira. Zapatuan Gipuzkoako erremonte kopako finalean txapelketako bi bikote onenak lehiatu ziren. Iñigo eta Badiola (gorriz) eta Matxin III.a eta San Miguel (urdinez) sasoi puntu onen heldu ziren

Iñigok eta Badiolak ez zuten hasierako tantoetan aurreko kanporaketetan bezain ondo jokatu. Baina, urdinek 15. tantoa egin ondoren, San Miguel atzelaria hutsak egiten hasi zen, eta gorriek lehen berdinketa lortu zuten: 15-15. San Miguel ez zegoen gustura bere jokoarekin eta biraoka hasi zen.

LASAIAGO JOKATU ZUTENENDAKO
Finaleko azken tantoak ere oso gogorak eta parekatuak izan ziren. 31-31tik aurrera, gehienez ere tanto bakarreko aldea izan zuten 38-38ra heldu arte. Orduan lasaiago jokatu zuten Iñigok eta Badiolak. San Miguelek pilota behera bota zuenean egin zuten 39. tantoa gorriek. Azkenengoan Matxinek huts egin zuten.

AURRERATU ETA BERDINDU
Hurrengo tantoetan markagailuak gora-behera asko izan zituen, bi bikoteek izan zituzten

Pozik eta txalo artean jaso zituzten sariak Oñatiko alkate Lurdes Idoiagaren eta Gipuzkoako Kirol diputatu Iñaki Galdosen eskutik.

Iñigo eta Badiola > Txapeldunak

"Txapelketako ezustea izan gara baina txapela jantzi dugu"

M.B. > OÑATI

Beroari eta Matxin III.a eta San Migueli aurre eginez jantzi zuten txapela Iñigo Lekunberri eta Imanol Badiolak. Nekatuta, baina pozik zeuden partidu bukeran.

Bide luzea eta zaila egin duzue finalera heltzeko, baina ez duzue hutsik egin.

Egia esan, oso gustura gaude. Gipuzkoako kopako ezustea izan gare-

la diote askok, besteak beste, Patxi Zeberio eta Koteto Ezkurra kanporatu ditugulako. Ezusteak eman ditugu bai, baina txapela jantzi dugu!

Kontrario gogorak izan dituzue gaur. Matxinek eta San Miguelek oso gogor jokatu dute.

Atzo zapatua, finalerdietan jokatu zuten biek Zarautzen. San Miguelek ondo astindu zuen pilota eta sei tanto egin zituen sakez. Bagenekien

Matxin III.a sasoi onen zegoela Dena den, une erabakigarrietan eurek baino lasaiago jokatu dugu.

Partidua ordubete ingurukoa izan da. Beroak kalte egin dizue?

Bai, bero egin du, eta atsedean gehiago hartu ditugu; horregatik luza da partidua.

Galarreta bezalako frontoi luzetan jokatzeko ohitura duzue. Nola moldatu zarete frontoi txikira?

Ahalik eta ondoen egiten ahalegindu gara, eta bistan da ondo egin dugula. Pilotaleku motzean indarra ez da horren garrantzitsua, azkartasuna da inportanteena. Eta guk txapelketa osoan azkar jokatu dugu.



MIREIA BIKUÑA



Torreauzoko krosetako nagusien kategorian parte hartu zuten 114 korrikalariak lasterketa hasieran.

OIHANA ELORTZA

ATLETISMOA > TORREAUZOKO KROSA

Erantzun ona izan du Torreauzoko inoizko krosik herritarrenak

Manu Hurtado beasaindarra eta Isabel Ramos oñatiarra izan dira lehen gizona eta lehen emakumea

60 sari inguru banatu dituzte korrikalari guztien artean, gazte zein nagusi

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Beroa. Bero handia. Horixe izan zuten ahotan Torreauzoko krosa egin zuten korrikalari guztiek, gazte zein helduek. Lasterketa antolatatu zuen Antxintxiketan elkarteak joan den urtean baino ur botila gehiago ekarri zituen, korrikalari bakoitzarendako hiru, gutxi gora-behera, baina ez zen nahikoa izan. "Bero handia egin du eta korrikalariak lasterketa hasi aurretik hasi dira ura eskatzen, berotu aurretik. Baina inor ez da kexatu. Zuazolako zubian, Albarratza parean eta Olaten eskaini ditugu ur botilatxoak eta helmugatik gertu iturria dago", azaldu du Asier Osinagak, antolatzaile taldekoak.

IAZ BAINO KORRIKALARI GEHIAGO

Inoiz baino izaera herrikoiagoa eman gura izan diote antolatzaileek Torreauzoko krosari, eta emaitzarekin pozik gelditu dira. "Umeetan bikoiztu egin da korrikalari kopurua joan den urtekoarekin konparatuta, 24k hartu dute parte aurten. Eta nagusietan 114 lagunek egin dugu korrika, iaz baino 20 gehiagok", zehaztu du Osinagak. Horietako batzuk, 30 inguru, Internet bidez apuntatu dira, baina gehienek lasterketa hasi aurretik eman zuten izena eta hori dela eta, helduen lasterketa 10 minutu geroago hasi zen. Partehartzaile gehienak Oñatikoak izan ziren, baina inguruko herrietatik zein urrutia egotik ere etorri ziren Torreauzora. Adibidez: Arrasate, Zumaia, Gasteiz, Elgoibar, Tolosa, Bergara, Donostia, Legazpi, Aretxabaleta, Plentzia, Azpeitia edo Zaragozatik, besteak beste.

60 SARITIK GORA

Lasterketa amaitzean, 60 sari inguru banatu zituzten korrikalari gazte zein helduen artean. Helmugan sartzen zen lehen familia oñatiarrarendako ere sari berezia zegoen, baina inor ez zen animatu eta harendako zen urdaiazpikoa partehartzaile guztien artean zozketatu zuten. "Aur-

ten ez da inor animatu, baina datorren urtean ere ideia horri eutsiko diogu eta bailara osora zabalduko dugu, gainera. Deba-goieneko lehen familiarri emango diogu saria", aurreratu du Asier Osinagak.

HURTADO, RAMOS ETA MOLINERO

Lasterketaren irabazleak, Manu Hurtado beasaindarra, 25 minutu eta 42 segundo behar izan zituen 7,600 metroko lasterketa egiteko; 22 minutu egin ditu orain arteko azkarrenak. Lehen ema-

kumea Isabel Ramos oñatiarra izan zen, 33 minutu eta lau segundorekin. Lehen oñatiarra, berriz, Imanol Molinero izan zen. *Moli* hirugarren sartu zen helmugan, 26 minutu eta bi segundo korrika egin ondoren.

Manu Hurtado > Irabazlea

"Oso pozik nago, helburua bete dudalako"

O.E. > OÑATI

Beasaingo Manu Hurtadok irabazi du Torreauzoko krosetako helduen lasterketa. Izerdi patsetan sartu zen helmugan.

Zorionak. Pozik egindako lasterketarekin?

Eskerrik asko. Pozik nago, bai. Aurreko urteetan ere parte hartu izan dut; lehen postuetan ibili arren, ez dut inoiz garaipena lortu, eta pozik nago, lortu dudalako nire helburua.

Zer iruditu zaizu lasterketa?

Ezagutzen nuen ibilbidea, baina bero izugarria egin du eta ez naiz hain gustura ibili. Larregiko beroa egin du, niretako, behintzat.

Entrenamenduak ez dituzu, bero dagoenean egiten?



O.E.

Ez, egia esan, bero egiten duenean ez naiz korrika egitera joaten. Normalean iluntzean egiten ditut, 20:00ak aldera, eta ordu horretan ez du horren besteko berorik egiten.

Zenbat ur botila txiki hartu dituzu lasterketan zehar?

Lasterketan hartu ditut ur botila txikiak, bai, baina ez dakit zenbat, ez ditut zenbatu. Baina ur asko edan dut, hori badakit. Hala ere, ez nintzen bakarria izango.

Hemendik gertu dago Usako. Bainu bat hartuko duzu, freskatzeko?

Etexera heldu eta atsedean hartzeko gogoa dut orain, egia esan.

Bestela, zer moduzko giroa egon da Torreauzoko krosetan?

Giroa ona, baina beroa. Uste dut denon ahotan erabili dugun gaia izan dela beroa. Gehiegizkoa izan da.

Datorren urtean ere etorriko zara berriz? Hartuko duzu parte?

Baietz uste dut. Azken edizioetan ere hemen izan naiz, aurten ere bai, eta datorren urtean ere, zergatik ez?



Gaztetxoek Zuazolako zubira joan-etorria egin zuten korrika. JOSETXO ARANTZABAL



Azken orduko izenemateek lasterketa hasiera atzeratu zuten. OIHANA ELORTZA



Olaten zegoen quad batek markatu zuen lasterketaren erdia. JOSETXO ARANTZABAL



Korrikalariak asko eskertu zuten edateko guneetako ur eskaintza. JOSETXO ARANTZABAL



Manu Hurtado, nagusien lasterketako irabazlea, helmugan sartzen. OIHANA ELORTZA

Torreuzoko sailkapena

NAGUSIEN SAILKAPEN NAGUSIA

1. Manu Hurtado	25:42
2. Asier Eskisabel	25:47
3. Imanol Molinero	26:02
4. Asier Osinaga	26:12
5. Gaizka Romero	26:14
6. Asier Aranburu	26:58
7. Ramon Varela	27:08
8. Iker Larrea	27:35
9. Arkaitz Ruiz de Loizaga	27:37
10. Iker Sarabia	27:40
11. Mikel Anakabe	28:15
12. Iban Altube	28:31
13. Sergio Perez	28:37
14. Gorka Alcoba	28:39
15. Clemente Jesus Bravo	28:45
16. Mikel Balantzegi	28:53
17. Jon Osinaga	28:55
18. Asier Larral	29:01
19. Iker Gorostiaga	29:17
20. Igor Lazkano	29:25

LEHEN EMAKUMEZKOAK

1. Isabel Ramos	33:04
2. Blanca Marin	33:39
3. Trini Blazquez	37:13
4. Idoia Elkorobarrutia	38:51
5. Nekane Maiztegi	43:40

LEHEN DEBAGOIENDARRAK

1. Imanol Molinero	Oñati
2. Asier Osinaga	Oñati
3. Gaizka Romero	Oñati
4. Ramon Varela	Oñati
5. Iker Larrea	Antzuola
6. Arkaitz Ruiz de Loizaga	Bergara
7. Iker Sarabia	Arrasate
8. Iban Altube	Oñati
9. Sergio Perez	Aretxabaleta
10. Jon Osinaga	Arrasate
11. Asier Larral	Oñati
12. Iker Gorostiaga	Oñati
13. Igor Lazkano	Eskoriatza
14. Anselmo Gomez	Bergara
15. Mikel Gorostidi	Oñati
16. Juan Miguel Coronado	Arrasate
17. Iñigo Regueiro	Oñati
18. Alberto Guerreiro	Oñati
19. Iker Sologastoa	Oñati
20. Miguel Angel Igartua	Oñati
21. Raul Muñoz	Oñati
22. Roberto Ferreira	Oñati
23. Iban Guridi	Oñati
24. Aitor Laka	Oñati

ITURRIA: WWW.HERRIKROSSA.COM

HORRELA IKUSI DUTE PARTE-HARTZAILEAK



Jon Castaño
Oñati



Luis Guridi
Oñati



Jon Etxeberria
Oñati



Isabel Ramos
Oñati



Idoia Elkorobarrutia eta Trini Blazquez
Oñati

"Lehenengo aldiz hartu dut parte aurten Torreuzoko krosean, baina hurrengo urtean ere etorriko naiz. Orain gustura nago, baina nekatuta bukatu dut. Zuazolako zubian ura hartu dut, egarria nuen-eta. Asteazken zehar ere egiten dut korrika batzutan, baina herri barruan zehar".

"Torreuzokoa bertakoa naiz ni, eta pozik nago lasterketan parte hartu dudalako. Bero handia pasa dut, oso handia, baina gustura egin dut. Datoren urterako ere prest nago ni. Giro aldetik, berriz, giro ona egon da, urtero moduan: musika, sariak, lasterketa ondo antolatuta ..."

"Bost lagun etorri gara lasterketara eta denok egin dugu korrika. Lehen izan naiz alebin mailan, eta oso pozik nago. Oñatiko atletismo taldean nabil eta taldekoekin entrenatzen dut. Bero pasa dut eta ura edan bai, baina bota ere egin dut burutik behera. Hurrengo urtean ere banator".

"Asteazken zehar bizpahiru aldiz joaten naiz korrika egitera, baina lasaitzeko bakarrik. Zapatuan Ritxar Fernandezekin egin nuen topo eta berak animatu ninduen lasterketa honetan parte hartzera. Kasu egin diot eta pozik nago. Ez nuen uste lehenengo emakumea izango nintzenik".

"Hementxe egiten ditugu gure entrenamenduak, eta Ibilbidea ondo baino hobeto ezagutzen dugu: Albaratzako aldapa, zuloak, harriak ... Hala ere izugarriko beroa egin du gaur korrika egiteko, eta hori nabaritu dugu, bai. Aurten ere bakarrik etorri gara. Helmugan sartzen zen lehen familiarendako ere bazegoen saria, baina gurekoak ez dira etorri: batzuk txikiegiak dira eta besteei, berriz, ez zaie gustatzen korrika egitea".

ESKALADA > BOULDER TXAPELKETA HERRIKOIA

Paretak eta pareta ez direnak igoaz, ohikoena ez den eskalada modua ikusgai

Kaleko paretak igoaz, eskalada kalera atera eta herritarrak giroan sartzea lortu zuten zapatuan Arrasaten

MIREN ARREGI > ARRASATE

Lehenengoz, San Juan jaietan, Boulder Txapelketa herrikoia egin zuten zapatuan; kalean eskalatu zuten parte hartzaileek. Kaleko paretak eta pareta ez direnak –parrokia aurreko pilareak eta plazako makala– igo zituzten. Hamar lagun aritu ziren lehian; aretxabaletar bat izan ezik, arrasteak guztiak.

Ferrerias kalean hasi ziren, eta parrokia, kanpantorpea, plaza, Iturriotz kalea eta gaztetxea pasatu ostean, berriz ere egin zuten Ferrerias kalera, bertan txapelketa azken pareta igotzeko.

Eguraldi ona lagun, herritarrek animatu ziren kaleko eskalada ikustera. Jon Otxandategik irabazi zuen txapelketa; bigarren, Iñaki Viejo gelditu zen eta hirugarren postuan, Mikel Velasco.



Parrokia inguruko hormak ere igo zituzten.

JOSETXO ARANTZABAL



Plazan makala dagoela-eta, ezin igo barik utzi.

MIREN ARREGI



Parrokia pareko pilarea ere igo zuten.

MIREN ARREGI



JOSETXO ARANTZABAL

Urteko lana erakutsiz, Shotokan eta Aikido

Arte Martzialen erakustaldiak ez dira falta izan asteburuan ibarrean; hain justu, Arrasaten Aikido taldeak, eta Bergaran Shotokanekoak, erakustaldiak egin dituzte. Talde horien bien helburua, batez ere, urtean zehar egindako lana erakustea izan da; eta bide batez, borroka arte horiek, gertuagotik ezagutzera; izan ere, oraindik borroka mota nahiko ezezagunak dira.

TXIRRINDULARITZA > XXIII. OLAKUA TXAPELKETA

Sumofic taldeko Mikel Aristi bergararra izan zen azkarrena oñatiko lasterketan


23. Olakua txirrindulari proban 85 ziklistek hartu zuten irteera 56 kilometroko ibilbidea egiteko; helmugara 50 txirrindulari heldu ziren

M.A > OÑATI

23. Olakua Txirrindulari txapelketa jokatu zen zapatuan, Oñatiko Aloña Mendi Txirrindularitza sailak antolatuta. Kadete mailako txirrindulariei zuzendutako lasterketak 56 kilometro luze izan zituen; Oñatiko Olara auzoan hasi, Bergarara egin, handik berriz ere Oñatira eta Udantatik Legazpira igo ondoren, berriz ere Olaran amaitu zuten lasterketa. Guztira 85 lagunek hasi zuten lasterketa eta 50ek amaitu.

IRABAZLEA BERGARARRA

Sumofic taldeko Mikel Aristi bergararrak irabazi zuen lasterketa, eta hura izan zen baita ere, mendiko irabazlea. Erraz gainditu zuen gainera bigarrena, hain zuzen ere, Unai Jauregiri ateratako tarte handia izan zen.



Antton Inza, antolatzailea eta Mikel Aristi, irabazlea.

JOSETXO ARANTZABAL

Xabier Aranguren > Ziklista

"Haizearen ondorioz, ziklista guztien denborak uste baino altuagoak izan ziren"

ARANTZAZU EZKIBEL > ELGETA

Xabier Aranguren elgetarra 15. postuan helmugaratu zen joan den zapatuan jokaturako Quebrantahuesos lasterketan (06:03:05). Baqué taldean afizionatu mailan ibilitakoa da Aranguren, baina 2007an ziklismoa utzi zuen. Gaur egun, ez du lasterketan parte hartzen; Sabiñanigokoa salbuespena izan zen.

Pozik zaude egindako lanarekin? Espero zenuen horrelako emaitzarik lortzea?

Egia esan, ez nuen espero horrelako postu onik lortzea. Espero nuena zen, denbora hobea egitea. Aurreko urteko denbora gehiago jaitea espero nuen. Baina haize asko zegoen eta orokorrean parte hartzaile guztien denborak altuak izan dira.

Bestalde, ez nuen sentsazio onik izan lasterketan.

Hala ere, iazko denbora jaitea lortu zenuen.

Bai, denbora jaitea lortu dut, baina esan bezala, uste nuena baino gutxiago.

Nolako lasterketa izan zen?

Jakatik gora, Somport-era iritsi arte haize asko zegoen, eta gainera kontra. Poliki-poliki joan behar izan genuen.

Gero, hotz handia izan nuen. Marie Blanquen, adibidez, hankak ez nituen ondo, dardarka nituen egiten zuen hotzgatik.

Eguraldi beroa gustukoago duzula esan daiteke?

Ez pentsa. Euriarekin ere ondo moldatzen naizen txirrindularia naiz. Gertatzen dena da, berotu egingo zuela uste nuela; hortaz, fraka eta kamiseta motzak jantzi nituen. Baina, hotz egin zuen.

Sailkapen orokorrean, bi elgetar lehenengo hogeiren artean sartu zineten. Kasta berezikoak zarete Elgetan?

Uste dut ez dagoela beste herririk lehenengo hogeiren artean bi herritar dituenik. Ez dakit, izan daiteke, Elgetara iristeko aldapan gora egin behar delako!

Nola bizi duzue horrelako lasterketa handi bat barrutik? Txirrindulari asko, zaleak...

Parte hartzaile bezala, ondo dagoela uste dut. Txirrindulari asko gaude hasiera puntuan, baina denentzako tokia dago. Jende asko egon arren, lasai joateko aukera ematen du lasterketak.

Egia da aurreko postuetan tentsio asko egoten dela. Baina norberak bere erritmoa hartzen

du eta taldeak sortzen dira. Azken finean, pelotoi normal baten joatea bezala da.

Ikusleei dagokienez, asko animatzen dute. Aurrez bagenekien Elgetatik joandako lagunak non egongo ziren; kasu horretan, gainera, zure izenaz animatzen zaituzte. Gainera, animuak emateaz gain, ura ere ematen dute jarraitzaileek.

Afizionatu mailan txirrindulari izandakoa zara, baina gaur egun utzia duzu txirrindularitza?

Bai, 2007an utzi nuen. Orain, lan egiten dut eta bizikletan ibiltzen naiz gustuko dudalako. Gorputzak eskatu egiten dit bizikletan ibiltzea.

Ez dut egunero entrenatzen, denbora dudanean bakarrik. Uda partean egun luzeak dira eta ahal dudanean bizikletan ibiltzera irteten naiz. Neguan, ostera, zailagoa izaten da entrenatzea.

Nondik datorkizu txirrindularitzarekiko zaletasuna?

HOTZA

"Berotuko zuela uste nuen, horregatik fraka eta kamiseta motzekin atera nintzen"

PARTE-HARTZAILEAK

"Norberak bere erritmoa hartzen du. Taldeak egiten dira eta pelotoian joatea bezala izaten da"

LASTERKETAK

"Gaur egun, txirrindularitzarekiko grina nire kabuz entrenatuta asetzen dut"

Beti izan dut, umetatik. Txikia nintzanean ere herrian bizikletan ibiltzen nintzen.

Zein izan da zure ibilbidea?

Bergarako Lokatza taldean hasi nintzen, eta gazte maila arte han ibili nintzen. Gero, Debabarrena taldearekin ibili nintzen afizionatu mailan lau urtez; eta, azkeneko hiru urteak Baqué taldean egin nituen. 2007an ziklismoa uztea erabaki nuen; egia esan, urtebete lehenago hartutako erabakia izan zen.

Profesionalerara salto egitea oso zaila da, eta gutxi batzuk egiten dute, gainera.

Zeintzuk dira txirrindulari bezala bizitako une goxoenak eta latzenak?

Okena gazte mailan Arraten irabazi nuena izan daiteke. Badaude beste batzuk ere, baina hori bereziki gogoratzen dut. Txarrenak, ostera, erorikoak izaten dira. Afizionatuetan, lehenengo urtean izan nuen eroriko bat. Minik ez hartzea oso

garrantzitsua izaten da kirolari batentzat.

Txirrindulari bezala, zeintzuk dira zure alde on eta txarrak?

Ez dut uste aipatzeko moduko alderik dudarik. Ziklista bat ondo dagoenean ondo ibiltzen da beti. Egun txarra izanez gero, teoriarik zu baino atzerago daudenek pasatzen zaituzte.

Euskal Herrian txirrindularitzarekiko zaletasun handia dago. Beste toki batzuetan ere horrela da?

Bai, beste toki batzuetan ere badago. Paris-Roubaix lasterketa ikusten egon nintzen apurillean, eta han hemen baino zaletasun handiagoa dagoela esango nuke. Hemen futbolak duen indar bera du han ziklismoak.

Lasterketan parte hartzea gustatuko litzaidakeen? Egitea bai, baina ezin da egin, profesionalentzako lasterketa da.

Txirrindularitza utzi duzu; orain, lasterketan parte hartzen duzu?

Ez, ez du lasterketan parte hartzeko ohiturarik. Urte askoan ibili naiz txirrindularitzan, eta orain, txirrindularitzarekiko gogoia nire kabuz entrenatuta asetzen dut.

Quebrantahuesos lasterketan parte hartzen dudana bigarren aldia da. Elgetako lagunek animatu ninduten, eta parte hartzea erabaki nuen.

Datorren urtean berriro ikusiko zaitugu?

Ahaleginduko naiz aurtengo denbora hobetzen.



Elgetarra da Xabier Aranguren; Quebrantahuesos lasterketan 15. tokian sailkatu zen.

PEDAGOGIA NOLA HEZI BALOREETAN

Umeak errespetua izango du errespetua ikusten badu

Gurasoendako ez ezik, heziketan jarduten dutenendako ere kezka da nola hezi baloreetan

Garrantzia du zehazteak zein balore garatu gura diren haur eta gazteengan

OIHANA ELORTZA > ARRASATE
Umeak hezi eta, ahal dela, ondo hezi, baloreetan oinarrituta hezi. Horixe da guraso askoren kezka nagusia, eta baita heziketa jardunean ari diren profesionalena ere, Nerea Agirre pedagoak *Guraso.com* atarian idatzi duen artikulua arabera. "Pedagogia-

ren ikuspuntutik, baloreak helburu eta jokatzeko irizpideekin estuki lotuta" daudela dio berak.

BALOREAK IKASI EGITEN DIRA
Nerea Agirrereren ustez, neoliberalismoaren eraginez, kapitalismoak balore asko globalizatzen ditu eta bi aukera daude: horiek

onartu edo alternatibak bilatu. Horregatik, Agirrek uste du garrantzitsua dela definitzea zein balore garatu gura ditugun haur eta gazteengan. "Helburua nor bere buruaren jabe izatea bada, autonomia eta ardura dira baloreak; inguratzen duenarekiko sentikorra izatea lortu gura bada, errespetua eta elkartasuna garatu behar dira; helburua bada partehartzeko, hobetzeko eta aldatzeko gai izatea, baloreak jakinmina eta elkarlanerako gaitasuna dira", dio Agirre pedagogak.

"Haurrak errespetuz jokatu behar duela esatearekin ez da hori bermatzen. Haurrak ikusi

behar du ingurukoak ere errespetuz jokatzeko duela. Baloreak ezin dira irakatsi, elkarrekin ikasten dira. Hortxe ikusten da lotura duten pertsonen arteko harreman afektiboen garrantzia. Zeregin horretan komunikazio horizontala, adierazteko eta entzuteko jarrera giltzarri izango dira", zehaztu du.

ZENBAIT URRATS

Ahalegina hutsean ez gelditzeko, Agirrek aholkatzen du: hausnarketarako denbora hartzea, baloreen garrantzian sinistea eta eguneroko funtzionamenduan txertatzea, adibidez.



Hiru ume jostailuekin elkarrekin jolasten.

GOIENKARIA

> ZURRUNGA

Umeen %10ek zurrunga egiten dute sarritan

Umeen %10ek zurrunga sarritan egiten dutela esan du Espainiako Pediatren Elkarrekin Zaragozan egin duen kongresuan. Joera horrek hiru ondorio hauek izan ditzakeela ere esan dute hil honen hasieran egindako kongresu horretan: kontzentrazio eta memoria arazoak, hiperaktiboak izateko aukera handiagoa eta loaren apnea izateko arriskua.

Kongresuan emandako datuen arabera, umeen %10ek zurrunga egiten dute sarritan, batez ere 22 hilabete aurrera, nahiz eta maiztasuna jaitsi egiten den bederatzi urtetik aurrera. Ume batek zurrunga egiten duela esaten da astean, gutxienez, hirutan egiten duenean eta ez denean hozturagatik. Zurrungaren zergatiari erreparatu ondorioztatu dute zurrunga maizago egiten dutela gehiegizko pisua duten umeek. Horren aurrean, elikadura eta bizimodu osasungarria egiteko aholkua eman dute. Umeak zurrunga eginez gero, horren berri pediatrari emateko gomendioa ere egin dute.

> AISIALDIA

Lagunekin ematen dute aisialdia Euskadiko gazteek

Gazteen Euskal Behatokiak egindako ikerketak dio 15 eta 29 urte arteko gazteen ia erdiak lanegunetan lau ordu libre baino gehiago dituela eta aisia jarduerarik ohikoena lagunekin edo bikotekidearekin egotea dela. Gainerako jarduerak aldatzen dira: lanegunetan, telebista ikusi eta musika entzuten dute; aste-buruetan, tabernetan ibili.

aholkuen txokoa

Zer egin onddoak agertzean?



ATLETA OINA

- > Batez ere adineko pertsonetan. Azkura da zeinu nagusia, oineko tolesetan edo zolan, batez ere. Azala ezkatatu egiten da, pitzadurak agertzeraino.
- > Leku hezeetan kutsatzen da, jende ugari dabilen tokietan, igerileku edo gimnasioetan, adibidez.
- > Prebenitzeko: aldatu oinetakoak maiz udan eta ez ibili oinutsik igerileku eta dutxa publikoetan.
- > Tratamendua: oso zabaldua ez badago, nahikoa da egunean bizpahiru aldiz krema ematea.

EZKABIA

- > Edozein gorputz ataletan ager daiteke, baina batez ere iletarruan. Azkura ematen duten plaka biribil eta gorrituak dira.
- > Etxeko animaliekin kutsatzen da, batez ere katuekin.
- > Prebenitzeko: saihestu aipatutako animaliekin harreman estuak edo luzeak edukitzea. Oinetan izateko joera izanez gero, onddoen kontrako hautsen bat bota dutxatu ostean.
- > Tratamendua: onddoen kontrako botika bat (antifungikoa) bi astetan.

INTERTRIGOA

- > Pertsona gizenetan agertzen da batez ere. Besapetan, izterretan, bularren inguruan... Azkura, inflamazioa eta erresumina.
- > Izerdia da arrisku faktore nagusia. Baita urarekin nahiz xaboi edo detergenteekin etengabeko harremana edukitzea ere.
- > Prebenitzeko: erabili eskularruak edo guanteak uretik eta produktuetatik babesteko. Jaitsi pisua, maila normalera itzuliz.
- > Tratamendua: onddoen kontrako botika, azala lehor edukitzeko.

BAGINAKO KANDIDIASIA

- > Emakumeen %10-40ak izaten dituzte. Azkura eta inflamazioa baginan eta aluan, eta baginako jario ezohikoak.
- > Bagina ingurua aldatzen duten botiken eraginez, karbohidratoetan aberatsa den janariak edo barruko arropa sintetiko eta estuz kutsa daiteke.
- > Prebenitzeko: lehortu ondo genitalen aldea, erabili xaboi neutroak eta saihestu zuntz artifizialeko barruko arropak.
- > Tratamendua: antifungiko bereziak erabiltzen dira.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, zatoz gure webgunera



guraso.com

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **3.60-REN AGURRA**
Dozenatik gora musika taldek egin zioten agurra Arrasateko kontzertu aretoari > 30



> **MANU DIAZ**
Bergara futbol taldeko entrenatzailearekin izan gara bera hobeto ezagutzeko > 32



> **MARKOS ZAPIAIN**
Telebistan hain ezagun egin den Irungo irakasle eta pentsalariari elkarriketa > 40



San Martinen hasi eta herriko kaleak zeharkatuz, herriko plazan amaitu zuten manifestazioa.

JOSETXO ARANTZABAL

Aldarrikapena, musika, jaia eta parranda, V. Gazteburuan

V. Gazteburua ospatu dute Oñatin, aurreko urteetako arrakasta gaindituz

Kontzertuak, bazkaria, manifestazioa, erromeria... askotariko ekintzak izan dira

MIREN ARREGI > OÑATI

Oñatiko bosgarren Gazteburua indartsu etorri da; indartsu eta sasoi onean dagoela erakutsiz. Bosgarren honek, gainera, izan du berezitasunik: hain justu, joan den irailetik, Oñatiko Gazte Asanbladak badu non elkartu, eta elkar-gune hori San Martineko gaztetxea da. Aurten, bada, lehenengoz, Gazteburuaren baitan antolatu dituzten ekitaldi guztiak ez dira plaza-ko frontoian egin. Hain zuzen ere, aurreko urteetan plazan egin den bazkaria, aurten, gaztetxean bertan egin dute. Menua, honakoa: entsalada, arroza eta dilistak; eta postrean, sandiak, meloiak, eta platanak. Edatekorik ere ez zen falta izan. Sagardoarekin aurre egin zioten bazkaritara joandakoek zapatuko sargoriari.

Miren, Agur eta Gorkaren eskutik iritsi zen erromeria. Gortutza mugitzeko balio izan zuen

behintzat, ziur batek baino gehiagok lo ere hartuko zuela-eta bazkalosteko berotan. Horren ostean, urtero moduan, kaleetan barrena, manifestazioa; jaia eta

aldarrikapena, beraz, biak bat. San Martinetik plazarainoko bide horretan, Udaletxearen eta alkatearen kontrako oihuak ere izan ziren. "Orain gura ditugun ekintzak egiteko tokia dugu, baina Udalarekin ez dugu inolako harremanik gura" adierazi zuten antolatzaileek ondoren.

KONTZERTUAK, ARDATZ

Egubakoitzean hasita, musikak ez du etenik izan domeka goizaldera arte. *Oñati Bizirik* (Oñatiko bost talderen abestiez osatua) dela-

ko bigarren diskoaren aurkezpenarekin hasi ziren; eta zapatuan iritsi zen indartsuena. Oñatiko hiru talde -Show Business, Asfiksia eta Drakes- igo ziren agertokira. Ongi aritu ziren, gainera, eta jendeak ere ongi erantzun zuen. Ondorengoa izan zen, baina, gogorrena. Erriberako Piperrak eskenatokira igo zenean bete zen frontoia. Euren ohiko punk doinuekin, bertaratuak saltoka ipintzea lortu zuten: *Mi primer amor*, *Gora Sartaguda*, *Demokrazia...* eta beste hainbat jo zituzten.

Azkenik, Mexikora bidaiatzeko aukera eskaini zuten Inpekables taldekoek. Abesti ia guztietan maitasunari erreferentzia eginenez, eta poetarik handienaren moduan, dantzan ipini zituen oñatiar gazteak. Ikusleen ekarpenak ere egon ziren, eta hartueman polita sortu zen ikusleen eta taldekideen artean.

Nabarmentzekoa da, baita ere, euskal presoekiko eta dispertsioaren eragina jasaten dutenekiko talde horiek biek erakutsi zuten elkartasuna.



Oñatiko Show Businesssek kontzertu indartsua egin zuen.

JOSETXO ARANTZABAL



Inpekables taldekoek Mexikoko doinuek gogora ekarri zituzten.

MIREN ARREGI



Iruñeako Bizardunak taldeak folk erradikala errebindikatzen du; Arrasatekoa, euren estreinaldia izan zen.



Iñigo poxpoloa esku-soinuarekin.



Abeslariak ez dira falta Bizardunak-en.

ARGAZKIAK: JOSETXO ARANTZABAL

MUSIKA > 3.60 KONTZERTU ARETOAREN AGURRA

Bost urtetakoa, laburtu ezinean

NON: Arrasaten, 3.60 aretoan.**EGUNA:** Egubakoitza eta zapatua.**ZENBAT TALDE:** 13 musika talde.**IRAUPENA:** 16 ordu, bi egunetan.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Dagoeneko bost urte pasa dira 3.60 aretoa abiarazi zutenetik. Ardura hori izan duen taldeak erakutsi du areto txiki bat izan arren, lan handia eginez posible dela talde asko eta interesgarriak Arrasatera ekartzea. Eta

zeregin hori utzi, eta beste batzuei lekukoa utzi dieten agurreko jaialdian ere askotako taldeak, lagunak, izan ziren.

Egubakoitza lasaia izan zen: Arrasateko Anger eta Gose igo ziren agertokira. Lehena ikus-teko aukera gutxi izaten da eta mota askotako eraginak dituen rocka egin zuten, tarteka metalarekin mugan egoten dena. Are gehiago, kantu berriak jo zituzten. Gose taldekoek ere erakutsi zuten taula handiak dituztela; eta atzerrian ibili arren, etxe-

an, giro onean, kontzertu boro-bilak ematen dituztela. Txukinak oso, bien emanaldiak.

ARRATSALDEAN, HARROBIA

16:00ak pasatuta igo zen eguneko talde jendetsuena agertokira: Iruñeako Bizardunak taldearen estreinaldia izan zen. Mila batailatzen ibilitako zortzi musikaririk euskal izaera iraultzailea (Santakruz apaiza, auresku elektronikoak...) eta Irlandako folka bat egin dituzte, hitz oso irudimentsu eta sarkastikoekin. Emango dute zeresana, ziur!

Pettik eta Lobo Electricok, biek, kale egin zuten, baina izan ziren beste asko: Surfin Kaos punk-rock talde donostiarra jaialdirako elkartu zen espreski; Arrasateko Los Cretinosek rock-and-roll gordina eskaini zuen Amaia teklatu jotzailearen laguntzarekin; Bitter Honeyko arrasatearrek Black Sabbathen arropak (eta biboteak) jantzi eta emanaldi-omenaldi itzela egin zuten. Bestalde, Jukeboxekoek (Arrasatekoa ere bai) ere hainbat bertsiok egin zituzten, batez ere Dictators taldearenak. Herriko harrobiarekin jarraituta, Los Galerna gazteak erakutsi zuen surf eta rock-and-rolla abestu barik, instrumentala izanda, ere erakargarria izan daitekeela.

GAUEAN, GOGORRENA

Lehenengo round-aren ostean, parrillada egin zuten; eta jarraian, 15 urte luzetan hilda egon den Teen Dogs talde donostiarra berpiztu zuten: NCCKo Eneko, Lobo Electricoko Guantxe, Señor Noko Mikel... punk-rock azkarra eta bizia egiten; oso ondo, eta opari moduan, Eskorbutoaren *Nos engan* kantua.

Hurrena Señor No izan zen. Donostiako talde beteteranoa zapal-



Gose taldeko Osoron eta Ines 3.60 aretoan, etxean moduan.



Señor No taldeko Xabik izugarri bizi du musika.

gailua da eta hala aritu zen oraingoan ere, inor preso hartu barik, high-energy eta punk-rockarekin edozeinen gainetik pasatuta. Roy Loneyrekin egindako biraren ostean, puntuan daudela erakutsi zuten.

Listoia altu utzi zuten arren, Nuevo Catecismo Catolicoko anaia donostiarrei ere agertokia txiki gelditu zitzaizen: punka eta rocka batuta, eresi asko eskaini zituzten, eta jendearen harrera

oso ona izan zen, kantuan, dantzatan eta elkarri bultzaka.

Horren ostean, Never Surrender taldearen punk-Oi!-a; eta jarraian, Gasteizko Obligationes-en rock makarra. Kaleko hitzak eta rock indartsua dira taldearen oinarriak, eta emanaldia hunkigarria izan zen, gonbidatu eta guzti: Xabi Señor No, MCDko Tonino eta beste. Eskerrik asko 3.60an egindako lanagatik eta zorte on, etapa berrian!

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

MGEP 2009-2010 **eteo**

MONDRAGON GOI ESCOLA POLITEKNIKOAK ETEO, KOOP. E.

Izenematea
Ekainaren 1etik 12ra
Matrikulazioa
Ekainaren 29tik uztailaren 3ra

Lanerako gertu!
ESKAINITZA AKADEMIKOAK

MGEP	ETEO
<ul style="list-style-type: none"> • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak • Informatika Sistemen Administrazioa • Proiektu Mekanikoen Garapena • Mekanizazio Bidezko Produkzioa • Industri Ekipoaren Mantenimendua 	<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa eta Finantzak • Idazkaritza • Merkataritza Kudeaketa eta Marketign

Uztailaren 13a arte

 **carrefour**
GORBEIA

Eraman hiru, ordaindu bi!

3x2

Carrefour
Oilasko estra garbia
(Bandeja unitate 1)
Kiloa

3x2
3 erosita,
Kiloa

Bandeja 1 erosita,
Kiloa

2,28€

1,52€



Oliba bakarreko Carrefour
oliba-olio birjina estra
Hojiblanca, Picual, fruta
zaporedun Picual edo
Arbequina, Litro 1

3x2

Botila

Botila 1 erosita
3,19€

2,13€



FONT VELLA ura
2 Litro
4 unitateko pack-a

Pack 1 erosita
2,60€
litroa 0,33€

3x2

Pack-a
1,73€
litroa 0,22€



CRESTA ROSA edo
BLANC PESCADOR
ardo txinpartaduna
75 cl

Botila 1 erosita
3,48€
litroa 4,64€

3x2

Botila
2,32€
litroa 3,09€

Konbina itzazu
Nahi duzun eran!

Konbina itzazu
Nahi duzun eran!



Konbina itzazu
Nahi duzun eran!

MAGNUM Mini
izozkiak
6 unitateko pack-a

Pack 1 erosita
3,39€
Unitatea 0,57€

3x2

Pack-a
2,26€
Unitatea 0,38€



LA GULA DEL NORTE
Gula Freskoak
200 g

Unitate 1 erosita
5,20€
Kiloa 26€

3x2

Unitatea
3,47€
Kiloa 17,35€



Prezio hauek Carrefour GORBEI Arako bakarrik balio dute

ASTE BUKAERA...

Manu Diazekin

Manu Diaz egunkaria irakurtzen Bergarako terraza batean.

JOSETXO ARANTZABAL

"Domekatan kirola egin ondoren egunkaria lasai irakurtzea atsegin dut"

Manu Diaz bergararra abokatua da eta Bergara futbol taldeko entrenatzailea

Liga bukatu eta preferente mailarako igoera lortuta, futbol kontuekin zerikusia ez duten gauzak egiten ditu aste bukaeratan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Manu Diaz (Bergara, 1965) saltsa askotan sartuta dago. Gehiendako Bergara futbol taldeko entrenatzailea da, eta preferente mailarako igoera lortu du. Baina abokatua ere bada, eta horixe du lanbide. Era berean, musika atsegin du abesteko eta kantuetarako letrak idazteko. "Egia esan, letrak oso noizbehinka idazten ditut. Gustatzen zait, baina ez naiz buru-belarri ibiltzen horretan". Egindako azken lana Bergarako Musika Eskolaren 25. urteurrenko abestiari letra jarzea izan da.

ABOKATU BULEGOA

Urte askotan enpresetan lan egin ondoren, abokatu bulegoa jarzea erabaki zuen Manu Diazek. "Aspaldiko ametsa zen eta bete dut. Egia da, ez dela garairik onena negoziok zabaltzeko. Baina egia da, baita ere, krisi egoeratan abokatuok lan gehiago izaten dugula. Oraingoz ezin naiz kexatu", dio.

Abokatu lanarengatik bidaia asko egiten ditu, eta etxetik kanpo ordu asko egiten ditu. Horregatik guztiagatik, familiarekin

egotea atsegin du denbora duenean. "Mariñe eta Josu seme-alabekin eta emaztearekin egoten naiz ahal dudan guztietan. Orain, futbol denboraldia bukatu denez aste bukaerak elkarrekin antolatzen ditugu".

ASTEKO ENTRENAMENDUAK

Irailetik maiatzera futbolak kentzen dizkio ordu asko. Asteazken zehar entrenamenduak antola-

tzeko eta aste bukaeratan partiduetara joateko. Baina, bietarako laguntza duela esan digu: "Asteko entrenamenduetan Igor Fernandez eta Unai Bilbaoren laguntza izaten dut; eta aste bukaeratan etxekoek ez didate arazorik ipintzen". Esan digu etxean ez dutela futbolaz berba egiten, eta ez duela futbolik ikusten telebistan: "Denboraldian buru-belarri nabilenean, ez daukat denbo-

rarik beste talde batzuek ikusteko. Baina joko ona egiten duten taldeak atsegin ditut, eta Barça ikustea oso atsegina izan da".

Etxekoekin asko bidaiatzen duen horietakoa da. Abuzturako planak egin dituzte dagoeneko: "Urte askotan ibili gara Europatik bueltan; besteak beste, Danimarkan, Norvegian eta Holandan ibili gara, baina aurrean hondartzara joango gara Kanariar Uhartetara".

KIROLA ETA MIGUEL BOSE

Futbol liga bukatu ondoreneko aste bukaeratan disfrutatzen du gehien. Tensioak alde batera utzita, kirola egitea gustatzen zaio. "Futbolik gabeko aste bukaeratan dudan ohitura da, domeka goizetan kirola egin, dutxatu eta herriko edozein tabernatan kafea hartu eta egunkaria irakurri. Plazer bat da hori egitea".

Musika atsegin du. Aritzeta Abesbatzako eta Bergarako Orfeoiko kide izan da. Estilo guztiak gustatzen zaizkio eta kontzertuetara joaten da. "Emaztearekin eta alabarekin Miguel Bose ikusten egon nintzen. Amaralari zuzenean ere egon nintzen".


"'Miserableak' musikalean parte hartu genuen emazteak, alabak eta hirurok"

15 urte geroago eta Bergarako Musika Eskolaren 25. urteurrena aitzakia hartuta, *Miserableak* ikuskizuna interpretatu zuten martxoaren 14an. Victor Hugo idazle handiaren *Les Misérables* (1862) eleberraren egokitzapena da *Miserableak* eta aldaketaren bat ezik, 1994ko estreinaldiaren bertsio bera interpretatu zuten. Bergara asko igo ziren taula gainera, tartean Manu Diaz, eta bere alaba eta emaztea. "Emozioz beteriko eguna izan zen. Hantxe geunden hirurok: Mariñe alaba eta ni kantuan eta aktore lanak egiten, eta Agurne emaztea tramoiarekin ibili zen eszenatokiak aldatzen". Ikuskizun paregabea eskaini zuten, eta Hondarribian ere emanaldia egin zuten. Musikalaren etorkizunaz galdetu diogu: "Orain dagoen arazo nagusia diru falta da. *Miserableak* bezalako ikuskizuna kontratatzeko diru asko behar da, eta udalek eta erakundeek ez dute dirurik".

Berriz ere.

GOIENKARIA da hedabide irakurriena Debagoiengan, berriz ere.
CIESen 2009ko lehen neurketak horixe dio.
Zuk eta beste 36.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero.
Gipuzkoa osoan, 44.000 lagunek.
Eskerrik asko irakurleoi eta publizitatea jartzen duzuen guztioi.

Goienkaria



iragarkilaburrak.com

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Iaz 423.000 euroan tasatutako etxea, lorategiarekin, orain 300.000 euroan salgai. 625-13 12 59

Aretxabaleta. Eraikitzen ari den duplexa salgai. Bitartekorik gabe. Prezio negoziagarria. 626-60 11 07

Arrasate. 65 metro koadroko etxe berriua, 3 logela (1 jantzia), egongela, sukalde jantzia eta bainugela. Oso argitsua, den dena kanpokaldera begira, bizitzera sartzeko prest. Oso ondo kokatua. Nafarroa etorbidean. Prezio ezinhobeia: 275 milioi pezeta. 695 78 32 93

Azpetitia. Loiolabiden etxe ederra salgai. 3 gela eta egongela handia dena balkoira artearekin, 2 balkoi, 2 komun eta sukaldia trasteroarekin. Igo-gailua eta berogailua ditu eta teilatuan terraza komunitarioa ere bai. Prezioa jaitsi dugu, 360.000 euro garajearekin. Telefonoa: 658-74 49 02

Bergara. Etxebizitza salgai erdialdean. Sukaldea, egongela, bi logela, bainugela eta trasteleku. 169.900 euro. Oso aukera ona. 618 44 38 44

Bilbo. Alde Zaharreko metrotik 7 minutura, Solokoetxe ingurune lasaian. Guztiz berriztatuta. Bizitzera sartzeko moduko. 74 m². 4 gela, sukalde eta komun zaharberriak, gas naturaldun berogailu indibiduala, igogailu berria, trasteleku handia eta garaje plaza bat alokairuan aukeran. 94-415 67 49. Telefonoa: 656-77 20 50. Posta: inakipb@euskalnet.net.

Etxarri Aranatz. Pisu eraiki berria salgai (Etxarri Aranazen. 2 logela, 2 komun, trasteleku, garajea eta ikuspegiak. Interesatuak deitu 943-69 71 96 telefonora.

La Mongie. Apartamentua salgai La Mongien, eski pistetan bertan. Logela literekin, komu-

na, bainugela, egongela-sukaldea sofa-oharekin eta balkoia pistetara begira. Aparkaleku eta trasteleku ere badu. Hegoaldera orientatua. 629 32 84 53

Oñati. Etxebizitza salgai Bidebarrieta kalean. 2002ko eraikina. Bi logela, sukaldea, bainua eta egongela. Guztira 68 metro koadro. Gainera 10 metroko terraza toldoarekin etxebizitzaren atzealdean. 20 metroko garaje itxia. 617-20 60 06

Oñati. 76 metro koadroko etxebizitza salgai. Berritua. Dena kanpokaldera begira. Trasteleku eta garajea. 679-17 48 36

Oñati. Etxebizitza jantzia salgai Olakuan. Hiru logela, bi bainugela, sukalde berri eta jantzia, jangela eta garajea. 943 53 36 74 edo 635 06 24 79

Oñati. 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. 6 urteko eraikin berria, igogailuarekin. Bi logela, sukalde, egongela, komuna eta trasteleku, argi patioan. Telefonoa: 652-70 12 49

Oñati. Kale-kalean eta estreinatze dagoen apartamentua salgai. Bi logelakoa. Garaje itxia aukeran. 39.500.000 pezeta. 665-71 42 69

Ordizia. Etxea salgai Ordizian. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna. Guztiz berritua eta hornitua. Dena kanpora begira. 56 metro koadro. Deitu: 635-71 02 25.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Hilean 600 euroatik, guztiz jantzitako apartamentu berria ematen da errentan Bizkaia etorbideko 2an. Pertsona batendako edo bierendako egokia. 636-68 28 26

Arrasate. Duplex polita ematen da errentan, erdigunean. Jantzia eta egoera oso onean. Bi autorentzako garajearekin. Ikasleek ez deitu. Rakel. Telefonoa: 629-46 93 91

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat Jokin

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com
http://www.goiena.net/sailkatuak

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zaitegi plazan. Hiru logela, bi bainugela eta egongela. Arratsaldez deitu mesede. 646-68 05 86

Donostia. Donostian, Amara auzoan, Antso Jakitunaren etorbidean, pisu konpartitu batean, gela bat alokatzen da emakume eskaldun batentzat. Gela argitsua, telebista edukitzeko aukerarekin. Deitu arratsaldetan edo utzi mezua 943-11 10 88 telefono zenbakian.

Etxarri Aranatz. Pisu alokatzen da Etxarri Aranazen. Interesatuak deitu 607-31 76 67 telefonora.

Jaca. Apartamentua ematen da errentan erdigunean, abuzturako. Kirol gunea, igerileku, jacuzzi, sauna, paddle leku eta squasharekin. 609 47 86 91

Noja. Etxebizitza errentan. Golf zelaiaren ondoan. Bi logela, bi bainugela, sukaldea, egongela, terraza eta garaje itxia. Urbanizazio pribatua, igerileku. 635-75 35 29

Ondarroa. Etxe berritua eta hornitua alokatzen da. Prezioa: 550 euro. Informazio gehiago 665-71 99 53 telefonon.

Peñiscola. Peñiscolan, 7 pertsonentzako egokitua dagoen apartamentua alokatzen da. Hondartzak aurre-aurrean, balkoia, igogailua, aparkaleku eta bi igerileku. Informazio gehiagorako deitu 696-60 25 27 telefono zenbakira.

Zarautz. Estudio bat alokatzen

dut egonaldi motzak pasatzeko, asteburuak, asteak, hamabostaldia. Sukaldea guztiz hornitua du, egongela txiki bat, logela bat eta bainu bat ditu. Dena berri-berria. 450 euro asteko. Harremanetarako deitu: 628-20 30 37 telefono zenbakira.

Zumaia. Etxe bat alokatzen dute Zumaian, abuztuaren eta irailean. Interesa duenak deitu 605-74 69 49 telefonora.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan Aretxabaletan. 669-92 62 12 edo 669-92 62 12

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da. 669-12 70 98

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 610-91 33 40

Bergara. Etxebizitza txikia errentan hartuko luke familia batek. 649-63 23 24 edo 696-38 10 07

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke erdialdean. 658-77 90 46

Bergara. Pertsona batendako etxebizitza txikia errentan hartuko nuke. 653-38 56 12

Bergara-Aranatz. Logela errentan hartuko nuke. 658-77 90 46

Debagoiena. Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergara, Antzuola, Oñati, Arrasate edo Osintxun. 645-72 92 87

Debagoiena. Ikastera datozen Erasmus ikasleentzako gelak behar dira Debagoienean irailaren hasieratik abenduaren amaiera arte. 656-77 66 32

Etxarri Aranatz. Alokatzeko pisu baten bila nabil Etxarri Aranazen edo inguruetan. Deitu 667-69 75 40 telefonora.

Goierri. Beasainen edo Ordizian pisua edo baserria errentan hartuko nahi duen bikotea gara. Deitu: 665-71 57 71.

Iruñea. Iruñeko Arrosadia inguruan pisu bila gabiltzan bi sakan-dar gara. Interesatuak deitu 680-56 97 08 edo 658-80 34 07 telefonotara.

Lekeitio. Lekeitio urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil. 1 edo 2 logela. Telefonoa: 658-70 19 53.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Erdialdean gela alokagai. 616-75 41 30

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan. 620-60 54 14

Arrasate. Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu. Eguzkitsua eta wi-fiarekin. Uztailean sartzeko. 677-98 59 14

Arrasate. Pertsona batendako logela ematen da errentan. 636-91 93 81

Arrasate. Logela ematen da errentan San Andresen, igogailu eta garajearekin. Pertsona arduratsua behar da, bertan bizi den pertsonarekin arduratu beharko du eta. Presazkoa da. 672-20 36 82

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrentzat. 666-21 88 95

Arrasate. Arrasatear batek logela bat ematen du errentan. 675-71 57 03

Arrasate. Logela alokatuko nuke, ahal bada jende eskaldun, gazte eta langilearekin. Ekaineko lehen astetik sartzeko. 608-57 97 70

Arrasate. Logela ematen da errentan Olarte kalean, sukaldia erabilzeko eskubidearekin. 618-00 08 28

Arrasate. Gela bat ematen da errentan. Hiru gela, saloia, komun bi eta sukaldia. Etxe argitsua. 670-04 27 41

Arrasate. Pertsona bat behar dugu beste hirurekin etxebizitza osatzeko. 670-59 73 62

Arrasate. Gela ematen da errentan unibertsitate ondoan. Kanpokaldera, gas naturala, eta lasaia. 630-71 35 83

Arrasate. Logela ematen da errentan. 699-66 33 63

Arrasate. Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitate gertu. 699-28 99 06

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean, sukaldia eskubidearekin. Pertsona bakarrentzat. 618-14 71 34

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Udaletxe ondoan. Sukalde handia, igogailua eta terraza dotorea. Deitu 688-64 10 13 edo 620-72 27 30 telefono zenbakietara.

Arrasate. Etxebizitza osatzeko bi lagun beharra duen norbaiten bila gabilza Arrasaten. Ahal izanez gero jende eskalduna izatea gustatuko litzaizuke. tower_91@hotmail.com

Bergara. Logela hartuko nuke errentan Bergaran. Telefonoa: 690-97 44 32

Bergara. Logela ematen da errentan Bolun, sukaldia erabilzeko aukerarekin. 250 euro. 670-85 86 68

Bergara. Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. Telefonoa: 628-45 10 37

Bergara. Logela bikoitza ematen da errentan, bi lagunendako. Erdialdean. 649-63 23 24 edo 696-38 10 07

Debagoiena. Debagoiena Ikastera datozen Erasmus ikasleentzako gelak behar dira Debagoienean irailaren hasieratik abenduaren amaiera arte. 656-77 66 32

Donostia. Amaran ikasle pisu bat osatzeko bi nesken bila nabil. Ni 22 urteko neska bat naiz, psikologiako ikaslea. 09/10 ikas-turterako, irailaren azken astean gutxi gorabehera sartu eta ekainaren 30 arte.

Donostia. Antigua auzoan etxea osatzeko ikasle baten bila gabil-tza. Errenta: 240 euro inguru. 685-70 17 09

Donostia. Gela 65 urteko emakume bati (irekia eta modernoa) konpainia egitearen truke. Ezin hobeki kokatutako etxe ederren. Ez dira etxeok lanekin behar konpainia baino ez. san-sebastian70@yahoo.es (669-96 23 55)

Donostia. 50 urteko emakumea, 12 urteko semearekin, eskaintzen da pisu konpartituzko Donostia inguruan, konpainia eta etxeok lanekin laguntzaren truke. Gaztekeraz hitz egiten dut, baina nire semeak euskasradakadi.

Eskoriatza. Bi lagun behar dira 25 urteko neska eskoriatzar batekin etxea osatzeko, irailetik aurrera. Etxeak lau logela, komuna, sukaldia, egongela eta balkoia ditu. Lehen solairua da eta erdialdean dago. Egoera onean dago, gasa dauka eta Euskalteko konexioa, nahi bada. Nik txakurra daukat. Deitu ezazue telefono honetara: 606-74 42 37

Eskoriatza. Eskoriatzan pisua hartu dugun bi neska gara eta beste bi pisukideren bila gabil-tza. Irailetik ekainera. 685-76 03 17 edo 688-69 23 17.

Gasteiz. Pisu bila nabil Gasteizen, ahal bada uztailean sartzeko. 25 urteko mutila naiz.

Gasteiz. Bi pertsona behar dira pisua osatzeko Gasteizen, irailetik aurrera. Alde zaharrean dago, 207 euro berogailua barne. Etxe handia. Ikasurte erdia logela bakarra eta beste erdia konpartitua.

2/ GARAJEAK

203. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Garajea hartuko nuke errentan. Deitu ezazue telefono honetara: 656-71 31 71

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Londres. Familia eskaldun batek *au pair* bat behar du Londresen, irailetik aurrera. Interesatuok bidali mezua helbide honetara: mirenlondon@hotmail.com

Ormaiztegui. Ormaiztegin etxeok garbiketarako emakumea behar da. 619-41 97 10.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. 40 urtetik gorako neska eskalduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. 943-79 54 21

Arrasate. Emakumea gertu emeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeok lanak egiteko. 663-65 78 43

Arrasate. Emakumea gertu emeak zaintzeko. Orduka edo etxean lo egiteko prest. 663-65 78 43

Arrasate. Emakumea gertu nagusi zein emeak zaintzeko eta baita etxeok garbiketarako egiteko ere. Mari. 649-30 13 60

Arrasate. Emakume eskalduna lanerako gertu. 659-82 75 18.

Arrasate. Garbiketa lanak edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizitzeko gertu nago. 618-14 71 34

Arrasate. Ile apaintzaile laguntzaile eskaintzen da ilea moztu eta tinteak emateko. 666-20 06 03

Arrasate. Emakumea gertu emeak zein nagusiak zaintzeko. Mari. 649-30 13 60

Arrasate. Neska eskalduna prest nagusiak zaindu eta etxeak zein atariak garbitzeko. 679-92 49 34

Arrasate. Neska gazte eta esperientziaduna prest arratsaldean lana egiteko astelehentik igandera, berdin etxeak garbitzen edo haur eta helduak zaintzen. 688-64 10 13 edo 620-72 27 30

inmobiliaria
Etxebila
Felipe IV etorbidea 4. DONOSTIA
Tel.: 943 44 61 66

IKASLEENTZAKO ALOKAIURUAK

AMARA 4 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 950€
AMARA 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. 1.000€
AIETE 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Oso polita. 800€
ALDE ZAHARRA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 750€

ALOKAIURUAN

GROS 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Igogailua. 1100€

SALMENTAN

AMARA 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Berritua. 41.500.000
AMARA Apartamentu polita altua. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Argitsua. 39.900.000
AMARA 2 logela, egongela 25m², sukaldea, bainugela. Terraza. 46.500.000
AMARA Madrid etorb. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Altua. 54.500.000
AMARA Hasieran. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 47.900.000
AMARA Hasieran. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 55.000.000
GROS 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trasteroa. Bista politik. Sartzeko. 49.000.000
GROS Apartamentu polita. Logela-egongela, sukaldea, bainugela. 40.000.000
GROS Hondartzatik 2 minutura. Apartamentu oso polita. Argitsua. 56.500.000
ZENTROA Kontxatik 5 minututara 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 59.950.000
EGIA 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. Igogailua. 46.500.000
INTXAURRONGO 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. Trastaleku. 42.900.000
ALTA 75m². 3 logela, egongela-sukaldea, bainugela. Berogailua. 29.900.000
MARTUTENE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Dena kanpora begira. 27.500.000
LOIOLA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 24.900.000
LOIOLA 70m². 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 33.000.000
LEZO Baseri-etea. 4 logela. 200m² terrenoa. Eguzkitsua. 46.500.000
ASTIGARRAGA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 31.300.000
PASAI DONIBANE Duplex polita. 100m². Balkoia. Terraza. 34.900.000
PASAI DONIBANE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Polita 25.990.000

Deba. Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Telefono zenbakia 665-74 18 66. Marian.

Debagoiena. Garbiketarako egin edo nagusiak zainduko nituzke, orduka. 679-06 12 99

Debagoiena. Zerbitzari lanetan, jantokian eta sukaldari lanetan esperientzia duen pertsona prest lanean hasteko (erreferentzia onak). Telefonoa: 669-78 20 78

Debagoiena. Arrasate edo Bergara. Mutila gertu edozein lan egiteko. Nagusiak zaintzen esperientzia daukat. 685-70 76 25

Debagoiena. Sukalde laguntzailer, nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egingo nituzke. Eli Cerezo. 630-20 12 03

Debagoiena. Uztailean umeak zainduko prest dago neska arduratsua eta euskalduna. Leire. 617-90 55 82

Debagoiena. Mutila gertu zerbitzari lanetarako. Egunean bost ordutik. Orduetegi mailgua. 943-71 21 15edo 679-58 41 92

Debagoiena. Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzailer edo nagusiak zaintzen lan egiteko. 672-25 92 20

Debagoiena. Umeak edo nagusiak zainduko nituzke, uztailean, goizez. Etxeko garbitasunak ere egiteko gertu. 943-79 96 25 edo 647-10 58 72

Debagoiena. Emakume gertu etxeko lanak egiteko eta umeak zain nagusiak zaintzeko. 677-81 10 00

Debagoiena. Bigarren mailako ofiziala lanerako gertu. Esperientzia handia. 610-63 17 71

Debagoiena. 30 urteko neska gertu garbiketa eta etxeko lanak egiteko. Orduka, goizez, arrasalde zain asteburutan. Alejandra. 608-34 36 11

Debagoiena. Erizaintzako laguntzailer ikasten ari den neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. 612-18 07 44

Debagoiena. Emakume lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketarako lanetan jarduteko prest. 680-67 74 96

Debagoiena. Emakume gertu garbiketarako egiteko. 5 euro ordua. 669-53 02 92

Debagoiena. Emakume gertu umeak zaintzeko. Mari. Deitu 649-30 13 60 telefonora.

Debagoiena. Emakume gertu, haurrak zaindu, etxeak garbitu eta adineko pertsonak zaintzeko gauetz, Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna 618-00 08 28

Debagoiena. Gizona gertu edozein lan egiteko. 645-72 92 87

Debagoiena. Ite apaintzailer lanetarako gertu nago. Deitu 639-00 35 57 telefonora

Debagoiena. Emakume gertu garbiketarako lanak egin eta ume zain helduak zaintzeko. Deitu 678-24 94 24 telefonora.

Debagoiena. Emakume lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketarako lanetan jarduteko prest. Deitu 667-20 56 29 telefono zenbakira

Debagoiena. Aretxabaleta edo Eskoriatza. Esperientziadun neska tabernari lan egiteko gertu. 650-59 93 91

Debagoiena. Mutil gaztea lanerako gertu. Publizitate banaketan edo bestelako lanetan. 696-48 42 50

Debagoiena. Neska euskalduna gertu garbiketarako lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Bergaran edo Arrasaten. Telefonoa: 600-82 84 60

Debagoiena. Zerbitzaria lanerako gertu. Zortzi urteko esperientzia dut. 657-02 15 96

Debagoiena. Bigarren mailako ofizial, ostalaritza laguntzailer edo garbiketarako lanak egingo nituzke. 649-62 88 22

Debagoiena. Mutila edozein lanetan jarduteko gertu. 696-48 42 50

Debagoiena. Galdaragintzan esperientzia duen mutila edozein lan egiteko gertu. 664-42 96 65

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 686-53 34 01

Debagoiena. Mutil gazte eta langilea gertu eraikitzaile arloan lan egiteko. Esperientziaduna eta alikatzaile aditua. 663-72 37 44

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. 618-34 09 35

Debagoiena. Mutila prest nekariztako lanak, pertsona nagusiak zaindu edo garbiketarako lanak egiteko. 650-96 23 08

Debagoiena. Mutila gertu nekariztako lanak, baso-lanak egiteko edota motozerrarekin aritzea. 660-98 67 20

Debagoiena. Hemengo emakume gertu umeak zaintzeko Bergaran edo Antzuolan. 696-84 19 51

Debagoiena. Desbrozadora lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. Euskalduna. Telefonoa: 658-73 79 02

Debagoiena. Emakume gertu garbiketarako egiteko edo pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. 664-74 82 07

Debagoiena. Emakume gertu garbiketarako lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Etxean geratzeko prest. 664-12 43 25

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo bestelako lanetan jardungo nuke. 677-17 43 75

Debagoiena. Emakume gertu etxeko lanak egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 671-87 14 06

Debagoiena. Garbiketarako orokorrak egin eta adinekoak zain umeak zaintzeko gertu nago. Tabernari ere esperientzia daukat. Geriatria laguntzailer eta tabernari titulak daukat. Ainhoa. 671-35 22 60

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka egingo nuke lan. 648-84 23 82

Debagoiena. Erizain ikasketak ditut eta nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten. Erreferentzia eta lege dokumentuak ditut. 652-25 34 97

Debagoiena. Arratsalde nagusiak zaindu edo tabernakoa sukaldari 636-11 23 40

Debagoiena. Emakume gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasaten. 680-61 96 98

Debagoiena. Esperientziadun neska tabernari lan egiteko gertu. Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatzan. 650-599 391

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten, astelehentik ostiralera. 678-04 28 16 edo 638-04 17 02

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen, botikak banatzen eta elikadura gertatzen, higijean eta mugitzen. Umeak zaindu edo garbiketarako lanak ere egingo nituzke. 943-03 45 06 edo 688-65 41 26

Debagoiena. 50 urteko emakume esperientziaduna ume zain nagusiak zaindu edo garbiketarako lanak egiteko gertu. Oti. 615-75 30 75

Debagoiena. Emakume gertu garbiketarako orokorrak eta enpresatan edo zer motako lanak egiteko. Socorro Mora. 627-14 63 79

Debagoiena. Sukalde laguntzailer, nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egingo nituzke. 608-34 36 11

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke orduka zain etxean bertan bizi izanda. Interesatuak deitu: 669-02 91 30

Debagoiena. Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko. 600-82 84 60

Debagoiena. Lanaldi osoan, lanaldi-erdian edo orduka lan egiteko mutil gazte gertu. Harategiko lanean esperientzia, zailtze salan. 677-73 79 59

Debagoiena. Emakume gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. 696-57 03 89 edo 627-60 49 99

Debagoiena. Ite apaintzailer etxerik etxeko zerbitzua eskaintzen du. 650-59 93 91

Debagoiena. Emakume esperientziaduna gertu sukalde laguntzailer edo garbitasun lanak egiteko. Nacira Moreno. 680-58 57 06 edo 659-32 69 92

Debagoiena. Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska gertu ume zain nagusiak zaindu edo garbiketarako lanak egiteko, orduka. 676-28 87 84

Debagoiena. Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza. Esperientzia duen mutil zerbitzaria gertu barra zain terraza lanak egiteko, orduka. 610-97 82 88

Eibar. Lehen Hezkuntza duen eta Haur Hezkuntza ikasten ari den neska, umeak zaindu edo klase partikularrak emateko prest. 659-70 93 34

Eibar. Mutil arduratsua eskaintzen da Eibar inguruan, udan eta asteburuetan lan egiteko kamarero, sukaldari laguntzailer edo beste edozein lanerako. 654-24 86 76

Elgoibar. Emakume, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest edota garbiketarako lanak egiteko prest. Arratsalde edo gauetz. Geriatria kurtsoarekin. 646 23 51 95 edo 943-53 19 03

Elgoibar. Neska euskalduna etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko edo umeak zaintzeko prest. Jai egunetan ere bai. 676-87 64 08.

Elgoibar. Emakume zerbitzari lanetarako prest, haurrak eta nagusiak zaintzeko prest eta garbiketarako lanak egiteko prest. 617-05 68 28.

Gasteiz. Neska euskaldunak bere burua eskaintzen du umeak zaintzeko, arratsaldetan eta udan. Eskarmentua dauka eta euskara klaseak emateko ere prest dago. Veronica. 610-37 73 53

Oñati. Oñatiko neska gazte bat, umeak zaintzeko prest. Ekainaren 20tik aurrera. 677-37 04 81

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Andoain. Ingeleseko irakasle bat nahiko nuke Andoain inguruan. Idatzi mezu bat jmlarrarte@gmail.com helbidera.

Zinpeko zainzaile lanetan diharduen neska naiz eta lanpostu horretarako oposizioak prestatzen lagunduko didan norbait behar dut. 685-77 66 21

502. EMAN

Arrasate. Ingeniaritza ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoko eskola partikularrak emateko gertu nago. 664-66 73 09

Arrasate. Arrasateko mutil gazte bat gertu udan eskola partikularrak emateko. Lehen Hezkuntza goki guztiak (ingelesa barne). Irakasle ikasketetan diplomaduna eta Arrasateko eskoletan esperientziaduna. 635-75 05 26 edo 943-08 14 25

Arrasate. Irakaslea eta Psikopedagogoko, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza klase partikularrak ematen ditu. Lan talde txikiak. Esperientzia handia eta emaitza onak. 658-70 67 84

Azeptitia. Ingeniari teknikoa LH mailako eskola partikularrak emateko prest. Azeptitia. Informazio gehiago: 637-11 39 09

Azeptitia. Enpresaritzan lizentziatua dagoen neska arduratsua klase partikularrak emateko prest, Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleei. Esperientzia nahikoa. Edozein egunetan. 675-71 18 47

Bergara. Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut, Bolun, datorren ikasturtea prestatzeko. 616-12 56 29

Bergara. Eskola partikularrak emateko prest dagoen ingeniariartzako ikaslea naiz, uztailean. Eskola partikularrak ematen esperientzia dut. 685-70 17 09

Debagoiena. Ingeleseko eskolak emateko gertu nago, uda osoan zehar, maila guztiak. Amaia. 635-00 68 84

Debagoiena. Matematikan lizentziadunak udan eskola partikularrak emango lituzke. Alex. 653-70 89 17

Debagoiena. Arkitekto irakaslea uda guztian zehar eskola partikularrak ematen ditut, Bolun, datorren ikasturtea prestatzeko. 616-12 56 29

Bergara. Eskola partikularrak emateko prest dagoen ingeniariartzako ikaslea naiz, uztailean. Eskola partikularrak ematen esperientzia dut. 685-70 17 09

Debagoiena. Ingeleseko eskolak emateko gertu nago, uda osoan zehar, maila guztiak. Amaia. 635-00 68 84

Debagoiena. Matematikan lizentziadunak udan eskola partikularrak emango lituzke. Alex. 653-70 89 17

Debagoiena. Arkitekto irakaslea uda guztian zehar eskola partikularrak ematen ditut, Bolun, datorren ikasturtea prestatzeko. 616-12 56 29

tikularrak emateko prest. Esperientziaduna. 666-87 18 52

Debagoiena. Esperientzia handidun irakasle eskola partikularrak ematen ditu udan eta urte osoan. Bakoitzak nahi dituen eta komeni zaizkion ordu eta ordutegiarekin. Telefonoa: 943-78 28 43

Eibar. Lehen Hezkuntza duen eta Haur Hezkuntza ikasten ari den neska, klase partikularrak edo umeak zaintzeko prest. 659-70 93 34

Oñati. 21 urteko gaztea udan eskola partikularrak emateko prest. Ekainaren 18tik aurrera izan beharko luke. Orduetegiaren aldetik, malgutasuna. 685-71 74 12

6/ MOTORRA

601. SALDU

Aiban autoa. Gidabaimenik gabe erabiltzeko. 2008ko maiatzeko. Ixte-sistema zentralizatu, kristal-igogailu elektrikoak, kristal ilunak, ez-iraultzeko sistema, maletategi ederra, MP3, hagnak. Aterza-martxako sensorak. 10.000 euro negozio-argiri. Jesus. 696 16 14 35.

Audi 80 2,0 I 5V autoa salgai. SS-1707-AS matrikuladuna. Oso egoera onean. 943 76 18 95 edo 687 04 19 18 (kontxi).

Autoa trukatu (Saxo bat Berlingo edo Partner bategatik). Saxo Vts. 10 urte dituen Saxo Vts 90 autoa Berlingo edo Partner furgoneta bategatik aldatu nuke. 663-72 78 23

Citroen XSara TD. Citroen XSara TD, SS-B matrikuladuna salgai. Mp3 eta aire egokituarekin. 3.000 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 634-43 40 62

Kawasaki Z750 salgai. Kawasaki Z750 Salgai 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000km, azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Harremanetan jartzeko deitu 660-33 77 16.

125cc-ko motorra erosi nahi dut. Bigarren eskua eta merkea. 615 73 79 11.

602. EROSI

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Txakurkumeak salgai. Bulldog frantses arrazakoak. Zuri-beltzak. 620 14 10 25.

Zaldi arabiarrak salden da. Karta dauka. Atenditza ezinezkoa dudalako. 647 64 02 81.

703. EMAN

Katuak ematen dira opari. Zikiratuak eta azazkalik barrik. 644 49 61 52.

Txakurkumea oparitzen da. Bi hilabete dituen arratoi txakur arrazako txakurkume bat oparitzen da. 94-682 74 41

8/ DENETARIK

801. SALDU

Argazki kamara digitala. Pentax Optio S12 argazki kamara digitala. Estreinatzeko. 149 euro. Deitu telefono zenbaki honetara: 679-85 75 06 (Bittor)

BBK Live jaialdirako bonoak. BBK Live jaialdirako lau bono daukat saltzeko. Bakoitza 100 eurotan. 615-79 22 81.

Eskanerra. Ordenagailuarendako eskanerra salgai. Egoera onean. 10 euro. Deitu 679-74 00 61 telefono zenbakira.

Ezinduentzako garraio baliabideak. Ezinduentzako Scooterra salgai. Urtebeteko garantia. 1.600 euro. Ezinduentzako gupildun aulki elektrikoak salgai. 20 kilometrotako autonomia. Urtebeteko garantia. 2.000 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 605-77 16 07

Hozkailua. Komertziorako egokia. Kristaldun atearekin. 508 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 685-73 93 55

Suspentsioa. Renault Clio autoarentzat. Koni etxekoa. Gogortasun erregulagarria. 2001eko modeloa. Erabili gabea. Harremanetarako deitu 669-00 89 61 edo 686-81 03 23 telefono zenbakietara.

Taxi lizentzia salgai. Tolosako taxi lizentzia saltzen dut. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 616-54 29 60 telefonora.

Trizikloa salgai. Trizikloa salgai. Barbye markako trizikloa salgai. Estreinatuta gabe. Deitu 605-74 69 49 zenbakira

Zinta estatikoa salgai. Zinta estatikoa salgai. Sistema digitala. Ia berria. 50 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 608-36 26 07.

802. EROSI

Lursaila Oñatin. Orturako lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. Deitu 662 04 14 98 telefono zenbakira.

803. EMAN

Marratzeko mahai. Marratzeko mahai bat ematen dut. Oihana. Harremanetarako telefono zenbakia 616-84 55 96

804. HARTU

Irratirako tresnak. Arrasateko gaztetxean Itxungi irrati libre sortzen ari gara, eta norbaitek irrati bat sortzeko tresnak erabiltzen ez baditu pasa dadila gaztetetik, eskertuko genuke.

Uretako kefirra hartuko nuke. Uretako kefirra hartuko nuke. Baldin badaukazu, deitu telefono zenbaki honetara: 943-76 40 54.

806. GALDU

Argazki kamara digitala. Argazki kamara digitala galdu zen ekainaren 13, larunbata, Ibarren. Aurkitu duenak dei dezala mesedez. 635-73 36 46.

Betaurreko gorriak. Graduatu-tako betaurreko gorriak galdu nituen Arrasate erdialdean. Zorro gorri baten barruan daude. Aurkitu duenak dei dezala mesedez 653-71 79 87 telefono zenbakira.

Kazadora laukiduna. Kazadora laukiduna galdu nuen apirilaren 19an Kajoi tabernatik lamairako bidean. Aurkitu duenak dei dezala mesedez 656-76 78 12 telefono zenbakira. Eskertuko da.

Motxila bat. Motxila bat utzi nuen ahaztuta Taupa taberna ondoan ostegun arratsaldean. Aurkitu baduzu, mesedez deitu ondorengo telefonora. Eskertuko da. 699-86 81 21

807. AURKITU

BTT motxila. BTT motxila, gauzean, aurkitu genuen Arrasaten Okoretziko errotdan, ekainaren 13an, zapatuan, gauean. Aurkitu baduzu deitu 616-93 81 69 telefonoz zenbakira.

Giltzak. Zubillagatik Urkulurako bidean bi giltzako jokoak aurkitu dit. Batek garajekoa ematen du. Aurkitu badituzu deitu 670-65 43 59 zenbakira.

Gitarra klasiko. Gitarra klasiko aurkitu nuen Olarteko ikastolaren ondoan. Galdu duenak dei dezala 620 12 46 35 telefono zenbakira. Karlos

Umeen betaurrekoak aurkitu. Umeen eguzkitako betaurrekoak aurkitu nituen ekainaren 12, Arrasateko plazan. Ray Ban etxekoak dira. Galdu dituenak pasa dadila BAZetik.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

38 urteko arrasatearra mutil bila. Mutil bila. Xabi, 38 urte, ezkondua eta Arrasatekoa. Beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke, ahal bada, gazteago den mutilarekin. Asmo berak baldin badituzu, bidali sms bat. 605-08 82 76

35-40 urteko neska erakargarri bat ezagutu. Irundarra, 41 urte, 35-40 urte neska erakargarri bat ezagutuko nuke, ahal dela nire herriatik ez oso urrun, ni kirolzale, bertsozale, onean fina, parrandazale neurrian, eta abar. 628-55 37 35.

gazte zerbitzua

BEKAK

> **Nazioartean.** UPV-EHU. Nazioarteko mugikortasun programen esparruko hainbat beka unibertsitate ikasleentzat. Epea: uztailaren 10a.

> **Ikerkuntza historikoa.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Ikerkuntza historikorako Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka. Epea: uztailaren 15a.

LANA

> **Udaltzain laguntzaileak.** Errenteriako Udala. 2009ko Madalenetan Errenteriako Udalean lan egiteko udaltzainen laguntzaileen hautaketa. Epea: ekainaren 30a.

> **Kudeatzailea.** Txatxilipurdi Elkarteak kudeaketa lan egiteko pertsona bat behar du. Epea: uztailaren 31.

> **Udaltzain laguntzaileak.** Errenteriako Udala. 2009ko Madalenetan Errenteriako Udalean lan egiteko udaltzainen laguntzaileen hautaketa. Epea: ekainaren 30a. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako 21 plaza betetzeko lan-poltsa osatzeko hautapen probetarako deialdia. Epea: ekainaren 16a.

EKINTZAK

> **EHZ festibala.** Uztailaren 3, 4 eta 5ean Euskal Herria Zuzenean jaialdia Heletan (Baxe Nafarroa) izango da. Manu chao, Willis Drummond, The Bellrays, Emir Kusturica & The No Smoking Orchestra, Kalash 1" Afro, Borrokan, Zura, Des-Kontrol, Deabruak teilatuetan, Che sudaka,...

LEHIAKETAK

> **Dublin.** Eusko Jaurlaritza. Saria mikroipuina originalenak jasoko du, 700 euro baino gehiago balio duen bi aste ingeles-ikas-tarua Dublinen (egonaldia barne) eta Dublinera joan-etorriko hegaldia. Epea: uztailak 31



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

astea GOITBn

Astelehena, 29



> **Torreauzoko krosa, 'Harmailatik'-en**
22:15

Harmailatik saioan, domekan jokatuko den Torreauzoko Krosaren gaineko laburpen zabala eskainiko digute.

- 13:15 Marrazki bizidunak : Cloud Trotters.
- 13:45 Kantari.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Mugaz kanpo:Australia.
- 15:45 Elkartasunaren bidean.
- 16:15 28 Klip.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Wasemak
- 18:15 Musikantoi
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Kantari.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Harmailatik.
- 23:00 San Juanak 2009.
- 23:30 Goiena Magazinea.
- 00:30 Emisio amaiera.

Martitzena, 30



> **Markos Zapiaini elkarrizketa, Ilunpean saioan**
22:15

Jon Bereibarrek Markos Zapiain irakasle eta euskal pentsalaririk ezagunenetakoa elkarrizketatuko du martitzenean.

- 13:15 Marrazki bizidunak: Alex eta Alexis
- 13:45 Kantari.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:10 Harmailatik.
- 15:50 Solaskide: Angel Kuerde
- 16:20 Itsasoari begira.
- 16:45 Berriak.
- 17:10 Marrazki bizidunak.
- 17:35 San Juanak 2009.
- 18:05 Harmailatik.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Kantari.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Ilunpean: Markos Zapiain.
- 23:00 Lamien artean.
- 23:30 Goiena Magazinea.
- 00:30 Emisio amaiera.

Eguaztena, 1



> **Eskoriatzako San Pedro jaien gaineko saioa**
22:15

Jaien amaiera egunean, eguaztenean, eskainiko dute Eskoriatzako San Pedro jaien gaineko saio berezia Goiena Telebistan.

- 13:15 Marrazki bizidunak : Cloud Trotters.
- 13:45 Kantari.
- 14:15 Ikusmira: Gernikako bonbardaketa.
- 14:45 Berriak.
- 15:10 Ilunpean:Markos Zapiain.
- 15:50 Golb tb.
- 16:20 28 Klip.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Solaskide:angel Kuerde
- 18:15 Ur eta lur.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Kantari.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Eskoriatzako San Pedroak.
- 23:15 Goiena Magazinea.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 2



> **Aramaioko gaztetxoak Kantari saioan**
20:45

Aramaioko gaztetxoak ikusi ahal izango ditugu kantari. *Iñaki, Suhiltzaile izan nahi dut...* abestiak kantatuko dituzte.

- 13:15 Marrazki bizidunak: Alex eta Alexis
- 13:45 Kantari.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Eskoriatzako San Pedroak.
- 15:45 Mugaz kanpo.
- 16:15 28 Klip.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 18:00 Elkartasun bideak.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Kantari.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Berbaire.
- 23:15 Musikantoi.
- 23:45 Goiena Magazinea.
- 00:45 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 3



> **Arrasateko gazte bulegoaren ekimenaren berri**
19:45/21:15/23:30

Arrasateko gazte bulegoak uzaileko arratsaldeetarako antolatu duen *Egin dakizuna!* ekimenaren berri, *Magazinea*-n.

- 13:15 Marrazki bizidunak
- 13:45 Kantari.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Berbaire.
- 16:15 Ikusten.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 18:00 Ilunpean.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Kantari.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Solaskide.
- 22:45 Musikantoi.
- 23:30 Goiena Magazinea.
- 00:45 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> **Udako saioa astelehenean hasita**

Udako sasoiarekin batera Arrasate Irratian *Uda Giroan* irratsaioa hasi da; eta udako kontuekin lotutako opariak zozketatuko dituzte. Adibidez, kanpoko igerilekura joateko sarrerak; eta horrekin batera, uztailero eta irailero moduan, Donostiako Aquariumera joateko sarrerak.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEKko Komunikazio arduraduna; Ibilu munduan geltokian, Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenezik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibilu Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren geltokia
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

telealbistek

> TOKIKO

Lurreko Telebista Digitalaz kezkatuta daude euskarazko toki telebistak

Goiena Telebistak 2007an lortu zuen digitalean emititzeko lizentzia, beste hiru toki telebistarekin batera

IZENA ABIZENA > HERRIA

Euskarazko toki telebisten Elkarteak, Tokikok urteko Batzar Orokorra egin zuen ekainaren 25ean. Gaur egun, zazpi toki telebista (GOITB, Goierri Telebista, Erlo Telebista, 28. Kanala, Oizmendi Telebista, Ttipi-Ttapa Telebista eta Xaloa Telebista) eta Topagunea dira elkarteko kideak. Berezi, kezka azaldu zuten toki telebistek LTDaren hedapenaz;

EAEan aritzen diren euskarazko toki telebista guztiek lortu dute emititzeko lizentzia, baina Eusko Jaurlaritzarekin kontratua sinatzea falta da. Toki telebistak digitalean emititzeko lizentzia lortzeko lehiaketara aurkeztu zirenean, 2008an hasi behar zuten digitalean emititzen, baina atzerapen asko izan dira.

Euskalteleko telebista digitalean berriz, euskarazko toki telebista guztiek izango dute lekua, EAE guztian. Hala, ekainaren 24tik, Euskaltelen zuntz optikoa eta deskodetzailea duten EAEko etxe guztietara heltzen da Goiena Telebistako seinalea. Euskaltelen deskodetzaileko 11. dialean ikus daiteke GOITB Debagoienean; EAEko gainontzeko etxeetan berriz, deskodetzaileko 933. dialean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

PLANETARIUM BERRIA

Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak.

- **Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu
- **Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.
- **Donostiatik zerura begira:** Zuzenean saioa. Ikas ezazu gurekin zeruko objektuak ezagutzen eta disfruta ezazu Astronomiaz.
- **Itsua Izar Begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat
- **Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia.
- Kartoizko Suziriaren sekretua: Haurrei zuzenduta

HITZALDIA: "SUKALDARIAK ETA ZIENTZILARRIAK: GASTRONOMIA MOLEKULARRA"

Gastronomia Molekularra edo sukaldaritzaren tekniko-emozionala ize- nez ezaguna dugun mugimenduaren hastapen historikoak, bere inguruan izan diren polemikak eta gaur egun jatetxe ezagunenetan duen garrantziaz hitz egingo digu gai horretan eskarmentu handia duen hizlariak..

- Noiz eta non: **Uztailaren 2an**, arratsaldeko **19:30ean**, Newton auditoriumean.
- Hizlaria: EHUko Kimika Fakultateko irakasle den **Juan Jose Iruin** jauna.
- Sarrera doan, tokia bete arte.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

zorion agurrak



ARETXABALETA
Aitor Garai Urkia
Ekainaren 22an, 41 urte. Zorionak, aita-txo! Egun zoragarria pasa ezazula. Patxo eta besarkada handia opa dizugu etxeko guztiek, bereziki Irati eta Haritzek.



ARETXABALETA
Haizea Zabalal
Ekainaren 22an, urtebete. Zorionak, pitufa! Ederto pasatu zure lehenengo urtebetetzean. Marrubizko superhiper patxoak zuretzat! Oinatz.




ARRASATE
Abel Canales
Ekainaren 25ean, 33 urte bete zituen. Zorionak, aitatxo! Patxo handi bat eta primeran pasa dezazula zure eguna. Muak!




ARRASATE
Goizane Artze
Ekainaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak zuri, zorionak beti, zorionak Goizane, bihotz-bihotzetik! Familia guztiaren eta bereziki Amalur eta Gaizkaren partetik.



ARETXABALETA
Lurdes Otxoa
Elkorobarrutia
Ekainaren 26an, urtebetetzea. Zorionak, potxola! Egun zoragarria pasa ezazula opa dizugu familia guztiak. Patxo handi eta besarkada bat bereziki Irati, Eider eta Haritzen partetik.



ARETXABALETA
Julen Azkarate
Quintana
Ekainaren 26an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi-handi bat Ane eta etxeko-en partetik.



ESKORIATZA
Iruñe Ortiz Simal
Ekainaren 26an, 3 urte. Zorionak, sorgina! "Maite zaitut, maite maite zaitut, pila pila patata tortila!" Egun zoragarria familia guztiaren partetik eta bereziki Aimar eta Aintzanek.



ARRASATE
Udane Agiriano
Castelo
Ekainaren 26an, 2 urte bete zituen. Zorionak eta patxo handi bat amatxo eta aitatxoren partetik.



ARETXABALETA
Nora Kantera
Herrasti
Ekainaren 27an, urtebete. Oso ondo pasatu zure eguna. Zorionak eta patxo handi bat familia guztiaren partetik.




OÑATI
Xabier Lazkanoiturburu
Zabaleta
Ekainaren 27an, 39 urte. Urte askotarako, Xabi. Egun polita pasatu deizula eta ez ahaztu zure ingurukuekin ospatzen.



ARETXABALETA
Ainhitze Kerejeta
Abril
Ekainaren 27an, 3 urte. Zorionak, maite! Zure aita-amanen eta Arkaitzeren partetik.



ARRASATE
June Lizarralde Ruiz
de Zarate
Ekainaren 27an, 2 urte. Zorionak, pitxin eta patxo potolo bat zure lehengusuen partetik; Mattin, Peru, Anje, Xabier, Maialen, Julen eta Naia.



ARRASATE
Paulo eta Jon Abasolo
Paulok, ekainaren 28an, 3 urte eta Jonak, ekainaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak! Alaitz eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
Maren Lezeta Iturbe
Ekainaren 28an, 4 urte. Zorionak eta laztan handi bat etxeko guztien partetik, bereziki Lore, Kepa eta amamaren partetik.



BERGARA
Sara Balentziaga
Galfarsoro
Ekainaren 28an, 7 urte. Zorionak eta patxo handi-handi bat Manex, ama, aita, Osintxuko tia Arro, tio Diego, Lur, Mitxela eta Kalistaren partetik.



BERGARA
Lucía Robla
Rodriguez
Ekainaren 28an, 8 urte. Zorionak eta patxo handi-handi bat Hugo, Danel eta etxeko-en partetik.



ARRASATE
Asier Leturiaga
Elkorobarrutia
Ekainaren 29an, 28 urte betetzen ditu. Zorionak, osaba! Oso ondo pasa ezazula zure urtebetetze eguna opa dizugu familia guztiak. Bereziki patxo eta besarkada handi bat Irati, Eider eta Haritzek.



ARRASATE
Eider Sandoval
Guerra
Ekainaren 29an, 4 urte betetzen ditu. Aita, ama eta ahizpa Alazneren partetik, zorionak eta ondo pasatu eguna!



ARRASATE
Azucena Cabra Del
Palacio
Ekainaren 29an, urtebetetzea. Zorionak! Alex eta familia Gomesen partetik, ondo pasatu, potxola.




ARRASATE
Pedro Mari Arizabaleta
Ekainaren 29an, urtebetetzea. Aupa, aita! Urtebete erretiratu zitzela. Ondo, ezta? Igerten jatzu! Zorionak eta laztan handi-handia familia guztia eta bereziki Amalur eta Gaizkaren partetik.




ARRASATE
Itziar Azula
Ekainaren 29an, urtebetetzea. Ondo ospatu zure eguna. Mikel, Nerea, Jabier eta etxeko guztien partetik.



OÑATI
Jurgi Etxebeste
Bolinaga
Ekainaren 30ean, 4 urte. Zorionak eta txokolatzeko patxo pila-pila Ainize, Oier, Ibai, Aimar, Zuraide eta etxeko-en partetik. Kandelak gertu dauzkazu putz egiteko...



ARRASATE
Mattin Rozas
Lizarralde
Uztailaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak artista! Ondo-ondo pasatu eta mila patxo zure anai eta lehengusuen partetik; Peru, Ange, Maialen, Xabier, Julen, Naia eta June.



BERGARA
Ibon Arrieta
Uztailaren 1ean, 40 urte beteko ditu. Beharpenetakoa izanik, nola bueltatu? Ez, horixe! Zorionak aitatxo! Jone, Markel eta amatxo.




ARAMAIO
Libe Ayastuy
Martinez
Uztailaren 1ean, urtebete. Zorionak li-li! Egun polita pasatu, eta patxo potolo-potoluek, aita-xaitxa-amamen partetik!



OÑATI
Irati Abarrategi Kortabarria
Uztailaren 1ean, 7 urte betetzen ditu. Zorionak, potxola eta ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat familiaren partetik.



OÑATI
Laida Vazquez
Txintxurreta
Uztailaren 2an, 7 urte betetzen ditu. Zorionak Laida! Aitatxo, amatxo eta Narroan partetik. Ondo pasatu eguna eta patxo handi-handi bat!



ARRASATE
Intza Gordobil
Kortabarria
Uztailaren 3an, 2 urte betetzen ditu. Zorionak, zakuta! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo handi bat Alatz, tia Larraitz, aita eta amatxoren partetik. Mua!



ESKORIATZA
Oihane Belategi Arrese
Uztailaren 5ean, 4 urte betetzen ditu. Zorionak, potxola! Aitatxo, amatxo eta Xolaren partetik.

ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

Internet bidez
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu. Aukeratu zein herritan gehitu duzun eta eskatzen diren datuak bete.

e-postaz
Mezu bat bidali sailkatuak@goiena.com helbidera. Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

Edo etor zaitez Goienako ordezkari batzera.

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

kuxkuxeroa



Miren Arregi

Sasioan sasoikoa eta bakoitzak dagokiona

Sargori egin du asteburuan. Aukeran nahiago neguko arratsalde ilun bat. Baina, sasioan sasoikoa dio esaerak eta gustuko dut gainera esamoldea, beti pentsatu izan dudalako uneko klimak eskaintzen duenaz baliatu behar dela unean. Herria kalera ateratzeko balio izaten du gainera, eguraldi "ona" deitzen diogunak eta ekintzak ere, askoz ere gehiago antolatzen dira halakoetan. Asteburuan ere, gustu guztietarako aukerak izan dira. Esaterako zapatuan, giro ederra egon zen **Oñatiko Gazte Asanbladak** antolatutako Gazteburuan; **Piperrak** taldekoak, **Inpekables...** Azken horretan, gainera, baxua jotzen du arratsalde guztia sonbrero mexikarra buru gainean zuela kontzertuak entzuten eman zuten **Kojon Prieto y los Hualotes** taldeko Montxok.

"Sudurra apurtu zion Larrañagari Aitor Mendizabalek jaurtitako pilotakada batek"

Torreazoko herri krosak ere jende mordoia erakartzen du. Atxintxika egitera batzuk, eta ikustera besteak; beste askoren artean, han izan zen **Iker Larrea** korrikalari antzuolarra, eta musikaririk ere bai; **Joxe Mari Anduaga** Oñatiko bakarlarria, beste askoren artean.

Kirol hitzordu gehiago ere izan da gurean asteburuan. Igeriketa txapelketa egin da Bergaran, eta Oñatiko eta Bergarako igeriketa taldeak aritu dira. Horra, baina, ez da Kirol diputatua agertu; bai ordea, Oñatin jokatu den Gipuzkoako Erremonte kopako finalera. **Iñaki Galdos** izan zen bertan, eta nork daki ez zuen **Alkarbiderako** fitxaketarik egingo. Txantxetarakoak ez direnak ere izan dira asteburuan. **Aitor Mendizabalek** sudurra apurtu zion-eta pilotakada batez aurkari **Larrañagari**. Antza min larregi ez, eta jokatzeko jarraitu zuen. Orain duen egoera, baina, ez da goxoa izango.

asteburuko albuma

Ekon Monterronen. Sei urteko ete-naldiaren ostean, Ekon talde arrasatearrak Monterronen eskaini zuen kontzertua egubakoitzean. Eszenaratze bikaina egin zuten eta gogotsu itzuli direla erakutsi. Publikoak ez zuen berotasun gehiegirik erakutsi, baina, *Zirikatz* edo *Eraiki* bezalako doinuak jo zituztenean, berpiztu egin ziren lehenengo eta oraingo jarraitzaileak. Taldea Arrasaten ikusteko aukera izan ez dutenek izango dute horretarako beta; izan ere, San Ferminetan eta Santutxuko eta Gasteizko jaietan ere joko dute. Ekonen aurretik, baina, Bitter Honey eta Los Galerna taldeek eskaini zituzten kontzertuak; 70eko hamarkadako doinuak lantzen dituen Bitter Honey taldeak, gainera, zapatuan ere jo zuen Arrasaten, 3.600 aretoaren agur jaialdian. Los Galerna taldekoek ere giroa pizten jakin izan zuten.



Itxungi irrati libre sortu dute Arrasaten. Irailean hasiko da emititzen Arrasateko gazte batzarreko kideek sortu duten Itxungi irrati librea. Horren aurkezpena, egubakoitzean egin zuten asanbladako kideek Arrasateko gaztetxean bertan. Herritarrek jakin-mina azaldu zuten aurkezpenean.



Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen Nazioarteko eguna. Bergarako Udalak bat egin du atzo ospatu zen Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen Nazioarteko egunarekin, eta euren aldarrikapenekin bat eginez, ortzadarraren bandera ipini dute asteburuan udaletxeko balkoian.

jaiotakoak



Liher Sanchez Perez
Arrasate > 3,040 kilo. Ekainaren 22an. Gurasoak: Oihana (Arrasate) eta Miguel (Arrasate). Argazkian, Liher jaioberria, amarekin.



Danel Morales Perez
Aretxabaleta > 2,750 kilo. Ekainaren 22an. Gurasoak: Nera (Aretxabaleta) eta Iban (Aretxabaleta). Argazkian, Danel jaioberria, sehaskan lo.



Markel eta Julen Larrinaga Sierra
Aretxabaleta > Markel 3,000 kilo eta Julen 2,700 kilo. Ekainaren 20an. Gurasoak: Luzia (Oñati) eta Gaizka (Aretxabaleta). Argazkian, amama Josunerekin.



Xabier Agirre Delgado
Oñati > 3,520 kilo. ekainaren 23an. Gurasoak: Maria Isabel (Oñati) eta Juan (Oñati). Argazkian, Xabier jaioberria, izeba Martarekin.



Lide Guenetxea Etxebarria
Aretxabaleta > 3,500 kilo. Ekainaren 14an. Gurasoak: Oihane (Durango) eta Asier (Aretxabaleta). Argazkian, Lide jaioberria, ama eta June ahizparekin.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Markos Zapiain > Irakaslea eta 'kontenplalaria'

"Iraultza 'Cronicas Marcianas'-ek hasi zuen"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Talirik tiroka datorkigu Zapiain oraingoan, baina frankotiratzailea ez da bera, antza, diana liburu berriaren azalean hark daramalako jantzita. Bere, ikasleen eta familiaren istorioekin eta hausnarketa serio zein xelebreekin kargatuta dator idazlea eta munizio nahikoa dauka beretzat, Bermeoko institutuko ikasleentzat zein parean jarzen zaion edozein gairentzat.

Liburuan zeure inguruko kontu asko azaltzen dira. Errieta asko egin dizute?

Bai, baina errieta suabea. Dagoeneko pasatuta dauden kontuak izaten dira, gainera. Baina, bai, errieta apur bat egin didate.

Behin baino gehiagotan galde-tu dizute ea kontatutako guztiak benetakoak diren.

Bai eta badira. Ikasleek ere aipatzen ditut eta gainera ikasle horiek oso-oso harro daude liburuan agertzeaz, nahiz eta sekulako *disparateak* egiten agertu.

Harritzeko gaitasuna hortaz aspaldi galdua izango duzu.

Ez. Oraindik ere harrizten naute, ze dena aldatzen doa etengabe, ikaragarria da. Ez dakit aldaketa zerk markatzen duen baina iraultza *Cronicas Marcianas* hasi zenezan etorri zen. Ikasleek, ez dakit nahita ala nahi barik, baina imitatu egiten zituzten Matamorostarrak-eta. Exhibizionismoa orduan hasi zen nabarmentzen. Orain uste dut Tuentik aldatu duela ikasleak elkarren artean harremantzeko modua. Beste erremediorik ez daukat; egun guztia egiten dut nerabeen artean.

TEST-A

Jaioteria: Irun. **Adina:** 47 urte. **Ikasketak:** Filosofia eta Filologia **Ogibidea:** Irakasle Bermeoko institutuan eta idazle. **Literatura kritiko** ere. **Familia:** Alaba nerabe biren aita naiz. **Bizitokia:** Bermeoko tala. **Bermiotarra, hortaz:** Saia-tu bai, baina zaila da bermeotarrak holakotzat hartzea, denborarekin agian. **Txikitako heroia?** Txillardegia. Haren hitzaldietara joaten nintzen hara eta hona eta oraindik miresten dut.

Liluragarriak zaizkizu nera-beak?

Oso adin polita da. Asko sufritzen dute eta baita sufriarazi ere. Sekulako beherakadak daukate, baina nik uste dut ikasi, benetan ikasi, sasoi horretan egiten dela. Gorputzean eta bihotzean geratzen zaizkizu adin horretako markak. Garrantzitsu da.

Liburu gehiago saltzen dituzu telebistan agertzen zarenetik?

Ez dakit, ez dut horren berri. Agian gutxiago! Uste dut Pako Aristik zioela ziur aski gutxiago saltzen zuela telebistan agertzen hasi zenez geroztik.

Telebistan ikuskizuna behar da, ezta?

Egian esan, gaueko hamaiketan ezin zara hasi gehiegizko ñabardurekin. Batzutan astakeriak bota behar dituzu. Ezin duzu guztia audientziarengatik egin, baina ika-mikek erakartzen dituzte ikusleak. Azkenaldi honetan ni beti ipintzen naute Opusekoekin eta horrela. Zerbaitegatik izango da.



AUTOBUS GELTOKIA Autorik ez dauka Zapiainek.

JON BEREZIBAR

ai, ene!



Jatetxea zintzilik

Bada afari kuttun batera joan eta leku berezi edota bista ederak izatea aukeratzeko duenik. Ba, enpresa batek 50 metro-tara zintzilikatzen duten plata-forma eskaintzen du 22 lagundako; eta horren barne, bi zerbitzari eta piano-jotzailea.

<http://www.dinnerinthesky.com>

biharamuna

Juan Kruz Mendizabal


uroiloaren kabia

Badira hiru bat aste Bergarako Santa Mari-na elizako zubiaren azpian uroilo batek kabia egin duela. Hegazti guztiek bezala arraultzak jarri ditu eta, berotuz, txitoen zain jarri zaigu. Horaino ez dugu inolako nobedari, zubi azpiko Deba ibaiaren harri baten gainean habia egin duelako. Hantxe, hosto eta adartxoekin egin du bere etorkizuneko txitoen jai-lekua. Errekako urez inguratua dago, ur handiak iritsi ezker sarraskia gertatzeko arriskuan. Baina, hori gutxi balitz, errekako ahateak jarri zaizkio inguruan zain arraultzak lapurtzeko prest. Hauxe da gure egunerokotasunean naturak eskaini digun



ikuskizuna. Egunero, haur eta guraso, hortxe ditugu begira, uroiloaren halako estualdia hainbat pertsonen eguneroko metafora dela jabetu gabe. Ez al zaio, galdetu diot neure buruari, hainbat gizasemeari horixe bera gertatzen? Ez al du hainbatek bere etorkizuna loratzeko zailtasunak eta estualdiak izaten? Uroiloari bere etorkizuneko ametsak ahateak lapurtzeko benetazko beldurra duen bezala, ez al du zenbatak aurrera ateratzeko estualdi horixe bera bizi izaten? Hortxe duzu, lagun, bertatik bertara, zuzen-zuzenean gertatzen ari den gure bizitzaren metafora. Aterako ote ditu uroiloak hortxe bere txitoak?

eguraldia



MAXIMOA

+31

MINIMOA

+17

Goizaldean zerua lainotuago egongo da, baina orduak aurrera egin ahala berriz ere eguzkia ikusteko aukera izango duzu.

www.euskalmet.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea **KODEA**
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea **KODEA**
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea **KODEA**
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea **KODEA**

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZA**

smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

Pop-Rock
Aitorrena (Hertzainak) | **AITORMENA**
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**
Amore amore (Kariadako benta) | **AMORE**
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) | **ASKATA**
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**
Bi Minutero (Hertzainak) | **BIMINU**
Dub manifest (Fermín Muguruz) | **DUB**
Egunero (Hertzainak) | **EGUNERO**
EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**
Elos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**
Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU**
Etorzikuna (Etsaiak) | **ETORKI**
Ezer ez da betiko (Ken7) | **EZER**
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | **BELAIR**
Haizea (Ken7) | **HAIZEA**
Hegal egiten (Itoiz) | **HEGAL**
Ikusi (Delirium Tremens) | **IKUSI**
Ilargia (Ken7) | **KEN**
Inperuen ate joka (Gatibu) | **INPER**
Jokin Urairi Hitzak (Bide Ertzean) | **JOKIN**
Kaixo (Urtz) | **KAIXO**
Lau Teiltatu (Itoiz) | **ITOIZLAU**
Laztana (Lazten) | **LAZTA**
Lotuta egon arren (Kokein) | **LOTUTA**
Loreboa (EKKIXU) | **LORE**
Marea Gora (Itoiz) | **MAREA**
Musturrek sartunde (Gatibu) | **MUSTURREK**
Nicaragua (Kortatu) | **NICA**
No time for love (Hertzainak) | **NOTIME**

Salve (La Polla) | **SALVE**
Sarri Sarri (Kortatu) | **SARRI**
Sorginen leizean (Ekkixu) | **SORGIN**
Txaxo (Zarama) | **TXATXO1**
Txus (La Polla) | **TXUS**

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta biari) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kepa Junkera) | **BOKESPOK**
Hik lan eta nik jai (Tapia) | **HIK**
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | **ITSAS**
Kupela (Epede eta Larrañaga) | **KUPELA**
Mila galdere (Alaitz / Maider) | **MILAJ**
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | **HIRA**
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) | **TXANPON**

LOGOAK (SMS 1) KODEA

SATANAS	EH2	SORGIN4	AIZKORAK
TARTALO	IKURR3	IORA	BABAK
BASAJAUN	IKURR5	LAU2	ARRANAK

OHARRAK
1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu behar duzu. Kasu guztietan dela eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
 * Euskalmet deitu 900 84 02 00 telefonora. * Vodafone deitu 123-ra. * Movistar deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzaitezue abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.